



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko irailaren 14a

110. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroako Polizieiei buruzkoa. Geroa Bai eta EH Bildu talde parlamentarioek aurkeztuta (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina ezartzen duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duena. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztuta (40. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da Nafarroako ikastetxeetako irakasleen eta langileen aurkako erasoei aurre egiteko Jarduketa Plan bat abian jar dezan. Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztu du (43. or.).
- Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko zenbait mozio erretiratzea (44. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, IAT egin behar duten ibilgailuek pairatzen dituzten ilareei buruzkoa. Carlos García Adanero jaunak egin du (45. or.).
- Galdera, Haur eta Lehen Hezkuntzan 2018-2019 ikasturterako kontratatutako irakasle-kopuruari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (45. or.).
- Galdera, jakiteko ea ikastetxeetako zuzendarietara ikasturte hasierako ohiko deialdirako deituko zaien. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (46. or.).
- Galdera, 2019rako aurreikusitako lan-eskaintza publikoaren deialdian sartuko diren Haur eta Lehen Hezkuntzako maisu-maistren lanpostuei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (47. or.).
- Galdera, Arkitektura eta Gizartea Fundazioak antolatutako ekitaldien kostuari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (47. or.).

—Galdera, Eskubide Sozialetako Departamentuak edo haren menpeko enpresa publikoek sinatutako hitzarmenetan exigitutako dokumentazio ekonomikoari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (48. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Parlamentuko datu-babeserako ordezkariaren figura sortzea (49. or.).
- Bizitza Digitalari buruzko Foru Lege proposamenaren gaineko ponentzia eratzeko erabakia. Lehendakari-tzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordeak onetsia (51. or.).
- Emakumeen kalitatezko enplegua bultzatzera eta laneko desberdintasunak eragindako arraila murriztera bideratutako proposamenak egingen dituen txosten bat egiteko ponentzia eratzeko erabakia. Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordeak onetsia (51. or.).
- Araua, Legebiltzarreko organoen bilkuren eta haren egoitzan egiten diren parlamentuz kanpoko jardue-
ren publizitate-araubidea bermatzekoak (52. or.).

I SAILA:

Planak, komunikazioak eta programak:

- Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari egindako komunikazioa, Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2018ko eztabaida dela-eta (53. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Poliziei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko irailaren 10ean eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, Geroa Bai eta EH Bildu talde parlamentarioek Nafarroako poliziei buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu dute, eta presako prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako poliziei buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Aipatu foru lege proposamena presako prozeduraz izapidetzea.

3. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

Iruñean, 2018ko irailaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Poliziei buruzko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

I

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 51. artikulua baliatuz, Nafarroako Polizia Kidegoei buruzko otsailaren 13ko 1/1987 Foru Legeak ezarri zuen Nafarroako Administrazio Publikoen menpeko polizia kidegoen araubidearen gaineko aurreneko arau-esparrua.

Arau-esparru horri ondoren lege bidez egin zitzaizkion aldaketak zirela eta, beharrezkoa izan zen urriaren 14ko 213/2002 Legegintzako Foru Dekretua onestea, Nafarroako Polizia Kidegoei buruzko Foru Legearen Testu Bategina onetsi zuena.

Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea, berriz, helburu sorta batekin onetsi zen: Nafarroako Foruzaingoaren araubidea eguneratu eta arautzea; tokiko poliziak arau aldetik nahiz administratiboki koordinatzea; eta Nafarroako Polizia Kidegoetako langileen estatutu berezia arautzea. Halaxe azaltzen zen legearen atarikoan. Geroago, arau hori hein batean aldatu zuen urriaren 25eko 15/2010 Foru Legeak. Aldaketa horren xedea izan zen, zioen azalpenean adierazten denez, zenbait alderdiren arauketa finkatzea, herritarren beharrezanean erantzun integrala eskainiko zien polizia-eredu bat lortzeko bidean, lan taldeen espezializazioan aurrerapausoak egitea, eta hurbileko polizia bat sustatzea, argi izan beharko zuena, batetik, zerbitzu publikoaren izaera, eta, bestetik, gizartearen zerbitzuko tresna izateko zeregin iraunkorra. Era berean, foru lege horren beste asmo bat izan zen gure Foru Komunitatean Estatuko segurtasun indar eta kidegoen eta Nafarroako polizien artean dagoen osagarritasuna, lankidetzeta eta elkarlana islatzea, eta horien planifikazioan aurrera egitea, betiere leialtasun instituzionaletik eta elkarrekiko begirunetik abiatuta.

Duela ia bi urte onetsi zen apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legea, Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea hein batean berriz aldatu zuena; haren asmoa zen lege bultzada batez konpontzea 15/2010 Legearen bidez ezarritako aldaketak bete ez izana, eta halaxe adierazten zuen zioen azalpenean. Lege berriak funtsezko aldaketa ekarri zuen Nafarroako polizien araubidearen alderdi batzuetan, baina martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legearen oinarriko egiturari eutsiz, eta gai batzuei zuzenean helduz: lanaldiak eta lan ordutegiak, polizien lansariak eta

diziplina araubidea, Nafarroan poliziak sortzeko bidea edo horietarako sarrera eta igoera.

Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea onetsi zenetik denbora luzea iragan denez, eta apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legearen bidez txertatutako aldaketak aplikatzean zenbait arazo sortu direnez, beharrezkotzat jotzen da Nafarroako Poliziei buruzko foru lege berri bat onestea, bi xede nagusirekin: batetik, polizia modernoagoa antolatzea, garai hauetako beharretarako prestatuagoa, eta, bestetik, polizia ere azken urteetan hain aldaketa nabarmenak izan dituen gizarte honen isla izatea.

Nafarroako Foru Komunitatean nahi dugun polizia ereduari dagokionez, hau da, polizia integrala eta erreferentziakoa lortzeko helburu horretara bidean, erregulazio malgua behar dugu, Nafarroako Polizien eraginkortasun osoa bermatzea ahalbidetuko duena. Izan ere, horrela lortuko dugu Nafarroak pixkanaka eskumen gehiago hartzea bere gain, eskumen osoak kasu askotan, horrek kalterik eragin gabe Nafarroako herritarrek jasotzen duten zerbitzu polizialari.

Ulertu behar da lankidetzaz bete beharreko lana dela, elkarlanean, bai Nafarroako polizien artean bai Nafarroako polizien eta gure erkidegoan dauden beste segurtasun indar eta kidegoen artean. Gaur egungo munduan, muga nazional eta nazioartekoan gaineratik dauden mehatxu globalen eta delinkuentzia mota batzuen menpe gaude. Segurtasun indar eta kidego guztien arteko elkarlan estuaz baizik ez dugu lortuko herritarren segurtasuna eta lasaitasuna bermatzea, hori baita Nafarroako polizien zeregina, herritarrak babestea alegia.

Nafarroako Poliziek eredu polizial honen araberakoak izan beharko dute: modernoa, etengabeko prestakuntzarako prest, beren bitartekoan eta lanaren proportzionaltasuna eta egokitasuna aintzat hartzen dituen eta gainerako segurtasun indar eta kidegoekin disfuntzio oro saihesten dituen. Nafarroako Polizien antolaketak efizientea eta jasangarria izan behar du, Nafarroako gizarteari merezi duen segurtasun zerbitzua eskaintzeko gai izanen dena.

Barrenetik begiratuta, ezinbestekoa da Nafarroako Foruzaingoaren langileen estatutuak dituen berezitasun batzuk arautzea, funtzio polizialaren berezitasunak direla-eta lan baldintza eskusiboak behar dituztelako poliziek (lanaldiak, lan ordutegiak, ordainsariak, eskubideak eta betebeharrak).

Era berean, Nafarroako Polizien antolaketa ezin da garatu gure erkidegoaren errealitate sozialari bizkar emanez. Gizarte anitz eta elebidunean

bizi gara, eta eredu polizialak ere pausoak eman behar ditu bere zerbitzua Nafarroako bi hizkuntza ofizialean emateko, horrela herritarrek aukeraturako hizkuntza ofizialean arreta har dezaten bermatzeko.

Gure poliziek abangoardia izan behar dute pertsonen oinarritzko eskubideen babesean eta defentsan; haien antolaketa eta funtzionamendurako benetako erreferentzia Europako Kontseiluak Poliziaren Etikarako Europar Kodeari buruz emandako gomendioak dira.

Azkenik, XXI. mendeko poliziak ezin dio ezikusiarena egin genero indarkeriaren gaiari. Ezinbestekoa da neurri eraginkorrak hartzea gizon-emakumeen polizia lana eraginkorra izan dadin bermatzeko, aukera berdintasunez eta beharrezkoak diren urratsak eginez, Nafarroako Polizietan gero eta emakume gehiago egon daitezen, kide kopuru osoaren ehunekoei ez ezik, aginte eta ardura postuak betetzeari ere begiratuta.

II

Apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legeak xede txalogarria bazuen ere, haren aplikazio zehatzak arazo handiak ekarri ditu. Legearen aplikazioak eragindako zailtasunak honela laburbil daitezke:

Lanaldi eta lan ordutegiaren gaian, martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legearen 49 e) artikuluan egindako aldaketaren ondorioz lan egutegiaren aldaketarako ezarri zen araubidea estuegia zen, aldaezina zela ez esateagatik, eta praktikan horrek ekarri zuen ezinezkoa bilakatzea egutegiak polizia lanaren behar operatiboetara egokitzea.

Izan ere, apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legearen helburua zen polizien lan baldintzak Administrazio gainerako funtzionarioen baldintzekin parekatzea, bereziki lanaldien eta ordutegiaren gaian. Esan bezala, asmo hori ez da zeharo operatiboa izan, eta traba handiak sortu ditu zerbitzuetako batzuen antolaketan, eta horrek poliziaren segurtasun zerbitzua egiaz ematean kaltea eragin dezake.

Apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legearen bidez martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatu ondoren, frogatu egin da oso zaila dela gainerako funtzionarioen lanaldi eta ordutegi sistema aplikatzea polizia eremuaren zati batean. Polizia lana gainerako funtzionarioen lanaz oso bestelakoa da. Polizia-unitate jakin batzuen lanaldien eta lan ordutegiaren estatutu araubideak eta gainerako funtzionarioenak oso desberdinak izan behar dute, beraz. Polizia lanak berehalakotasuna, malgutasuna, langileen disponibilitatea eskatzen ditu, soilik horrela ziurtatzen ahal delako segurtasun publiko-

ko zerbitzuak ematea, herritarren ongizatea eta lasaitasuna bermatzen dituztenak. Lanaldien eta ordutegiaren araubideak behar horiei erantzutearekin batera, polizia horiei funtzionario diren aldetik dagozkien eskubideak bermatzea ahalbidetu behar du.

Finean, Nafarroako poliziei buruzko foru lege berri hau asmo handiko proiektua da: poliziei funtzionario diren aldetik dagozkien estatutu eskubideak alde batera utzi gabe, esparru juridiko berria eta bereizita diseinatzen du, ziurrenik aukera emanen duena Nafarroako Poliziak halako moduan antolatzeko non guztiz bat etorriko diren gure garaiko gizartearen eskakizunekin.

Ordainsarien gaian, apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legearen xedea zen Nafarroako Foruzaingo langileen aurrekontu osoaren birbanaketa egitea, enplegu bereko lanpostuen arteko ordainsarietako aldeak murrizteko, baina soldata-masa osoa handitu gabe betiere.

Aurreikuspen hori betetzeko, asmo handiko azterlan bat egin zen lanpostuei buruz, modu egokian baloratzeko Foruzaingoaren barruan dauden destino desberdinen berezitasunak: zailtasuna, dedikazioa, ardura eta prestakuntza teknikoa. Soldata-masa handitzerik ez zegoenez, eta foru lege hark xehetasun gehiegi edo erregelamendu zurrunezia ezartzen zuenez, praktikan ez da asko hobetu foruzainen lansari egoera, eta, are garrantzitsuagoa, lanpostuko osagarriko portzentajea (lanpostu bakoitzaren berezitasunak egiaz ordaintzen dituen osagarria), kasu askotan kopuru ezdeusetan gelditu da.

Oraingoan proposatzen den foru legeak Nafarroako Polizien ordainsarien sistema birmoldatzen du. Hasteko eta behin, lege testu berrian ahalegina egiten da kopuru edo portzentaje zurruneirik ez sartzeko. Kopuru horiek erregelamendu bidez ezarriko dira, sindikatuekin behar den negoziazioa egin ondoren. Gehienez ere, zenbateko horiek ezartzeko zenbait tarte edo muga ezartzen dira, apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legearen zurruntasunik gabe, halere, arau horrek ordainsarien arloan ez baitzuen ia lekuri uzten geroagoko garapenerako.

Era berean, beste xede bat da ordainsari osagarriak bat etortzea lanpostu bakoitzaren ñabardurekin eta berezitasunekin, eta enplegu desberdinei dagozkien ordainsari desberdinen arteko proportzionaltasuna errespetatzea. Hori guztia lanpostuen gaineko azterlanean ezarriko denaren arabera. Horrekin batera, kontzeptu batek ez du ordainsaria bide batetik baino gehiagotatik jasoko.

Eta, orobat, ordainsarien kontzeptuei definizio berria eman zaie, eta jarduera polizialaren ezaugarriak benetan islatzen dutenak izanen dira aurrerantzean, ez besterik. Horrela, berriazko osagarria deitutakoa, polizia guztiei ordaintzen zaiena, eginkizun polizialari egiaz datxezkion alderdiak ordaintzeko erabiliko da; lanpostuko osagarriak Nafarroako Polizietan dauden destino desberdinen berezko ezaugarri bereziak ordainduko ditu; burutzako osagarriak unitate organikoko agintedunei dagozkien lanpostuak ordainduko ditu; prestasun bereziko osagarria izenekoa (foru lege honetan sortutako osagarri berria) egiaz erabateko dedikazioa eta etengabe lokalizaturik egoeta eskatzen duten enplegu eta lanpostuei atxikiko zaie; azkenik, bigarren jarduerako egoera administratiboaren osagarri pertsonal iragankorrak egoera administratibo horretara pasatzea konpentsatuko du, neurri hori aplikatzen zaien langileen baldintza fisikoak edo psikikoak gutxitzea lanean aritzeak eragindakoa denean. Laburbilduz, foru lege honetan ordainsarietarako diseinatutako esparru berriaren asmoa da, batetik, polizia lanari duintasuna ematea, eta bestetik proportzionaltasun, hierarkia eta berezitasun printzipioak nagusi dituen lansari-sistema bat ezartzea.

Azkenik, apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legeak aldaketa bat egin zuen diziplina araubidean, eta, berriz ere, ez da oso egokia izan. Begi bistakoa da poliziek betetzen duten jarduera ezin dela gainerako funtzionarioek betetzen dutenaren parekotzat jo. Nafarroako Poliziek esleitua duten erantzukizun berezia, zerbitzua modu eraginkorrean ematea bermatzeko premia, eta poliziek legea bete eta betearazteko betebeharrak direla eta, ezinbestekoa da langile horien jokabide zuzena ziurtatuko duen diziplina araubide bat ezartzea. Ez dugu ahantzi behar Polizia hogeita lau orduz dela polizia, urteko egun guztietan. Nafarroako Poliziek meritu handiz betetzen duten erantzukizun maila horri erantzuteko, tresna egokiak behar dira, haien jardunean gehiegikeriarik ez gertatzeko, ez eta konpontzen zailak izan daitekeen egoerak, edo konponezinezkoak, horretan parte hartzen duten langileen beraien, Poliziaren irudi sozialaren eta Nafarroako gizarte osoaren kalterako. Diziplina araubidea beste polizia autonomiko batzuetan (Ertzaintza eta Mossos d'Esquadra) indarra duenaren parekoa izatea erabaki da, horietan bildutako esperientzia gure erkidegoan zeharo eraginkorra izanen dela pentsatuta. Hartara, zenbait jokabideren tipifikazio berria ezartzen da (esate baterako, aldi baterako ezintasun egoeren itxurak egitea), eta dagoeneko tipifikaturik dauden beste batzuk berriz definitu eta zehazten dira.

Bestetik, martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea onetsi zenetik denbora luzea iragan denez, eta lege horrek aldaketa ugari izan dituenez, komeni da Nafarroako Polizien foru lege berria egitea, asmo handiagoak jasoko dituen, egun dugun foru legearen aldaketa huts bat egin beharrean.

Alderdi batzuen edukia martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legean zuten bera da, baina, orokorrean, testu berriari egitura dinamikoagoa eta zentzuzkoagoa eman nahi izan zaio, urteetan egin zaizkion aldaketek eragindako barne inkoherentziak kendu dira, eta ahalegina egin da testuak (lehengo eduki bera duten zatiak eta berritasuna dakartenak), osorik hartuta, batasun, koherentzia eta zuzentasun handiagoak izan ditzan. Foru lege berri honen inspirazio iturri diren printzipioak kontuan hartuta, ahalegin berezia egin da aurreko garaia gogoratzen dituzten hitzak kentzeko, martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legearen oso presente daudenak. Adibidez, Nafarroako Polizia desberdinak aipatzean, "kidego" hitza desagertzen da, eta Nafarroako Polizietan dauden enpleguetatik biren izena aldatzen da, eta aurrerantzean polizia eta kaboa agentea eta agente lehena izanen dira, hurrenez hurren, nomenklatura militarrekiko lotura oro ezabatzeko, Nafarroako Poliziek izaera zibila baitute.

Horrekin batera, apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legeak, azken xedapenetako lehenean agindu bat jaso zuen, indarra hartu eta bi urteko epean Nafarroako Gobernuak Nafarroako Tokiko Poliziei buruzko foru lege bat igor zezan Parlamentura. Zenbait elkarriketa izan ondoren, eta Nafarroako Tokiko Polizien ordezkariak ere horietan parte hartuta, baloratu zen komeni zela Nafarroako Polizia guztiei buruzko foru lege testu bakarra egitea, hartara biak betez aldi berean: apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legean jaso zen agindu parlamentarioa, eta, lehen azaldu bezala, martxoaren 23ko 8/2007 Foru Lege osoaren aldaketa egiteari heldu beharra.

III

Horrenbestez, foru lege honek lau titulu dauka, eduki honekin: I. titulua Nafarroako Poliziei eta haien arteko harremani buruzkoa da; II. titulua Nafarroako Foruzaingoari buruzkoa; III. titulua Nafarroako Tokiko Poliziak ditu hizpide; eta, azkenik, IV. tituluak Nafarroako Polizien zerbitzuko langileen Estatutua jasotzen da.

I. titulua, berriz, lau kapitulutan gai hauek arautzen ditu: printzipio orokorrak, foru legearen xedea, Nafarroako Polizien eginkizuna, jarduteko printzipioak, Nafarroako Polizien antolaketa eta herritarrekiko harremanak. Aipamen berezia egin

behar zaie, lehen titulu honetan, 6. eta 7. artikuluei eta III. eta IV. kapituluari, gaur arte indarra izan duen erregulazioarekiko berritasun nagusia ekarriko dutelako.

Oro har, foru lege berriaren 6. artikuluan aurreikusita dago Nafarroako Polizien funtzionamenduaren ondorioz, herritarrek egin ohi dituzten kexa guztiei polizia ez diren langileek horiek hartu eta aztertuko dituztela administrazio titular bakoitzean.

Bestetik, 7. artikuluan arauak aurreikusten du Nafarroako Polizien Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordea eratzea. Organo hori Etika eta Deontologia Polizialen arloko kontrol eta gainbegiratze lanetarako kanpo mekanismo bat izanen da. Ildo horretan, Jardunbide Onen Batzordearen eginkizunak hauek dira, besteak beste: gertaerak aztertzea, poliziaren jarduketa bat pertsona baten heriotzaren edo lesio larriaren eragile zuzena edo zeharkakoa izan litekeela iriztean; herritarrek egindako kexa larrienei buruzko txostenak egitea, eta herritarren konfiantza kaltetu dezaketen jokabide eredu edo ohiturak, baleude, zuzentzeko neurriak proposatzea. Administrazio Publikoaren jarduketa oro zuzendu behar duten inpartzialtasun eta gardentasun eskakizunak direla eta, ezinbestekoa da batzordeari bere lanetan independentziaz aritzeko bermeak ematea. Organo horren independentzia haren eraketak eta autonomia organiko eta funtzionalak bermatuko dituzte. Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordea Nafarroako gizartearentzat benetako erreferentzia bihurtuko da Etika eta Deontologia Polizialen arloan.

III. kapitulu osoa Nafarroako Polizia desberdinen arteko harremani buruzkoa da, eta gai hauek arautzen ditu: polizia berekia duten Nafarroako Administrazio Publikoen arteko hitzarmenak; Tokiko Polizien eginkizunak Nafarroako Foruzaingoak bere gain hartzea; Tokiko Poliziako langileak Nafarroako Foruzaingoan sartzea, Tokiko Poliziak elkartzeko eskumenak batera kudeatzeko, eta noizbehinkako zerbitzuak edo esporadikoak emateko hitzarmenak.

IV. kapituluak, berriz, bultzada berria ematen dio Nafarroako Polizien Kontseiluari; kontseilua kide anitzeko organoa da, kontsulta eta aholkua ematekoa. Organo hori apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legearen bidez aldatu zen, baina 2016ko irailaren 5ean osatu zenean funtzionamenduari dagokionez hutsuneak zituela ikusi zen. Orain proposatzen den erregulazioak mantentzen du organoaren osaketa, izaera paritarioari dagokionez, baina kide kopurua hamaseititik hamabira jaitzen du, eta berrantolatu eta argitzen ditu Kon-

tseiluaren eginkizunak eta bere esku-hartzearen izaera eta ondorioak, bai eta barne funtzionamenduko zenbait kontu ere.

II. titulua Nafarroako Foruzaingoari buruzkoa da. Martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legean jasotako erregulazioarekin alderatuta, titulu honek izan du aldaketa gutxien, ziurrenik. Testuaren alderdi formal batzuk berrikusteko baliatu da abagunea, garaiz kanpoko erreferentziak edo kontrajarritakoak kenduz, eta berritasun garrantzitsu bat gehituz arauzko armei dagokienez, hau da, Nafarroako Foruzaingoko langileei prebentzioz arma kentzeko aukera izatea, behar bezala justifikatutako egoeretan, langileak lanerako desgaitasuna duelarik bere egoera psikikoa guztiz egokia ez izateagatik. Neurri horren zehaztapena erregelamendu bidez egiten dela ezartzen bada ere, foru legearen artikuluko berriak ezartzen du berme prozedura bat eskatuko dela, eta bertan entzunaldia eman beharko zaiela, nahitaez, neurriak ukitzen duten langileei.

III. titulua Nafarroako Tokiko Poliziei buruzkoa da. Erregulazioan aldaketa nabarmenak daude gai hauetan: tokiko polizien ratioa biztanleko, tokiko polizien antolaketa, eta tokiko polizia zerbitzuak izenekoak sortzea, gaur egungo udal agente edo aguzilak bilduko dituztenak alegia.

Azkenik, IV. tituluaren Nafarroako Polizien langileen Estatutua jasotzen da, foru lege honen testuan oro har nagusi diren malgutasun eta operatibitate eskakizunetara egokituta.

Arestian aipatu da martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aplikatzeak, apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legeak lanaldiei, lan ordutegiei, ordainsariei eta diziplina araubideari dagokienez aldaketak egin ondoren, zenbait arazo sortu dituela, bereziki Nafarroako Foruzaingoaren esparruan. IV. tituluaren testuaren abiapuntuan funtsezko oinarri hau dago: arau berekiak ezartzea gai batzuetarako, hain zuzen ere, eginkizun polizialaren izaera kontuan hartuta, Administrazioaren beste arlo batzuetan aplikatzeak diren arau berdinekin arautu ezin diren gai horietarako; arau orokorrak, hortaz, foru lege honetan berariaz arautzen ez diren gaietan izaera osagarriaz baizik ez dira aplikatuko. Arestian esan dugunez, geroago, erregelamenduz garatuko dira zenbait gai, hala nola, lan ordutegi desberdinak zein diren ezartzea, eta ordainsari osagarri desberdinei dagozkien ehuneko zehatzak zehaztea.

Oro har, esan daiteke foru lege berri honen xedea polizia zerbitzuaren arrazionalizazioa dela, eragimen eta jasangarritasun handiagoko zerbitzua izan dadin, ordainsari duinekin, herritarrek

polizia zerbitzuari eskatzen diotena emanen duena.

Foru lege honek sei xedapen gehigarri, lau xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen ditu.

Lehen xedapen gehigarria langile tekniko eta fakultatiboari buruzkoa da, eta xedatzen du horien eginkizunak izanen direla poliziako langileek bete behar ez dituztenak edo betetzerik ez dituztenak, haien izaera edo edukia dela-eta. Langile tekniko eta fakultatiboak lanposturako eskatutako titulazioaren arabera dagokien mailan sartuko dira, eta Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren menpe egonen da.

Bigarren xedapen gehigarrian jasotzen denez, foru lege honetan aurreikusitako lanaldien eta lan ordutegien araubidea aplikatzeak salbuesten ditu beste lan baldintza batzuk ezartzen dituen lan akordio edo hitzarmen bat duten Nafarroako toki entitateak.

Hirugarren xedapen gehigarrian sarrera eta egoera prozesuen gaineko arauak jasotzen dira.

Laugarren xedapen gehigarriak ezartzen du ezen, foru lege honen 69. artikuluan aipatzen den bigarren jarduerako egoera administratibora pasatzeko adina zehazteko, nolana ere, Estatuko Administrazio Orokorrak Nafarroako Foruzaingoa erretiro aurreratua aplikatzeko arautzen dituen koefiziente murriztaileen baldintzei erreparatu beharko zaiela.

Bosgarren xedapen gehigarriak lanaldia 1/12 murrizteko modalitatea ezartzen du Nafarroako Foruzaingoko langileentzat.

Seigarren xedapen gehigarrian jasotzen da ordainsarien berreskurapena, 15/2015 Foru Legearen aplikazioaren ondorioz ordainsariak gutxitu zaizkien Foruzaingoko unitateen kasuan. Halaber, foru lege honen aplikaziotik heldu diren balizko ordainsari-aldeen konpentsazioa jasotzen da –Agintariak Babesteko Brigadakoak kenduta, Foruzaingoko gainerako langileengan eragina izan dezaketena–.

Eta zazpigarren xedapen gehigarrian arautzen da Nafarroako Tokiko Polizietako langileak Nafarroako Foruzaingoa sartzea, izaera boluntarioarekin.

Lehen xedapen iragankorrean oro har jasotzen denez, foru legearen testuan aipatzen diren erregelamendu desberdinak eman bitartean indarra izaten segituko dutela egun indarra dutenek. Xedapen horrek berariaz adierazten du Nafarroako Foruzaingoa lanaldi eta ordainsarien Erre-

gelamendua onesten duen irailaren 28ko 79/2016 Foru Dekretua aplikatzen segituko dela, proba fisikoak gainditzeagatiko konpentsazioari buruzko 14. artikuluan xedatutakoa salbu.

Bigarren xedapen iragankorrean Nafarroako Polizietako enpleguetarako igoera deialdiak zabalteko aukera aurreikusten da, deitutako enplegutik maila bat beherago dauden langileentzat ez ezik, deitutako enplegutik bi maila beherago daudenen-tzat ere, lanpostu hutsak egotekotan.

Hirugarren xedapen iragankorra proba fisikoak gainditzeagatik orain arte emandako ordu konpentsazioaren gaiari buruzkoa da. Proba fisikoak egiteagatiko konpentsazioaren gaineko aukeraren izaera boluntarioari eusten zaio –konpentsazioa ekonomikoa ala orduena izan–, eta aukera hori libreki aldatu ahalko du foruzain bakoitzak lau urtez behin.

Proba fisikoen konpentsazio ekonomikoa aukeratzen duten langile funtzionarioei ordainsari ekonomikoa emanen zaie, mailari dagokion hasierako soldataren % 17ko osagarri bat alegia, lanpostuko osagarriari gehituko zaiona.

Nolanahi ere, bi baldintza ezartzen dira gai hau erregulatzeko:

– foruzain izaera foru lege honek indarra hartu ondoren eskuratzen dutenei automatikoki aplikatuko zaie aurreko paragrafoan aurreikusitako konpentsazio ekonomikoa, eta inolaz ere ez dute orduen konpentsazioaz gozatzeko aukerarik izanen.

– orduen konpentsazioa aukeratzen dutenak ezin izanen dira lanaldia 1/12 murrizteko aukeraz baliatu.

Baldintza horietako lehenengotik salbuetsiko dira lege honek indarra hartzen duen unean Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolan prestakuntzako oinarrizko ikastaroa egiten aritu eta foruzain izendapena foru legeak indarra hartu ondoren lortzen dutenak.

Eginen diren proba fisikoak orain arte finkatutako berak izanen dira, eta baldintza eta eduki berei utsiko zaie.

Laugarren xedapen iragankorrean, azkenik, aurreikusten da Tokiko Poliziak sortu eta antolatzeko populazio ratioak aplikatzeak ez duela kalterik eraginen Nafarroako Toki Entitateen egungo egoeran. Horretarako, ezartzen da toki entitateetan gerta daitezkeen aldaketa demografikoak bi legealditan gutxienez mantendu beharko direla Tokiko Polizien arloan foru lege honetan aurrei-

kusten denaren ondorioetarako aintzat har daitezzen.

Xedapen indargabetzaileak ohiko aipamena egiten du, foru lege honetan xedatutakoaren kontrako maila bereko edo beheragoko xedapenak indargabetzeari dagokiona, hain zuzen ere, eta ondoren berariaz indargabetzen ditu xedapen hauek: Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea eta martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatu zuen apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legea.

Azken xedapenetako lehenean agindua emanen zaio Nafarroako Gobernuari foru legearen testuan aipatzen diren garapen erregelamenduak eman ditzan urtebeteko epean, eta berariaz aipatzen dira prestakuntzari, lanpostuak betetzeari, bigarren jarduerari eta lanaldi, ordutegi eta ordain-sariei buruzkoak.

Azkenik, azken xedapenetako bigarrenak ezartzen duenez, foru legeak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

I. TITULUA

Nafarroako Poliziak eta haien arteko harremanak

I. KAPITULUA

Printzipio orokorrak eta jarduteko printzipioak

1. artikulua. Xedea eta definizioak

1. Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 46., 49.1.b) eta 51. artikulua garatzeko eta Konstituzioaren lehen xedapen gehigarriaren babesean, foru lege honen xedea hau da:

a) Nafarroako Foruzaingoaren araubidea ezartzea.

b) Nafarroako Tokiko Polizien araubidea ezartzea.

c) Nafarroako Foru Komunitatean dauden polizia desberdinak koordinatzea, Nafarroako Segurtasun Publikoaren Foru Legean araututa ez dauden alderdietan.

d) Tokiko Polizia Zerbitzuen araubide berariazkoa ezartzea.

e) Tokiko Poliziaren laguntzaileen araubide berariazkoa ezartzea.

f) Nafarroako Polizietako Langileen Estatutua ezartzea.

2. Foru lege honen ondorioetarako, honela ulertuko dira:

a) Nafarroako Poliziak: Nafarroako Foruzaingoa eta Nafarroako Tokiko Poliziak.

b) Nafarroako Foruzaingoa: Nafarroako Foru Komunitateko Polizia berekia.

c) Nafarroako Tokiko Poliziak: Nafarroako toki entitateetako poliziak.

d) Polizia: segurtasun publikoa zaintzeko arduraren funtzionario publikoa, Nafarroako Polizietako bateko kide dena eta legeek horretarako ematen dioten agintea duena.

e) Tokiko Poliziaren laguntzailea: Tokiko Polizia duten Nafarroako toki entitateek administrazio araubidean aldi baterako kontratatzen dituzten langileak, polizia horretako langileei laguntzeko, absentismo arrazoiak tarteko, plantilla organikoan hutsik dauden lanpostuak aldi baterako betetzeko, edo segurtasun publikoaren arloan gertatzen diren beharrei kasu egiteko, langile finkoekin aski ez denean.

f) Tokiko Polizia Zerbitzua: Tokiko Polizia berekirik ez duten Nafarroako toki entitateek emandako polizia zerbitzua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren menpe dauden langileek osatua, udaltzailek, alegia.

2. artikulua. Nafarroako polizien helburua.

Nafarroako poliziek helburu hauek izanen dituzte:

a) Pertsonen ordenamendu juridikoak emandako askatasun eta eskubideak babestu eta zaintzea.

b) Segurtasun eta lasaitasun publikoak, legeak errespetatzen direla eta gizartearen ordena bermatzea.

c) Delinkuentziari aurre egitea eta haren kontra borrokatzea.

d) Herritarrei laguntza eta zerbitzuak ematea.

3. artikulua. Jarduteko printzipioak.

1. Nafarroako Polizietako langileek ondoko jarduketa printzipio hauei jarraikiz beteko dituzte beren eginkizunak:

a) Konstituzioa, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa eta indarra duen gainerako ordenamendu juridikoak bete eta betearaziko dituzte.

b) Erabateko neutraltasun politikoz eta inpartzialtasunez jokatu behar diren eta, horrenbestez, inolako bazterketarik egin gabe arraza, erlijioa, iriztia, sexua, hizkuntza, jaioterria, bizitokia edo

beste edozein gizarte egoera edo inguruabar pertsonal dela kausa.

Ondorio horietarako, kontrol edo esku-hartze batean identifikazio pertsonala egin behar denean, Nafarroako Polizietako langileek identifikazioaren kasuko inprimakiak bete beharko dituzte ezarritako baldintzetan.

c) Zuzentasunez eta duintasunez jokatu behar diren eta ustelkeriazko egintza orori aurre egiten diote irmoki.

d) Laneko jardunean hierarkia eta menpekotasun printzipioei men egiten diete. Zor den obediencia ez du babestuko agerian legezkoak ez diren egintzak betetzea dakarten aginduak ematea.

e) Zerbitzua dela-eta egiten dituzten jarduketan berri emanen diete beren nagusiei, bai eta lan horien arrazoi eta helburuak jakinarazi ere.

f) Justizia Administrazioarekin lankidetzan aritu behar diren eta laguntza emanen diote indarreko arauetan ezarrita dagoen moduan.

g) Indarkeria fisiko edo morala dakarten eta abusuan, arbitrariotasunean edo diskriminazioan oinarritzen diren jokabide oro galaraziko dituzte.

h) Herritarrekiko harremanetan egoki eta adeitasunez jokatu behar diren eta beharrezkoa denean edo herritarrek eskatzen dutenean haiei laguntza eta babesa emanen dizkiete, eta egiten dituzten esku-hartzeen arrazoi eta helburuei buruz behar den informazioa emanen diete.

i) Kementsu eta azkar jokatu behar diren jokabide hori kalte larri, berehalako edo konponezin bat saihesteko beharrezkoa denean. Horrelakoetan, koherentzia, egokitasun eta proportzionaltasun printzipioen arabera erabiliko dituzte eskura dituzten baliabideak.

j) Arauzko armak beren edo beste pertsona bartzuen bizia eta integritate fisikoa benetan arrisku larrian dagoenean baino ez dituzte erabiliko, edo herritarren segurtasunerako arrisku larria dagoen egoeretan.

k) Atxiloketa bat egiten dutenean, kasuan kasuko poliziako kide gisa identifikatu behar diren, eta bai, halaber, beren jokabideak herritarrek legez dituzten eskubide eta askatasun publikoak muga-tzen dituzten egoera guztietan.

l) Atxiloturik dauden edo zaintzapean dituzten pertsonen bizia eta integritate fisikoa begiratu behar diren, eta haien ohorea eta duintasuna errespetatu behar diren. Horretarako, polizia-etxeek, ziegek eta galdeketa-gelek bideo-kamerak izan behar dituzte.

Kasuko epaileek eskatzen ahalko dituzte haien grabaketak, atxilotuek salaketarik aurkeztuz gero.

m) Beren lan jardunean Europako Kontseiluak Poliziaren Etikarako Europako Kodeari dagokionez emandako gomendioak beteko dituzte.

n) Pertsona bat atxilotzen den kasuetarako, ordenamendu juridikoak ezartzen dituen izapide, epe eta betebeharrak behar bezala bete eta begiratu dituzte, epaileen aurrean lehenbailehen eramateko.

ñ) Lan dedikazioari dagokionez, erabateko dedikazioan arituko dira, eta, hortaz, pertsonen bizia eta integritatea, legea eta herritarren segurtasuna defendatu behar diren guztietan esku hartuko dute, nonahi egonda, lanean izan ala ez izan, baita edozein delitu egitea galarazteko ere.

o) Lanbideko sekretuari dagokionez, laneko jarduna dela bide eskuratzen duten informazioa isilpean gordeko dute zorrozki, informazio-iturrien berri ematera behartuta egon gabe, salbu eta dagozkien eginkizunengatik edo lege-xedapenak aginduta beharrezkoa denean.

p) Uneoro beteko eta betearaziko dituzte Nazio Batuen giza eskubideen inguruko itun nagusiak, bai eta legea betearazteaz arduratzen diren funtzionarioentzat Nazio Batuek egindako adierazpen eta printzipio-multzo ugariak ere.

q) Beren jokabidean, Poliziarentzako Giza Eskubideen gaineko Araudia eta Jardunbidea beteko dute, Nazio Batuen Giza Eskubideen aldeko Goi-komisarioaren Bulegoak emandakoa.

r) Ezin izanen dute aurpegia estali herritarren segurtasuneko kontuetan inplikaturako pertsonen errekerimenduak edo ohartarazpenak egiten dizkietenean, salbu eta erregelamendu bidez ezarritako kasuetan.

Halaber, uneoro erakutsi beharko dute beren polizia-identifikazioaren zenbakia.

2. Nafarroako Polizietako langileek, beren lan jardunean, legezko arauak, erregelamenduzko arauak edo aurreko apartatuan jasotako printzipioak urratuz egiten dituzten egintzen erantzule zuzenak izanen dira, deusetan galarazi gabe kasuko Administrazio Publikoari egokitzen ahal zaion ondare-erantzukizuna.

II. KAPITULUA

Nafarroako Polizien antolaketa

4. artikulua. Antolaketaren printzipioak

Nafarroako Polizien antolaketa inspirazio printzipio hauen arabera izanen da:

a) Haien eginkizunak segurtasunaren arloko eskumena duten agintari publikoen agindupean beteko dituzte, beren erregelamendu organikoek adierazitako autonomia operatiboarekin.

b) Oro har, Nafarroako Foruzaingoa izanen da Nafarroako tokiko polizientzako informazioa eta laguntza zentralizatu eta bideratzeaz arduratuko dena, Estatuko segurtasun indar eta kidegoei dagozkien eskumenak eragotzi gabe.

c) Aginte katea behar bezala zehaztua izanen dute. Nafarroako Polizietako langileek, beren hierarkia maila edozein dela ere, beren egintzen, ezegiteen eta menpekoei ematen dizkieten aginduen erantzule izan beharko dute.

d) Langileen eta herritarren arteko harremanak onak izateko lan eginen dute, segurtasun publikoaren arloko zerbitzuak ematen dituzten profesionalak baitira, eta herritarrengandik ahalik eta hurbilen egoten saiatuko dira, herritarren eta poliziaren arteko komunikazioa eta elkar-ulertzea sustatzeko.

e) Langileen hautapena, edozein dela ere sarrera maila, zerbitzuaren helburuak betetzeko dituzten gaitasunetan oinarrituz eginen dute, irizpide objektibo eta ez-baztertzailaetan oinarritutako prozedurei jarraikiz, Poliziako langileak gizartearen isla izan daitezen, haren zerbitzuan baitaude. Langile horiek lanean jarduteko behar den oinarritzko prestakuntza jasoko dute, eta horren ondortik etengabeko prestakuntza eta prestakuntza espezializatua, bai eta, behar izanez gero, agintarako eta kudeaketarako prestakuntza ere.

f) Langileei dagozkien eskubideak aitortuko dizkiete, eta foru lege honetan eta aplikagarri diren gainerako arauetan ezartzen diren betebeharrak betetzeko eskatuko diete.

g) Langileen integritatea bermatzeko eta beren eginkizunetan egoki jokatzeko dutela bermatzeko behar diren diziplina neurriak hartuko dituzte."

5. artikulua. Egitura organikoa

Nafarroako Poliziak honela antolatuko dira:

a) Kasuan kasuko Poliziako buruaren kargua.

b) Enplegu hauek, guztiak edo batzuk, ordena honetan hierarkikoki egituratuta: komisario nagusia, komisarioa, inspektorea, inspektoreordea, agente lehena eta agentea.

6. artikulua. Herritarrekiko harremanak

1. Oro har, Nafarroako Poliziek Arreta Polizialerako Bulego bat izan dezakete, eta bertan, salaketak jasotzeaz gain, herritarren kexak, eskaerak eta iradokizunak ere jasoko dira.

Era berean, herritarrek Nafarroako Foruzaingoren edozein polizia-etxetan aurkez ditzakete salaketak, kekek, eskaerak eta polizia zerbitzua hobetzeko iradokizunak.

Nafarroako Polizien jarduketek eragindako kekek langile tekniko edo juridikoek aztertu eta ikertuko dituzte, polizia ez direnek.

2. Jasotako kexa, eskaera eta iradokizun guztien erregistroa eginen da, baita erantzunena eta haien jarraipenarena ere, Nafarroako Polizietan ezarri beharreko ekintzak edo neurriak eskatu badira.

Kexa, eskaera eta iradokizun guztien berri, baita erantzunena eta jarraipenarena ere, hurrengo artikuluan aipatzen den Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordeari emanen zaio.

3. Herritarrekin harremanetan jarduteko eta herritarrak artatzeko arauetarako buruzko eskuliburu edo prozedura bat garatuko da, eta Nafarroako Poliziek hura bete beharko dute.

7. artikulua. Nafarroako Polizien Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordea

1. Foru lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak Nafarroako Polizien Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordea eratuko du, Etika eta Deontologia Polizialen arloko kontrol eta gainbegiratze lanak egiten dituen kanpo bitartekoa izateko.

Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren egitura organikoan sartuko da, baina autonomia organiko eta funtzionala izanen ditu, Nafarroako Polizietatik eta Nafarroako Gobernuan barne gaietako eskumena duen departamentutik bereizita.

2. Nafarroako Polizien Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordearen eginkizunak hauek dira:

a) Gertaerak aztertzea, pertsona baten heriotza edo lesio larria poliziaren jarduketa baten eragile zuzena edo zeharkakoa izan daitekeenean.

b) Herritarrek egindako kexei buruzko txostena egitea, jarduketa bereziki larriek eragindakoak direnean edo Nafarroako Polizien barrenean dauden jokabide ereduak edo ohiko jardunbideen ondorio direnean, eta herritarren konfiantzari kaltea eragin diezaioketenean.

c) Aurreko paragrafoan aipatzen diren jokabide ereduak edo ohiko jardunbideak zuzentzeko egokitzat jotzen diren neurriak proposatzea.

d) Kasu bakoitzean eskudun den aginteari gomendio egitea diziplina espedienteak irekitzeko, egindako ikerketen ondorioz.

e) Orokorrean, etika polizialaren arloan haien esku utzitako beste edozein eginkizun, jokabidea hobetzeko eta poliziaren jarduketa foru lege honen 3. artikuluan adierazitako oinarrizko printzipioen menpe jartzeko neurriak hartzeko, eta polizia zerbitzuaren kalitateari eta herritarrekiko harremanei dagokienez.

3. Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordeak, bere eginkizunak betetzeko, behar dituen dokumentazioa eta informazioa eskatzen ahalko dizkie Nafarroako Poliziei, haien nagusi diren agintarien bitartez, indarreko lege polizial eta prozesalek ezarritako mugekin bat betiere. Nafarroako Polizietako kideak beharturik daude Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordeari laguntzeko eta elkarlanean aritzeko, haren eginkizunak betetzen.

4. Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordeak ez ditu baloratuko epaileen mandatu edo aginduak betetzeak eragindako jarduketa polizialak.

5. Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordeak bost kide izanen ditu, bost urterako izendatuak Nafarroako Gobernuko lehendakariaren foru dekretuaren bidez, segurtasun publikoaren, zuzenbidearen, soziologiaren, psikologiaren edo etikaren gaietan irakaskuntzaren arloan entzute handia duten pertsonen artean; kide horietako batek Nafarroako polizia izan beharko du.

6. Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordeak bere kideen artean hautatuko ditu batzordeko burua eta idazkaria izanen direnak, kide anitzeko organoen arloan legeria orokorrak ematen dizkien eskumenekin.

Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordeak bere jardunerako arauak onetsiko ditu.

7. Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordeko kideek, Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionario ez direnek, dagozkien kalte-ordainak jasoko dituzte zerbitzua emateagatik. Batzordeko kideak funtzionarioak direnean ez dute inolako kalte-ordainik jasoko horren truke.

8. Jardunbide Onen eta Gardentasunaren Batzordeak jardueren urteko memoria prestatuko du, eta horren berri emanen dio Nafarroako Parlamentuari.

III. KAPITULUA

Nafarroako polizien arteko harremana

8. artikulua. Administrazio publikoen arteko hitzarmenak

1. Polizia duten Nafarroako Administrazio Publikoek, eta Polizia izan ez, baina foru lege honen 25. artikuluan aipatzen den Tokiko Polizia Zerbitzua dutenek ere hitzarmenak izenpetzen ahalko dituzte bere esku dituzten eskumenak betetzeko.

2. Hitzarmen horiek bat etorriko dira kapitulu honetan eta sektore publikoaren araubide juridikolari buruzko oinarrizko legerian xedatutakoarekin.

9. artikulua. Nafarroako Foruzaingoak Tokiko Poliziaren eginkizunak bere gain hartzeko hitzarmenak.

1. Nafarroako Toki Entitateek Nafarroako Gobernuarekin hitzartzen ahalko dituzte beren Tokiko Polizien eginkizunak edo Tokiko Polizia Zerbitzuenak Nafarroako Foruzaingoak bere gain hartzea.

Horretarako sinatzen den hitzarmenak honakoa jasoko ditu, besteak beste: indarraldia, atxikita-kon baldibide pertsonalen eta materialen identifikazioa, zer arau, baldintza eta antolamendu izanen dituen zerbitzuak, finantzaketa eta likidazioa.

2. Zerbitzu horri atxikita dauden Nafarroako Foruzaingoko langileek beren mendekotasun organiko eta funtzionala mantenduko dute, baita beren jatorrizko betebeharrak eta eskubideak ere.

Edozein modutan, toki entitate interesduna izan da zerbitzua finantzatzeko duena.

10. artikulua. Nafarroako Tokiko Polizietako langileak Nafarroako Foruzaingoa integratzea.

1. Tokiko Polizia duten toki entitateek Nafarroako Gobernuarekin hitzartzen ahalko dute haien Tokiko Poliziako langileak Nafarroako Foruzaingoa integratzea eta Foruzaingoak bere gain hartzea Tokiko Poliziak kasuko toki entitatearen udal mugapean dituen eskumenak.

Horretarako, tokiko poliziatik heldu diren langileak toki entitateari atxikiko zaizkio, zerbitzua bertan emateko; hori, halere, ez da eragozpena izanen gero, bide arruntetatik, beste destino batzuetara sartzeko daukaten eskubiderako.

2. Integrazioa toki entitateak eskatuta eginen da beti, eskubide eta betebeharrak guztiak errespetatuz. Aldez aurretik, beharrezkoak diren gaikuntzarako probak eta ikastaroak ezarriko dira Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolan.

3. Integrazioarako hitzarmenean aurreikusi beharko da Nafarroako Foruzaingoko agintedun batek, gutxienez inspektoreordearen kargua izanen duenak, beteko dituela toki entitatean ordura arte Tokiko Poliziako buruak bete dituen eginkizunak. Integrazioa toki entitateak finantzatzeko du; halakoetan, sinatu beharreko hitzarmenean zehaztuko da zer baldintzatan berrikusi eta likidatuko diren betebeharrak ekonomikoak.

11. artikulua. Toki entitateak elkartzea Tokiko Poliziaren eskumenak batera betetzeko

1. Tokiko Polizia duten Nafarroako toki entitateek elkartzeko akordioak izenpetzen ahalko dituzte Tokiko Poliziaren eskumenak batera betetzeko, betiere baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Toki entitate mugakideak izatea.

b) Tokiko Poliziaren eskumenak betetzeko bakoitzak bere aldetik behar adina baliabiderik ez izatea.

c) Elkartutako toki entitateetako biztanle kopurua guztira ez izatea 40.000 biztanletik gorakoa.

2. Horretan interesa duten toki entitateek izenpetzen duten elkartze akordioak toki entitate sinatzaileak identifikatu beharko ditu, hura justifikatzen duten arrazoiak, bereziki aipatuz eskumenak bakoitzak bere aldetik betetzeko aski baliabiderik ez izatea, zerbitzua ematea koordinatuko duen organoa zein den, akordioaren indarraldia eta, kasua bada, sortutako elkartearen nortasun juridikoa.

Toki entitateek gehienez ere elkartzeko akordio bat izenpetzen ahalko dute beren zerbitzuak batera emateko.

Elkartek mugagabeko indarra izaten ahalko du edo aldi edo denboraldi baterako soilik.

3. Artikulu honetan aurreikusitakoaren babesean izenpetzen diren elkartzeko akordioek Nafarroako Gobernuaren baimena beharko dute aurretik, Tokiko Polizien Koordinazioaren arloan eskumena duen departamentuaren bidez.

Ondorio horietarako, baimen eskaerari memoria bat erantsi beharko zaio, honakoekin: elkartzeko proiektuaren azalpena eta elkartzea justifikatzen duten arrazoiak, toki entitateetako biztanle kopurua frogatzen duten ziurtagiriak, udal bakoitzaren egiaztagiria, organo eskudunak emana, etorkizuneko akordioa izenpetzea onestekoa, Tokiko Polizia osatzeko duen langile kopurua eta egoitza non izanen duen.

4. Zerbitzua modu bateratuan emanen duten langileak ordenamendu juridikoak Nafarroako

Tokiko Polizientzat ezarritako oinarritzko jarduketa printzipio, estatutu araubide eta eginkizun berberak izanen dituzte.

5. Elkartzeko akordioaren aldaketa orok akordioa izenpetzeko eskatutako baldintza berberak bete beharko ditu.

6. Elkartu diren Nafarroako toki entitateek Nafarroako Gobernuan Tokiko Polizien koordinazioarako eskumena duen departamentuari jakinarazi beharko diote elkartearen desegitea, hala gertatzen denean aldeek hala erabaki dutelako edo akordiorako aurreikusitako indarraldia iragan denean.

7. Tokiko Poliziaren eskumenak batera betetzeko, ez dira bete beharko artikuluko honen aurreko paragrafoetan aurreikusitako baldintzak, foru lege bidez sortutako udalez gaindikotoki entitate bati eskuordetuz egiten denean.

12. artikulua. Zerbitzuak emateko hitzarmenak

1. Inguruabar bereziengatik, urteko garai batzuetan polizia zerbitzuen karga handiagoa duten toki entitateek, baina urte osorako langile gehiagoren beharrik izan gabe, beren plantillak indartzen ahalko dituzte beste toki entitate batzuekin izenpetutako akordio bidez, entitate horietako tokiko poliziako langileek zerbitzuak eman ditzaten toki entitate eskatzailean denbora epe batez, zerbitzu eginkizunen figura erabiliz.

2. Zerbitzu eginkizunak egiteko baldintzak kasuan kasuko hitzarmenean ezarriko dira. Horri dagokionez, neurri horrek ukitutako langileek eskubidea izanen dute zerbitzuak eragindako kalte-ordainak jasotzeko, hitzarmenean ezartzen direnak, eta beren toki entitatean onartuta ditzuten eskubideak ez dira kaltetuko.

3. Hitzarmenak Nafarroako Gobernuko Barne Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi beharko zaizkio.

IV. KAPITULUA **Nafarroako Polizien Kontseilua**

13. artikulua. Izaera eta eginkizunak

1. Nafarroako Polizien Kontseilua kide anitzeko organo bat da, kontsultarako eta aholku emateko.

2. Hauek dira Nafarroako Polizien Kontseiluaren eginkizunak:

a) Nafarroako Polizien entitate titularrei aholku ematea arlo tekniko eta polizialean, baita polizia-zerbitzua emateko modua hobetzeari dagokionez ere.

b) Aholku ematea polizia-zerbitzua kudeatzeko formula berriei buruz eta polizia-zerbitzuaren

baldintza teknikoak eta antolamenduzkoak ezartzeari buruz.

c) Aholku ematea arlo polizialean Nafarroako segurtasun publikoaren sistema garatzeari buruz.

d) Aholku ematea polizia-prestakuntzaren arloan.

e) Nafarroako Administrazio Publikoari lankidetzat polizialerako formulak proposatzea.

f) Helarazten zaizkion arau-proiektuei buruzko txostena egitea.

g) Lanbidearen estatutuari buruzko galderak bideratzea.

h) Legeek eta erregelamenduzko xedapenek esleitzen dizkieten gainerako eginkizunak.

3. Nafarroako Polizien Kontseiluak nahitaez hartuko du parte aurreko apartatuko f) letran aipatzen diren arau-proiektuak egiteko prozeduretan, baina ez da loteslea izanen eta alderdi tekniko eta profesionalek mugatuko da.

4. Nafarroako Polizien Kontseiluak aholku emanen du halakoa behar duen entitateak eskatuta nahiz Kontseiluak berak proposatuta –kasu honetan, ukitutako entitateak onartu egin beharko du hark aholku ematea–.

14. artikulua. Kideak eta funtzionamendua

1. Nafarroako Polizien Kontseiluak Nafarroako Administrazio Publikoaren sei ordezkari izanen ditu, Nafarroako Gobernuan segurtasun arloko eskumena duen departamentuko titullarrak izendatuak –horien artean kontseilaria bera edo horren eskuordetzea hartzen duen agintaria- eta Nafarroako Polizien beste sei ordezkari.

Nafarroako Administrazio Publikoaren ordezkari horietarik hiru Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarenak izanen dira, eta gainontzeko hirurak toki entitateenak, bat Iruñeko Udalarena eta beste biak Tokiko Polizia duten gainerako Nafarroako toki entitateenak, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak proposatuta.

Nafarroako Polizien ordezkari horietarik hiru Foruzaingoarenak izanen dira, buruak proposatuta, eta gainontzeko hirurak Tokiko Polizienak, bat Iruñeko Udaltzaingoarena eta gainontzeko biak beste Tokiko Polizienak, Tokiko Poliziak Koordinatzeko Batzordeak proposatuta.

2. Nafarroako Polizien Kontseiluko burua Nafarroako Gobernuan Barne arloko eskumena duen departamentuko titularrak izanen da.

3. Nafarroako Polizien Kontseiluko idazkaria Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako

funtzionario bat izanen da, horri zuzenbideko lizentziatu titulua izatea eskatu bazaio bere lanpostua eskuratzeko.

Idazkariak Kontseiluko bileretan hartuko du parte, hizpidearekin baina botorik gabe.

4. Nafarroako Polizien Kontseilua urtean behin bilduko da gutxienez, eta kideen herenak, gutxienez, eskatzen duen guztietan.

Nafarroako Polizien Kontseiluak bere jardunerako arauak onetsiko ditu.

II. TITULUA

Nafarroako Foruzaingoa

15. artikulua. Izaera eta mendekotasun organikoa

1. Nafarroako Foruzaingoa Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren menpeko segurtasun zerbitzu zibila da, egitura eta antolaketa hierarkizatuak dituena.

2. Nafarroako Foruzaingoa polizia integrala eta erreferentziakoa da, eta Nafarroako Foru Komunitateko lurralde osoan betetzen ditu bere eginkizunak, horrek galarazi gabe ordenamendu juridikoak Tokiko Poliziei eta Estatuko segurtasun indar eta kidegoei esleitzen dizkien eskumenak.

3. Nafarroako Gobernuari dagokio, lehendakariaren bidez, Nafarroako Foruzaingoaren goreneko agintea.

Barne gaietako eskumena duen departamentuko titularrak den kontseilariak beteko du Nafarroako Foruzaingoaren goi zuzendaritza.

Nafarroako Foruzaingoak Foruzaingo buruarren agintepean jardunen du.

4. Nafarroako Foruzaingoak kasuko plan zuzendarian zehazten den ratioa izanen du: gutxienez ere 2,2 polizia izanen dira mila biztanle bakoitzeko, eta ratioa ez da izanen Nafarroako toki polizietakoa baino txikiagoa. Hori, halere, ez da eragozpena izanen langile-gastuei buruzko oinarriko arauak xedatzen dutenerako.

16. artikulua. Eginkizunak

Nafarroako Foruzaingoak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Bermatzea herritarren segurtasuna, eskubide eta askatasun publikoen erabilera baketsua eta pertsonen eta ondasunen babesia.

b) Begiratzea legeak betetzen direla, bai eta Nafarroako Foru Komunitatearen eskumeneko arloei aplikatu beharreko gainerako xedapen orokorrak ere, eta, orobat, Nafarroako Foru Komuni-

tateko organo instituzionalen egintzak, ikuskapenak eta salaketak eginez, eta nahitaez betearaziz.

c) Nafarroako Foru Komunitateko agintarien babesaz eta segurtasunaz arduratzea.

d) Nafarroako Foru Komunitateko erakundeen eta haren erakunde autonomoen menpe dauden pertsona, eraikin eta instalazioen babesaz eta segurtasunaz arduratzea.

e) Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenekoak diren oinarriko zerbitzu publikoen funtzionamendu egokia bermatzea.

f) Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean zirkulazioa antolatzea, eskumenak banatzeko Estatuarekin izenpetzen diren eta unean-unean indarra duten hitzarmenekin bat, salbu eta eskumena legez Tokiko Poliziei badagokie.

g) Garraioen arloan jardun eta ikuskapenak egitea, indarra duten legeetan xedatutakoarekin bat.

h) Herritarren segurtasuna eta ordena mantentzea eta, kasua bada, ordena berrezartzea, behar diren esku-hartzeen bitartez, eta bereziki, espazio publikoak zaintzea, manifestazioak babestu eta antolatzea eta jendearen elkarretaratze handietan ordena mantentzea.

i) Pertsonak eta ondasunak babestea eta haiei laguntzea, batez ere istripua dagoenean eta larrialdietan, babes zibileko xedapenen eta, bidezkoa denean, planen arabera.

j) Trafiko istripuetan atestatuak instruitzea, apartatu honen f) letran ezarritako eginkizunen esparruan.

k) Delituei aurrea hartzea eta delituak galarazteko behar diren eginbideak egitea.

l) Polizia judiziala.

m) Nafarroako toki entitateekin elkarlanean aritzea eta elkarri laguntzea, baldin eta haiek eskatzen badute, aplikatzekoak diren xedapenetan ezartzen den moduan.

n) Beste segurtasun indar eta kidego batzuekin elkarlanean aritzea eta elkarri laguntzea, legeetan ezarritako kasuetan.

ñ) Segurtasun indar eta kidego guztiekin lankidetzan aritzea polizientzat interesgarria den informazioa biltzen, tratatzen eta elkarri ematen.

o) Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean aritzen diren segurtasun pribatuko enpresak ikuskatzea eta haien zerbitzu, jarduketara, baliabide eta langileak kontrolatzea, indarreko legeetan ezarritako dagoenari jarraikiz.

p) Gatazka pribatuak adiskidetasunez konponzen laguntzea, horretarako laguntza eskatzen zaionean.

q) Legeek esleitzen dizkieten gainerako eginkizunak, eta zehazki, legeek autonomia erkidegoetako segurtasun kidegoei esleitzen dizkietenak.

17. artikulua. Uniformea, bereizgarriak, egiaztagutunak, agurrak, ohoreak eta sariak

1. Nafarroako Foruzaingoko langileek, lanean dihardutela, uniformea jantziko dute beti.

Foruzaingoko burutzak erabakiko du, arrazoiturik, Foruzaingoko zer unitatek edo kidek beteko dituzten beren eginkizunak arauzko uniformea jantzi gabe, zerbitzuak hala eskatzen duenean. Herriarrek eskatzen dietenean, beren identitate profesionala erakutsiko dute, polizia-eginkizunetan ari direla.

2. Foru agindu bidez, kontseilari eskudunak uniformeari, bereizgarriari, egiaztagutunei, agurrei, ohoreei eta sariei buruzko arauak emanen ditu.

Halaber, Nafarroako Foruzaingoaren bulegoetan, ibilgailuetan eta bitarteko mugikorretan erabili beharreko bereizgarriak arautuko ditu.

3. Poliziaren uniforme, ibilgailu eta instalazioetako errotulazioak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan euskararen erabilera arautzen duen legerian ezarritakoa bete beharko du beti.

18. artikulua. Arauzko armak.

Kontseilari eskudunaren foru agindu bidez arautuko dira Nafarroako Foruzaingoaren arauzko armak, aplikatzekoa den estatuko legeria errespetatuz.

Foru agindu horrek ezarriko du, halaber, Administrazioak zer kasu eta baldintzatan kentzen ahalko dien arauzko arma Nafarroako Foruzaingoko langileei, arrisku psikologikoa egon daitekeela atzemateagatik. Erabaki hori, betiere, behar bezala arrazoituta egonen da, eta prozedura bat tramitatzea eskatuko du, behar diren bermeekin eta ukitutako langileari entzunaldia emanez.

Foruzaingoko buruak arauzko arma eramateko betebeharetik salbuesten ahalko du, kasuko inguruabar berezien arabera.

19. artikulua. Polizia judiziala.

1. Nafarroako Foruzaingoa ordenamendu juridikoak Polizia Judizialaren arloan esleitzen dizkion eginkizun orokorrak beteko ditu eta, bidezko bideak erabiliz, agintari judizialek edo Ministerio Fiskalak eskatzen duten lankidetzaren emanen du delituak ikertu eta jazartzera bideratutako jarduketetan,

ustezko errudunak aurkitu eta atxilotzeko, delituko tresna, efektu eta probak segurtatzeko, haiek epaile edo auzitegi eskudunaren esku utziz, eta bidezko diren txosten teknikoak eta perituxostenak egiteko.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, Nafarroako Foruzaingoaren egitura organikoaren barruan, polizia judizialaren arloko eginkizunak izanen dituzten unitateak ezarriko dira erregelamenduz, eta epaitegiei edo auzitegiei edo Ministerio Fiskalari atxikitzen ahalko zaizkie. Horrelakoak sortzeko, delituen arloko espezializazio irizpideak aintzat hartzen ahalko dira.

3. Polizia Judizialeko unitateak eginkizun espezializatuetan aritzeko, dagokion diploma beharko da, Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolak edo baliokide batek emana, espezializazio ikastaroa edo azterketa gainditu ondoren.

4. Polizia Judizialeko unitateei atxikitako langileak ikertzen ari den auziaren ardura duten epaileen, epaitegien edo Ministerio Fiskalaren menpe egonen dira, eginkizunei dagokienez.

5. Polizia Judizialeko unitateetako langileak ezin izanen dira aginduta duten ikerkuntza lanetik baztertu edo bereizi, salbu eta Botere Judizialari buruzko Lege Organikoan eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan ezarritako moduan.

6. Polizia Judizialeko unitateetako langileen araubidea foru lege honetan ezarritakoa izanen da eta, oro har, Nafarroako Foruzaingoko gainerako langileei aplikatu beharrekoa.

III. TITULUA

Nafarroako tokiko poliziak

20. artikulua. Tokiko Polizien definizioa eta eraketa.

1. Nafarroako Tokiko Poliziak Nafarroako toki entitateen menpeko segurtasun zerbitzu zibilak dira, egitura eta antolaketa hierarkizatuak dituztenak.

2. Zazpi mila biztanle eskubidedun edo gehiago dituzten Nafarroako toki entitateek Tokiko Poliziak sortzen ahalko dituzte, foru lege honen 9. artikuluan aurreikusitako aukera galarazi gabe.

3. Nafarroako Gobernuak baimena eman dezake aurreko apartatuan adierazitakoak ez diren toki entitateetan tokiko polizia eratu edo mantentzeko, herritarren segurtasuna dela-eta beharrezkoa edo komeni denean.

4. Toki entitate bakoitzeko Tokiko Polizia bakarra izanen da, eta Tokiko Polizia deituko da, usa-

dioz Udaltzaingoa deitu den kasuetan izan ezik, halakoetan izen hori mantentzen ahalko baita.

21. artikulua. Ratioak biztanleko.

Aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera Tokiko Poliziak eratzeko, ratio hauek errespetatu beharko dira:

b) 7.000tik 10.000 biztanle arteko toki entitateak: gutxienez 1etik 1,3 polizia arte 1.000 biztanleko.

b) 10.000tik 40.000 biztanle arteko toki entitateak: gutxienez 1,3tik 1,8 polizia arte 1.000 biztanleko.

c) 40.000 biztanletik gorako toki entitateak: gutxienez 1,8tik 2,2 polizia arte 1.000 biztanleko.

d) 40.000 biztanle arteko Tokiko Polizien Elkarreetan, foru lege honen 11. artikuluan aipatzen diren horietan: gutxienez 1,3tik 1,8 polizia arte 1.000 biztanleko.

22. artikulua. Nafarroako Tokiko Polizien egitura.

Aurreko artikuluan ezarritako ratioekin bat, Nafarroako Tokiko Poliziek enplegu hauek izanen dituzte gutxienez:

a) 7.000tik 10.000 biztanle arteko toki entitateak: 6 agente eta lehen agente 1, gutxienez.

b) 10.000 biztanletik gorako toki entitateak: 12 agente eta 3 lehen agente, gutxienez.

23. artikulua. Eginkizunak.

1. Nafarroako Tokiko Poliziek beteko dituzten eginkizunak honakoek emandakoak izanen dira: Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzko martxoaren 13ko 2/1986 Lege Organikoa, Nafarroako Segurtasun Publikoari buruzko ekainaren 20ko 8/2006 Foru Legea, eta indarreko gainerako ordenamendu juridikoa. Eginkizunak hauek izanen dira, bereziki:

a) Toki entitateetako agintariak babestea, eta haien eraikinak eta instalazioak zaindu edo gordeztea.

b) Herrigunean zirkulazioa antolatu, seinalizatzea eta zuzentzea, zirkulazio arauetan ezarritakoarekin bat.

c) Hiri barruan gertatutako trafiko istripuen gaineko atestatuak egitea.

d) Polizia Administratiboa, ordenantzei, bandoei eta gainerako udal xedapenei dagokienez, haien eskumenen barruan.

e) Polizia judizialaren lana, indarreko legeriak adierazten dituen kasu eta moduetan.

f) Generoko indarkeriaren prebentzioa, arreta soziala ematea eta neurri judizialak kontrolatzea arlo horretan.

g) Laguntza ematea istripu, hondamendi edo zoritar publikoaren kasuetan, eta parte hartzea Babes Zibileko planak betetzeko lanetan, legetan aurreikusitako moduan.

h) Delituzko egintzak galarazteko prebentzio eginbideak eta behar diren jarduketa guztiak betetzea, Segurtasun Batzordeetan ezarritako lankidetzaren esparruan.

i) Espazio publikoak zaintzea eta Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoekin eta Nafarroako Foruzaingoarekin elkarlanean aritzea manifestazioak babesten eta bilkura jendetsuetan ordena zaintzen, hala eskatzen zaionean.

j) Gatazka pribatuak konpontzen laguntzea, hala eskatzen zaionean.

2. Nafarroako Tokiko Poliziek aurreko apartatuko c) eta h) letretan aurreikusitako eginkizunak betetzeko egindako jarduketak Nafarroako Foruzaingoari eta Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoei jakinarazi beharko zaizkie.

3. Tokiko Poliziaren jardun esparrua, lurraldeari dagokionez, kasuko udal mugapea izanen da, foru lege honen 11. artikuluko 7. paragrafoan xedatutakoa galarazi gabe.

Aurrekoa gorabehera, premiazko egoera berezietan, Tokiko Poliziak udal mugapetik kanpo jarduten ahalko du, toki entitateek horretarako sinatutako lankidetzaren hitzarmenetan edo koordinazio planetan ezarritako baldintzak betez. Segurtasun publikoaren arloko eskumenaren titular den departamentuak onespina eman beharko du aurretik. Alabaina, larrialdietan nahikoa izanen da jarduketa behar duen lurraldeko agintari eskudunak aurretiaz eskaera egitea.

24. artikulua. Tokiko Poliziaren laguntzaileak.

1. Tokiko Polizia duten Nafarroako toki entitateak, Tokiko Polizia izan gabe hura eratzea aurreikusia dutenek, eta foru lege honen 11. artikuluan aurreikusitako elkarrekin langileak kontratatzen ahalko dituzte aldi baterako, administrazio araubidean, eta langile horiek Tokiko Poliziaren laguntzaileak izanen dira; kontratazioen helburua eginkizunak eraginkortasunez betetzea izanen da, absentismoak edo aldi baterako absentziarako beste arrazoi batzuek eragiten dietenean, lanpostu hutsak betetzean, edo segurtasun publikoarekin

lotutako salbuespeneko edo behin-behineko beharrrak daudenean.

Horrekin batera, Tokiko Poliziarik ez duten toki entitateek edo elkarteek salbuespen gisa kontratatzen ahalko dituzte Tokiko Poliziaren laguntzaileak, hurrengo artikuluan aipatzen diren Tokiko Polizia Zerbitzuei laguntzeko eta bertako lanpostu hutsak betetzeko. Kontratazio hori egin aurretik, Nafarroako Gobernuaren baimena beharko da, Barne gaietako eskumena duen departamentuaren bidez. Kontratazio hori ez da inola ere egiten ahalko kasuko toki entitatean Tokiko Polizia Zerbitzurik ez badago.

2. Tokiko Poliziaren Laguntzaileek kasuko Tokiko Poliziako langileei laguntzeko lanak beteko dituzte, eta haien zuzendaritzapean arituko dira.

Langile horiek beteko dituzten eginkizunak soilik izanen dira ondasunak, zerbitzuak, instalazioak eta egoitza ofizialak zaindu eta gordetzea, zirkulazioko arauak jarraituz bide-trafikoa antolatzea, Tokiko Poliziei edo Tokiko Polizia Zerbitzuei elkarlana eta laguntza ematea herritarren segurtasunaren, babes zibilaren eta sorospenaren arloko eginkizunetan, eta parte hartu eta laguntzea administrazio izaera duten arauak betearazten. Ondorio horietarako, agintaritzaren agentetzat hartuko dira.

3. Tokiko Poliziaren Laguntzaileek behar bezala identifikatzeko moduko bereizgarriak eramanen dituzte aldean eta behar den dokumentazioaren bidez frogatuko dute beren izaera.

Ez dute sekula eramanen su-armarik.

4. Kontratazioa egiteko orduan, Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolak berariaz ematen duen Tokiko Poliziaren Laguntzailearen gaikuntza ez dutenak ezin izanen dira kontratatu Tokiko Poliziaren Laguntzaile izateko.

Segurtasun eta Larrialdi Eskolak soilik emanen die gaikuntza hori ezarritako probak gainditzen dituztenei. Gaikuntza lortzeko bi bide daude: Barne Zuzendaritza Nagusiak aldi behin egiten dituen deialdi publiko berariazkoak edo toki entitateak sustatzen duen hautapen prozesua.

Toki entitateak sustatutako hautapen prozeduratan, izangaiek gaitasun fisikoa ebaluatzeko azterketa bat eta jakintza tekniko eta juridiko orokorra neurtzeko azterketa bat gainditu beharko dituzte, baita bidezko diren proba psikoteknikoak ere, horrela aurreikusiz gero.

5. Tokiko Poliziaren Laguntzaile baten kontratazioa plantilla organikoan tokiko poliziaren lanpostu bat hutsik dagoelako egiten denean, toki

entitateak lanpostu hori behin betikoz betetzeko deialdia kontratazioa egin eta gehienez bi urteko epean egin beharko du.

6. Artikulu honetan aipatzen diren langileei aplikatu beharreko araubidea Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan administrazio araubidean kontratatzen diren langileentzat ezarritakoa izanen da, foru lege honetan ezarritako salbuespenekin.

Ondorio horietarako, Tokiko Poliziaren Laguntzaileak estatutu horretako D mailan sartuko dira.

25. artikulua. Tokiko Polizia Zerbitzuak.

1. 7.000 biztanletik beherako Nafarroako toki entitateetan Tokiko Polizia Zerbitzua egon daiteke, oro har egitura hau izanen duena, gehienez ere: 6 udal agente, horietako bat koordinazio burua, izendapen libreaz hautatua.

2. Tokiko Polizia Zerbitzuetako langileek Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan ezarritakoak zuzenduko ditu, eta, ondorio guztietarako, estatutu horren C mailan sartuko dira.

Tokiko Polizia Zerbitzuetako langileak, armak dituztela edo ez, beren eginkizunetan dihardutenean, agintaritzaren agentetzat joko dira eta izaera hori behar diren agirien eta bereizgarrien bidez frogatuko dute. Udal agente lanpostuetan sartzeko hautaprobetan onartua izateko, foru lege honen 35. artikuluan poliziako agentearen enplegurako eskatzen diren betebeharrak eta baldintza berak bete beharko dira. Aguazilak hautatzeko prozeduran, izendatuak izan aitzin, ezinbesteko betebeharrak gisa, prestakuntzarako berariazko ikastaro bat gainditu beharko dute Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolan.

3. Tokiko Polizia Zerbitzuek eginkizun hauek beteko dituzte:

a) Tokiko ondasun, zerbitzu, instalazio eta bulegoak zaindu eta begiratzea.

b) Herrigunean zirkulazioa antolatzea, zirkulazio arauekin bat.

c) Herritarrei lagundu eta babes zibileko lanean parte hartzea, legetan xedatutakoarekin bat.

d) Toki entitatearen erregelamendu, ordenantza, bando eta ebazpenak betearaztea, baita gainerako xedapenak ere.

e) Espazio publikoak zaintzea eta Nafarroako Poliziekin elkarlanean aritzea bilkura handietan, jai eta kultur ekitaldietan eta antzeko egoeretan.

f) Gatazka pribatuak modu adiskidetsuan bideratzen esku-hartzea, hala eskatzen zaionean.

g) Segurtasun Indar eta Kidegoei uneoro laguntzea eta haiekin elkarlanean aritzea.

h) Kasuko toki entitateek esleitu edo emandako beste edozein eginkizun, poliziala ez dena, ordenamendu juridikoan xedatutakoarekin bat eta lanpostuaren baldintzen barruan dagoena.

26. artikulua. Antolamenduaren erregelamenduak.

Tokiko Polizia duten toki entitateek hura antolatzeko erregelamendua prestatuko dute. Horretan dauden enpleguak edo graduazioak jasoko dira bertan eta, kasua bada, antolaketa-ko unitateak ere. Halaber, unitate bakoitzaren berariazko eginkizunak eta horietan sartzeko bete beharrekoak ezarriko dira.

27. artikulua. Uniformeak, bereizgarriak, armak eta egiaztagutunak.

1. Nafarroako Tokiko Polizietako langileek, zerbitzuan dihardutela, uniformeak jantziko dute beti. Toki entitate bakoitzeko organo eskudunak, zerbitzuak hala eskatzen duenean, arrazoituta ezarriko du Tokiko Poliziako zer unitatek edo kidek jardun dezaketen uniformeak jantzi gabe.

2. Toki entitate bakoitzak arau berariazkoak eman ditzake uniformeez, egiaztagutunez, bereizgarriez eta, kasua bada, agurraz. Horrek ez du galarazten Nafarroako Gobernuak, Tokiko Polizien Koordinazioaren arloan eskumena duen departamentuaren bidez, neurriak sustatzea gai horien erregulazio homogeneoa lortzeko Nafarroako Tokiko Polizia guztietan.

3. Nafarroako Tokiko Polizietako langileek, beren eginkizunetan dihardutela, toki entitateko organo eskudunak erabakitako armak eramanen ditu soinean, Nafarroako Gobernuak, armei buruzko estatuko legerian ezarritakoaren arabera, foru lege honen 18. artikuluan aipatzen den foru aginduaren bidez Nafarroako Foruzaingoaren arauzko arma direla adierazten dituenetatik.

Organo horrek ezarriko du, halaber, toki entitateak zer kasu eta baldintzatan kentzen ahalko dien arauzko arma Tokiko Poliziako langileei, arrisku psikologikoa egon daitekeela atzemateagatik. Erabaki horrek, betiere, behar bezala arrazoituta egonen da, eta prozedura bat tramitatzea eskatuko du, behar diren bermeekin eta ukitutako langileari entzunaldia emanaz.

Toki entitate bakoitzeko organo eskudunak, zerbitzuak hala eskatzen duenean, arrazoituta ezarriko du Tokiko Poliziako zer unitatek edo

kidek jardun duten lanean arauzko arma eraman gabe.

Armak aplikatzekoa den legeria orokorrean xedatutakoari jarraituz erabiliko dira.

4. Poliziaren uniforme, ibilgailu eta instalazioetako errotulazioak toki entitatean euskararen erabilerrari buruzko arauetan ezarritakoa bete beharko du beti.

IV. TITULUA

Nafarroako Polizietako Langileen Estatutua

I. KAPITULUA

Sarrera, hautaketa eta lanpostuak betetzea

1. atala

Xedapen orokorrak

28. artikulua. Plantilla organikoak eta lanpostuen zerrendak.

1. Nafarroako Administrazio Publikoek beren plantilla organikoetan edo lanpostuen zerrendetan sartuko dituzte beren Poliziako langileei dagozkien lanpostuak.

2. Plantilla organikoetan edo lanpostuen zerrendetan Polizia bakoitzeko lanpostuak jasoko dira, behar bezala sailkatuta, eta alderdi hauek gutxienez adierazita:

- a) Lanpostu bakoitza zein mailari atxikita dagoen.
- b) Lanpostuaren zenbakia eta izena.
- c) Zein unitate organikoren menpe dauden.
- d) Zein egoitzatan edo herritan dagoen kokatuta.
- e) Zein enplegu edo kategoriatakoentzat erreferbatuta dagoen.
- f) Lanpostuak betetzeko sistema.
- g) Lansari osagarriak.
- h) Bigarren jarduerako lanpostuak, erregelamendu bidez ezartzen direnak.
- i) Sartzeko moduak.
- j) Sartzeko eta jarraitzeko bete beharrekoak.

3. Nafarroako Gobernuari dagokio Nafarroako Foruzaingoaren plantilla organikoa onetsi eta aldatzea, bai eta hura osatzen duten lanpostuak zehaztea ere. Plantilla organikoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Nafarroako Foruzaingoko langileak beren lanbide zenbakiarekin identifikatuta ageriko dira plantilla organikoan.

4. Tokiko Poliziak osatzen dituzten lanpostuak zehaztea eta haien plantilla organikoak edo lanpostuen zerrendak onestea toki entitateari dago, toki administrazioaren gaineko legerian ezarzen den organoaren bitartez.

29. artikulua. Poliziako burua.

1. Poliziako buruaren kargua bateraezina da Administrazio Publikoko beste edozeinekin, baita beste edozein lan, merkataritzako jarduera edo lanbiderekin ere.

2. Nafarroako Foruzaingoko burua izendapen libreko behin-behineko langilea da, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazio goi kargutzat hartuko da, zuzendari nagusien araubide juridikoa aplikatuko zaie, eta Barneko zuzendari nagusiaren menpe egonen da, organikoki eta eginkizunei dagozkienez.

3. Nafarroako Foruzaingoko burua izendatzea eta kargutik kentzea Nafarroako Gobernuari dago, Barne gaitako eskumena duen departamentuko kontseilari titularak proposaturik. Bai izendapena bai kargu-uztea Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko dira.

4. Tokiko Polizia bakoitzeko buruaren izendapena, Nafarroako Polizietako kideen artekoa, eta kargu-uztea toki entitateari dagozkio, Toki Administrazioari buruzko legerian xedatutakoaren araber eskuduna den organoaren bidez.

2. atala

Nafarroako Polizietako langile izaera eskuratzea eta galtzea

30. artikulua. Araubide orokorra.

Nafarroako Polizietako langile izaera eskuratu eta galtzea Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan funtzionario izaera eskuratu eta galtzeaz ezarritakoak zuzenduko du, foru lege honetan praktiketako langileentzat xedatutakoa galarazi gabe.

31. artikulua. Mailak.

Nafarroako Polizietako langileak Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan ezarritako maila hauetako batean sartuko dira:

- a) Komisario nagusia eta komisarioa, A mailan.
- b) Inspektorea eta inspektoreordea, B mailan.
- c) Agente lehena eta agentea, C mailan.

32. artikulua. Praktiketako funtzionarioak.

1. Nafarroako Polizietako agente eta inspektore enpleguetan sartzeko, Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolak ematen duen prestakuntza ikastaroa egiteko onartuta dauden izangaiak, lehendik funtzionario ez direnak, ikastaroa egin bitartean eta, gaindituz gero, dagokion administrazioak behin betiko lanpostuaren jabetza hartzeko finkatzen duen egunera arte, prestakuntza ikastaroaren hasieran hautatu duten Administrazioko praktiketako funtzionarioak izanen dira.

2. Praktiketako funtzionarioek oinarriko ordainsariak eta familia laguntza jasoko dituzte. Erregelamenduz ezarriko dira praktiketako langileen egoerari dagozkion baldintzak, eskubideak eta betebeharrak.

3. Ikastaroa egiteko onartutako izangaiak, lehendik funtzionario direnak, jarduneko egoera administratiboan egonen dira ikastaroak irauten duen bitartean, erregelamenduz ezartzen diren baldintzen arabera. Langile horiek eskubidea izanen dute graduari eta antzintasunari dagozkien lansariak jasotzeko.

3. atala

Langileen hautaketa

33. artikulua. Deialdiak.

1. Nafarroako Polizietan langile gisa sartzeko hautaketa deialdi publikoan egingen da, oposizio bidez edo oposizio-lehiaketa bidez, publikotasun, merezimendu, gaitasun eta berdintasun irizpideetan oinarrituta.

2. Hautaketa prozedura deialdiko oinarri jarraikiz egingen da eta horien edukia erregelamenduz zehaztuko da. Oinarriak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira eta lotesleak izanen dira Administrazioarentzat, hautaprobetako epaimahaikideentzat eta parte-hartzaile guztientzat.

34. artikulua. Hautaprobak.

1. Hautaprobak objektiboak izanen dira, eta izangaiak aurretik ezagutuko dituzte ebaluaziorako parametro teoriko eta praktikoak. Hautaprobetan sartuko dira, gutxienez ere, egoera fisikoari buruzko probak, eskatutako maila akademikoaren araberrako ezagutza-probak, plantilla organikoan lanpostuak duen hizkuntza eskakizunari dagozkion euskara-mailari buruzko probak, titulazioaren egiaztagiririk aurkeztu ezean, eta proba psikoteknikoak.

Proba psikoteknikoak talde berak eginen dizkie izangai guztiei, halako moduan non diskrezioa bermatuta egonen baita.

2. Hautapoben artean, betiere, prestakuntza ikastaro bat egonen da, Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolak emana. Ikastarorako deialdi bakarra egin ahalko da; hala bada, izangaiek behin bakarrik hautatuko dute, ikastaroa hasi aurretik.

Nafarroako Polizietako langilea izateko, nahi-taezko betebeharra izanen da ikastaro hori gainditzea.

3. Aurreko apartatuan aurreikusitakoaren ondorioetarako, izangaiak deialdiak eskatu eta Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolak antolatutako ikastaroaren baliokide den beste bat gainditua badu, aski izanen du eskola horrek ikastaroa baliozkotzea; ikastaroa baliokidea dela frogatzeko, ikastaroen edukiak berdinak edo baliokideak direla egiaztatzen duen agiri ofiziala, interesdunak eskatuta Eskolak emanen duena, eta baliozkotutako ikastaroan edo ikastaroetan lortutako notak.

Behin ikastaroaren edukia berdina edo baliokidea dela egiaztatuta, proportzio bat kalkulatu da, bai haren puntuazio orokorrarena, bai hura osatzen duten atal bakoitzarena.

4. Kasuko Administrazio Publikoek behar diren neurriak hartuko dituzte emakumeak funtzio polizialean sar daitezzen sustatzeko.

Bereziki, langileen sarrera eta hautaketa prozeduretan, proba fisikoetan eskatu beharreko maila sexuaren arabera ponderatuko da, generoak eragindako aurreiritziak saihesteko.

Ondorio horietarako, Berdintasun Plan bat eginen da, edo Administrazio bakoitzean lehendik dauden berdintasun planak eguneratuko dira, Nafarroako Polizietan emakumearen egoera aztertzeke eta, kasua bada, egoki diren hobekuntza neurriak proposatzeko.

35. artikulua. Baldintzak.

1. Nafarroako Polizietako langileen lanpostuetan sartzeko hautaprobetan onartua izateko, baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Espainiako nazionalitatea izatea.
- b) Gutxienez hemezortzi urte izatea eta kasuan kasuko deialdian, indarreko legeriarekin bat, ezartzen den adina beteta ez izatea.
- c) Su-armak eraman eta, kasua bada, erabiltzeko konpromisoa hartzea idatziz.

d) Lanposturako eskatzen den ikasketa titulua edo enplegua izatea.

e) Eginkizunak betetzeko gaitasun fisiko eta psikiko egokiak izatea, eta ez egotea deialdian bazterketarako ezartzen diren arrazoi medikoen taulan.

f) Dolozko delitu bat dela kausa kondenatua ez izatea, ez eta administrazio publiko baten zerbitzutik bereizia ere, eta eginkizun publikoetan aritzeko desgaitua edo gabetua ez izatea, deusetan galarazi gabe errehabilitazioaren onura aplikatzea, zigor eta administrazio arloetako araei jarraikiz.

g) Deialdian ezartzen den ibilgailu mota gidatzeko baimena edukitzea.

2. Betebehar hauek eskabideak aurkezteko epea bukatu baino lehen bete behar dira, g) letra-koa izan ezik, prestakuntza ikastaroan onarturiko hautagaien behin-behineko zerrenda argitaratzen den egunean bete beharko baita.

3. Nafarroako Administrazio Publikoek, plantilla organikoaren bidez, behar diren neurriak hartuko dituzte euskararen ezagutza betebeharra izan dadin destinoa eremu euskaldunean edo eremu mistoan duten lanpostuetan, euskararen erabilera arautzen duen legerian ezarritakoarekin bat.

36. artikulua. Ikasketa tituluak.

Nafarroako Polizietako enpleguak eskuratzeko eskatuko den ikasketa titulua foru lege honen 31. artikuluan ezarritako maila dagokiena izanen da.

37. artikulua. Agente enpleguan sartzea.

Agente enpleguan sartzeko, Nafarroako Polizietan sartzeko hautaprobak egin beharko dira.

Tokiko Polizia duten toki entitateek lanpostu hutsen % 30 erreserbatzen ahalko dituzte Nafarroako beste Tokiko Polizia batzuetako langileen arteko oposizio-lehiaketa bidez betetzeko. Horrelako izangaiei azkeneko Tokiko Polizian bost urte benetan lanean eman izana eskatuko zaie. Langile horiei Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolako prestakuntza ikastaroa baliozkotzeari dagokionez 34.3. artikuluan ezarritakoa aplikatuko zaie. Txanda horretan betetzen ez diren lanpostuak txanda irekiko lanpostuei gehituko zaizkie.

38. artikulua. Agente lehenaren enpleguan sartzea.

1. Deitutako lanpostu hutsen artean, agente lehenaren enpleguak agente enplegua dutenen barne igoera bidez beteko dira, kategoria-igoerarako lehiaketaren prozedura erabiliz.

Kategoria-igoerarako lehiaketa prozedurek proba teoriko-praktiko baztertzaille bat izan behar dute, gutxienez, lortu nahi den enpleguaren edukiari eta eginkizunei buruzkoa. Era berean, proba psikotekniko ez baztertzailleak ere izan ditzakete, izangaiak lanpostuaren profil profesiografikoari zenbateraino egokitzen zaizkion neurtzeko.

Lehiaketa horretan parte hartzeko, gutxienez hiru urteko antzintasuna eskatuko da agentearen enpleguan.

2. Aurreko apartatuan aipatzen diren deialdietan, polizia bereko kideentzako barne igoerarako txanda bat ezarriko da, eta beste txanda bat gainerako lanpostu hutsekin, Nafarroako Polizia guztietako kideentzat irekia, ezarritako betebeharrak betetzen badituzte.

Apartatu honen aplikazioaren ondorioetarako, hiru lanpostu hutsetik lehendabizikoa eta hirugarrena barne igoera txandakoak izanen dira eta bigarrena txanda irekikoa.

Txanda ireki horretan betetzen ez diren lanpostuak barne igoerako txandari gehituko zaizkio.

39. artikulua. Inspektoreordearen enpleguan sartzea.

1. Deitutako lanpostu hutsen artean, inspektoreordearen enpleguak agente lehenaren enplegua dutenen barne-igoeraren bidez beteko dira, oposizio-lehiaketa eginez.

Oposizio-lehiaketa horretan parte hartzeko, agente lehenaren enpleguan gutxienez hiru urteko antzintasuna izatea eskatuko da, bai eta B mailan sartzeko eskatzen den titulazioa ere.

2. Aurreko apartatuan aipatzen diren deialdietan, kasuko poliziako kideentzako barne igoerarako txanda bat ezarriko da, eta beste txanda bat gainerako lanpostu hutsekin, Nafarroako Polizia guztietako kideentzat irekia, ezarritako betebeharrak betetzen badituzte.

Apartatu honen aplikazioaren ondorioetarako, hiru lanpostu hutsetik lehendabizikoa eta hirugarrena barne igoera txandakoak izanen dira eta bigarrena txanda irekikoa.

Txanda ireki horretan betetzen ez diren lanpostuak barne igoerako txandari gehituko zaizkio.

40. artikulua. Inspektorearen enpleguan sartzea.

Inspektore kategorian sartzeko prozedura eta modu hauek erabiliko dira:

a) Lanpostuetako bi heren barne igoeraren bidez, kategoria-igoerarako lehiaketaren prozedu-

ra erabiliz, Nafarroako Polizietako inspektoreordeen artean, baldin eta hiru urtetik gorako antzintasuna badute enplegu horretan eta B mailan sartzeko eskatzen den titulazioa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan xedatutakoarekin bat.

Kategoria-igoerarako lehiaketa prozedurek proba teoriko-praktiko baztertzaille bat izan behar dute, gutxienez, lortu nahi den enpleguaren edukiari eta eginkizunei buruzkoa. Era berean, proba psikotekniko ez baztertzailleak ere izan ditzakete, izangaiak lanpostuaren profil profesiografikoari zenbateraino egokitzen zaizkion neurtzeko.

b) Lanpostuen heren bat Nafarroako Polizietan sartzeko hautaprobak, foru lege honen 34. artikuluan aipatzen direnak, eginez beteko da, B mailan sartzeko eskatzen den titulazioa izan eta deialdian ezartzen diren gainerako baldintzak betetzen dituzten artean. Txanda horretan betetzen ez diren lanpostuak barne igoera bidez beteko dira.

41. artikulua. Komisario enpleguan sartzea.

1. Deitutako lanpostu hutsen artean, komisarioaren enpleguak inspektorearen enplegua dutenen barne igoera bidez beteko dira, oposizio-lehiaketaren prozedura erabiliz.

Oposizio-lehiaketa horretan parte hartzeko, gutxienez hiru urteko antzintasuna eskatuko da inspektorearen enpleguan, bai eta A mailan sartzeko eskatutako titulazioa ere.

2. Aurreko apartatuan aipatzen diren deialdietan, kasuko poliziako kideentzako barne igoerarako txanda bat ezarriko da, eta beste txanda bat gainerako lanpostu hutsekin, Nafarroako Polizia guztietako kideentzat irekia, ezarritako betebeharrak betetzen badituzte.

Apartatu honen aplikazioaren ondorioetarako, hiru lanpostu hutsetik lehendabizikoa eta hirugarrena barne igoera txandakoak izanen dira eta bigarrena txanda irekikoa.

Txanda ireki horretan betetzen ez diren lanpostuak barne igoerako txandari gehituko zaizkio.

42. artikulua. Komisario nagusiaren enpleguan sartzea.

1. Deitutako lanpostu hutsen artean, komisario nagusiaren enpleguak komisarioaren enplegua dutenen barne igoera bidez beteko dira, kategoria-igoerarako lehiaketaren prozedura erabiliz.

Kategoria-igoerarako lehiaketa prozedurek proba teoriko-praktiko baztertzaille bat izan behar dute, gutxienez, lortu nahi den enpleguaren edukiari eta eginkizunei buruzkoa. Era berean,

proba psikotekniko ez baztertzailak ere izan ditzakete, izangaiak lanpostuaren profil profesigrafiakoari zenbateraino egokitzen zaizkion neurtzeko.

Lehiaketa horretan parte hartzeko, eskatuko da gutxienez hiru urteko antzinatasuna izatea komisiarioaren enpleguan, bai eta A mailan sartzeko eskatutako titulazioa ere.

2. Aurreko apartatuan aipatzen diren deialdietan, kasuko poliziako kideentzako barne igoerarako txanda bat ezarriko da, eta beste txanda bat gainerako lanpostu hutsekin, Nafarroako Polizia guztietako kideentzat irekia, ezarritako betebeharrak betetzen badituzte.

Apartatu honen aplikazioaren ondorioetarako, hiru lanpostu hutsetik lehendabizikoa eta hirugarrena barne igoera txandakoak izanen dira eta bigarrena txanda irekikoa.

Txanda ireki horretan betetzen ez diren lanpostuak barne igoerako txandari gehituko zaizkio.

43. artikulua. Lanpostu hutsen esleipena.

1. Deialdi batean parte hartzen dutenei dagozkien lanpostuen esleipena interesdunen eskaeren arabera egingen da, hautaprobetan lortutako puntuazioaren ordenari jarraikiz eta plantilla organikoan lanpostu horiek betetzeko ezarritako baldintzak errespetatuz.

2. 40. artikulua kasuan, barne igoerako txandakoek lehentasuna izanen dute artikuluko horren b) apartatuan adierazitako txandakoen aurretik, eta, azken horien artean, Segurtasun Indar eta Kidegoetako kideek lehentasuna izanen dute gainerako izangaien aurretik.

44. artikulua. Enpleguetan sartzeko prozedura.

1. Enpleguetan sartzeko foru lege honetan aurreikusitako prozeduren lehiaketa fasean, gutxienez ere, honakoak baloratuko dira: Administrazio Publikoetan emaniko zerbitzuak, polizia-eginkizunarekin zerikusia duten prestakuntza-, irakaskuntza- eta ikerkuntza-jarduerak, hizkuntzak jakitea, eta betetako lanpostuen betetzearen gaineko ebaluazioa, baldin eta erregelamenduz horren balorazio objektiboa egiteko prozedura ezarri bada.

2. Oposizio-lehiaketetako prozeduren oposizio fasean, gutxienez ere, honakoak sartuko dira: proba praktikoa eta ezagutzei buruzko proba baztertzailak egitea, eskatutako maila akademikoaren araberrakoak eta lortu nahi den enpleguaren araberrakoak, eta plantilla organikoan lanpostuak duen hizkuntza eskakizuneko euskara mailari buruzko probak, titulazioaren egiaztagiririk aurkez-

tu ezean. Era berean, proba psikoteknikoak ez baztertzailak ere izanen dira, izangaiak lanpostuaren profil profesigrafiakoari zenbateraino egokitzen zaizkion neurtzeko.

3. Foru lege honetan aurreikusitako enpleguak eskuratzeko prozedura guztietan izanen da enplegurako gaikuntza-ikastaro bat gainditu beharra, Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolak emana.

4. Enplegu desberdinetarako sarrera-probak objektiboak eta teoriko-praktikoak izanen dira, eta izangaiak aurretik ezagutuko dituzte ebaluaziorako parametroak.

5. Aurreko apartatuetan jasotako xedapenak erregelamenduz garatuko dira Nafarroako Polizietan dauden enplegu bakoitzerako.

4. atala **Prestakuntza**

45. artikulua. Prestakuntza irizpideak.

1. Nafarroako Polizietako langileen prestakuntzak eta hobekuntzak Nafarroako Polizien prestakuntza planean ezarritako aurreikuspena beteko dute, eta 3. artikuluan adierazitako printzipioei egokituko zaizkie. Halaber, honako irizpideak bete beharko dituzte:

a) Profesionala eta etengabea izanen da.

b) Administrazio publikoen menpeko ikaste-txeetan egiten diren ikasketak Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak baliozkotzen ahalko ditu. Ministerioak, horretarako, kontuan hartuko ditu ikasketak horietako bakoitzean sartzeko eskatutako titulazioak eta ikasketen iraupena.

c) Aipatutako irakaskuntzak eta ikastaroak emateko, erakundearen arteko lankidetzaren sustatuko da unibertsitatearekin, botere judizialarekin, Ministerio Fiskalarekin eta pareko diren beste erakunde, zentro edo establezimendu batzuekin.

2. Nagusiki, Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolak eta aurreko apartatuko c) letran aipatzen den edozein zentrok edo establezimenduk egingen ditu langileen prestakuntza eta parte-hartzea Nafarroako Poliziak, Tokiko Polizia Zerbitzuetako kideak eta Tokiko Poliziaren laguntzaileak hartzeko hautapen prozesuetan.

3. Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskola-eginkizunetako bat eginkizun berberak edo antzekoak dituzten erakunde publikoek emandako ikastaro eta diplomak osorik edo partez baliozkotzea izanen da, baita eskolak berak lehenago emandakoak ere, betiere edukiak berdinak badira. Horrelakoetan, behar den puntuazioa esleituko

zaio tituluari. Halaber, artikuluko 1. apartatuko b) letran aipatzen diren baliozkotze- eskabideak bideratzeaz arduratuko da.

Era berean, Segurtasun eta Larrialdi Eskolak informazioa ematen ahal du, hautapen- eta kontratazio-organo publikoek hala eskatuta, Nafarroako Polizietan sartzeko edo gora egiteko prozeduratan izangai direnek aurkeztutako prestakuntza-ekintzen balorazioari eta baliokidetasunari buruz; horretarako, kontuan hartuko ditu prestakuntza-ekintzen eduki-baliokidetzaren, horietan lortutako puntuazioa, ekintza horien iraupena eta modalitatea, bai eta ikasgaien gaurkotasuna ere.

46. artikulua. Prestakuntzaren izaera.

1. Poliziaren eginkizunaren berezitasuna kontuan hartuta, Nafarroako Polizietako langileen prestakuntzan sartzeko ahalko da espezializazio eta trebakuntza ikastaroak, baliozkotzeko proba fisikoak eta aldizkako birziklatze ikastaroak nahitaez egin behar izatea.

2. Ikastaro eta proba motak, haien ondorioak eta Nafarroako Polizietako zenbait unitaterekin duten lotura erregelamenduz ezarriko dira.

Ilido horretan, espezializazio eta trebakuntza ikastaroak, baliozkotzeko proba fisikoak eta aldizkako birziklatze ikastaroak nahitaez eskatzeak zenbait ikastaro edo proba xede duten unitateetan sartu edo gelditzeko betebeharrak gisa hartzea ekar dezake.

Inguruabar horiek kasuan kasuko plantilla organikoan adierazi beharko dira.

3. Nafarroako Administrazio Publikoek behar diren neurriak hartuko dituzte Nafarroako Polizietako langileek, destinoa eremu euskaldunetan edo eremu mistoan izan dutenek, euskarazko hizkuntza prestakuntza izan dezaten sustatzeko, Administrazio Publikoan euskararen erabilera arautzen duen legerian ezarritakoarekin bat.

5. atala **Lanpostuak betetzea**

47. artikulua. Betetzeko sistemak.

Nafarroako Polizien barruan, lanpostuak betetzeko, merezimendu, gaitasun, antzintasun eta berdintasun printzipioak hartuko dira kontuan.

Honakoak izanen dira sartzeko modalitateak: lehiaketa, zeina sistema arrunta baita, berriazko lehiaketa eta izendapen askea.

48. artikulua. Lehiaketa berriazkoa.

Berriazko lehiaketa erabiltzen ahalko da berezitasunen bat edo profil jakinen bat eskatzen duten lanpostuak betetzeko.

Berriazko lehiaketa bidez bete beharreko lanpostuak zein diren erregelamenduz ezarriko da, eta inguruabar horrek kasuko plantilla organikoan jasota egon beharko du.

Sistema horren bitartez sartzeko ezartzen diren hautaprobek objektiboak izan beharko dute, eta izangaiak aurretik ezagutu beharko dituzte ebaluaziorako parametroak.

49. artikulua. Izendapen librea.

1. Unitate organikoko burutza dakarten lanpostuak betetzeko izendapen librea erabiltzen ahalko da, bai eta lanpostuen eginkizunak, konfiantza edo ardura berezia direla-eta sistema hori erabiltzea komeni denean ere.

Izendapen libreaz bete beharreko lanpostuak zein diren erregelamenduz ezarriko da, eta inguruabar horrek kasuko plantilla organikoan jasota egon beharko du.

Izendapen librearen sistema bidez betetzeko erreserbatutako lanpostuen kopurua ez da plantilla osoko 100eko 8tik gorakoa izanen.

2. Lanpostua izendapen librearen sistemaren bitartez betetzen ari den langilea izendatu zuen organoak libreki kentzen ahalko du lanpostu horretatik. Hala gertatuz gero, utzi eginen dio lanpostu horri dagozkion osagarriak jasotzeko, eta, berehala, erregelamenduz ezartzen den lanpostura itzuli beharko du.

6. atala **Lanbide sustapena**

50. artikulua. Langileen igoera.

1. Nafarroako Polizietako langileen igoerarako bi bide daude: enplegu igoera, foru lege honetan ezartzen diren prozeduren bitartez, edo gradu igoera, Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langileen Estatutuan izaera orokorraz ezarritakoa.

2. Nafarroako Polizietako langileek Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioentzako igoera txandako prozeduratan parte hartzen ahalko dute, baina Nafarroako Polizietako langile gisa egiazki zortzi urte eman badituzte zerbitzuan.

3. Nafarroako Polizietako langileek kide diren administrazioetako merezimendu eta lekualdatze lehiaketetan parte hartzen ahalko dute, betiere Nafarroako Polizietan zerbitzuan zortzi urte eman badituzte.

7. atala Funtzionarioen mugikortasuna

51. artikulua. Enplegu trukea.

1. Nafarroako Tokiko Polizietako langileek erabakitzen ahalko dute enpleguak trukatzea, betiere baldintza hauek betetzen badira:

a) Interesa dutenak jardunean egotea eta maila eta enplegu berekoak izatea.

b) Gutxienez bost urte jarraian jardun izana zerbitzuan, trukea zein lanpostutatik eskatzen duten, lanpostu horretan.

c) Eskatzaile guztiak berrogeita hamar urtetik beherakoak izatea.

d) Eskatzaileetako bat ere diziplina espediente baten tramitazioan sartuta ez egotea.

Trukea ukitutako toki entitateetako organo eskudunek baimendu beharko dute, kasuan kasuko buruzak txostena eman ondoren. Eskatzaileek ezin izanen dute truke berririk eskatu truketik gutxienez bost urte iragan arte. Destinoa trukatzeko duten langileek egiaz betetzen duten lanpostuetako lansariak jasoko dituzte.

Orobat erabaki ahalko da Nafarroako tokiko polizietako langileen eta Estatuko gainerako tokiko polizietako langileen arteko permuta egitea, Estatuko oinarrizko legeriak ezarritako baldintzetan.

2. Tokiko Polizia Zerbitzuetako langileek, foru lege honen 25. artikuluan aipatzen direnek, erabaki dezakete, halaber, beraien enpleguak trukatzea, artikuluan honen aurreko apartatuan adierazitako baldintza berdinetan eta eskakizun berdinekin.

3. Administrazio publikoek hitzarmenak egin ahalko dituzte Nafarroako polizietako funtzionarioen, Foruzaingoa barne, eta beste administrazio autonomiko eta toki administrazio batzuetako polizia-funtzionarioen arteko permutak egin ahal izateko.

52. artikulua. Unitateen arteko mugikortasuna.

Antolaketa beharrek justifikatzen dutelarik, Nafarroako Polizietako langileak unitate desberdinetara atxikitzen ahalko dira, espezialitate beraren barruan.

atxikipen aldaketa hori borondatezkoa izanen da, behin betiko izaera izanen du eta ez du inola ere desberdintasunik ekarriko soldata osagarri dagokienez destino berriaren eta aurrekoaren artean, ez eta herria aldatzea edo eskalafoi galarik ere.

II. KAPITULUA Eskubideak eta betebeharrak

53. artikulua. Araubide orokorra eta berezitasunak

Nafarroako Polizietako langileen eskubideak eta betebeharrak hauek dira:

a) Zin egitea edo hitz ematea Konstituzioari, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoari eta legeri men eginen diela.

b) Foru lege honen 3. artikuluan ezarritako jarduketaren printzipioen ondoriozko beharkizunak betezea.

c) Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzko mar-txoaren 13ko 2/1986 Lege Organikoaren 6. artiku-luan aitortutako eskubideak izatea.

d) Beren interesak defendatze aldera, sindika-tuetan afiliatzeko eskubidea eta, orobat, sindika-tuetatik atera eta beste erakunde batzuk sor-tzekoa, betiere askatasun sindikalari buruzko legeetan ezarritako baldintzak betez gero.

e) Grebarako eskubidea segurtasun indar eta kidegoetako kideentzat eskubide horren gainean estatuan ezarrita dauden xedapenen arabera gau-zatuko da.

f) Ordainsari ekitatiboa jasotzeko eskubidea; hartan, honakoak hartuko dira kontuan: prestakun-tza-maila, bateraezintasunen araubidea, zerbitzu-arrazoiengatik mugikortasuna, zereginek dakar-tzaten dedikazioa eta arriskua, lan-ordutegi berariazkoak eta egitura berezia. Ordainsarien kontzeptuak eta zenbatekoak titulu honen III. kapi-tuluan xedatutakoarekin bat etorriko dira.

g) Beren eginkizunetan egindakoengatik eran-tzukizuna eskatzen zaien auzi guztietan, atxikita duen administrazio publikoko profesionalek lagun-tza emateko, ordezkatzeko eta aldezteko eskubi-dea, administrazioaren kontura, baldin eta, hasie-ra batean, foru lege honetako 3. artikuluan jasotzen diren jarduketaren printzipioen arabera-koak direla uste bada.

Eskubide hori langileen edo haien ahaideen interes legitimoen defentsa juridikora hedatuko da, delituren batean langilearen heriotza gertatzen bada, baldin eta polizia izatearen ondorioz izan bada biktima.

Salbuespeneko kasuetan, kasuko administra-zio publikoak ezin baldin badu zerbitzua bere bitartekoekin eman, baimena ematen ahalko da administrazio horretaz kanpoko bitartekoez baliat-zeko, betiere haren kargura.

h) Polizia izatearekin lotutako kalte pertsonal edo materialak jasanez gero, erregelamenduz ezarriko den kalte-ordainen sistemaren onuradun izateko eskubidea izanen dute, kalte horiek polizia izatearekin lotuta badaude.

Era berean, ukigabetasunaren printzipioa dela eta, kasuko Administrazio Publikoak ebazpen judicial batean ezartzen diren kalte-ordainak ordaindu beharko dizkie Nafarroako Polizietako langileei, bere ardurapean dituenei, ebazpen horrek zigortutakoa kaudimengabe deklaratu baldin bada.

i) Bi urtetik behin osasun azterketa egiteko eskubidea izanen dute, bai eta agintzen zaizkien beste guztiak egiteko ere, egoera dela-eta komeni denean.

j) Eskubidea izanen dute haiek hautatutako legelari batek lagun diezaien, haien kargura betiere, haiek ukitzen dituzten diziplina-espediente edo aurretiazko informazio guztiak garatzen direnean.

k) Eskubidea izanen du gutxienez ere urtean prestakuntza-ekintza bat jasotzeko, 12 orduko gutxienezko iraupenekoa, eta prestakuntza-ekintza praktikoa bat jasotzeko destinoz aldatzen den bakoitzean.

54. artikulua. Lanaldia eta ordutegiak.

1. Nafarroako Foruzaingoko langileen urteko lanaldiak 1.592 benetako lanordu izanen ditu.

2. Aurreko apartatuan finkatutako urteko lanorduen kopuruaren gainean behar den konpentsazioa aplikatu ondoren, ondoren aipatzen diren txandetako araubideetako batean lan egiten duten Nafarroako Foruzaingoko langileek lanpostuan benetan egon beharreko lanaldi hau izanen dute:

a) Goizeko, arratsaldeko eta gaueko txanda: 1.457 ordu urtean.

b) Gauetako txanda finkoa: 1.535 ordu urtean.

c) Goiz eta arratsaldeetako txanda, igande eta jaiegunetan lan eginda: 1.554 ordu urtean.

d) Lanaldi zatitua, igande eta jaiegunetan lan eginda: 1.569 ordu urtean.

3. Erregelamendu bidez ezarriko dira ordu araubide berariazkoak unitate operatiboetan, haien lana dela-eta beharrezkoa denean, malgutasun eta disponibilitate beharrak kontuan hartuta.

4. Kasu berezietan, eta behar bezala arrazoituta dagoen bitartean, lan-egutegiak eta zerbitzu taulak aldatu ahalko dira, larrialdiko beharrezane, segurtasun publikokoei edo prestakuntzakoei jarraituz. Aldaketa horrek arrazoitua izan beharko du, eta idatziz helaraziko zaie interesdunei.

Nolanahi ere, % 5ean finkatzen da lan-egutegia eta koadranteak aldatu ahalko diren urteko lanaldi planifikatuaren gehieneko muga, unitate operatibo desberdinetako arduradunek segurtasun publikoko beharrak alegatuta.

5. Nafarroako Foruzaingoko langileen opor, lizentzia eta baimen araubidea Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko gainerako langileena izanen da.

55. artikulua. Bizilekua.

Nafarroako Polizietako langilea destinoko herria ez den beste batean biziak ez du langilea salbuesten lan lekura garaiz iristetik eta lanaldia nahiz karguari dagozkion eginkizunak zorrotz betetzetik, eta ez du ekarriko inolako ordainik ematea lan lekurako joan-etorriengatik.

56. artikulua. Agintaritzaren agenteak.

1. Beren eginkizunetan dihardutela, Nafarroako polizietako langileak, legezko ondorio guztietarako, agintaritzaren agentetzat joko dira.

2. Atentatu delitu bat gertatzen denean, su-armak, lehergailuak edo erasorako arrisku bereko beste baliabide batzuk erabiliz, horrek Nafarroako Polizietako langileen integritate fisikoa arrisku larrian jar dezakeenean, langileak agintaritzat joko dira zigor arloko ondorioetarako.

III. KAPITULUA **Ordainsariak**

57. artikulua. Ordainsarien kontzeptuak.

1. Nafarroako Polizietako langileek ondoko kontzeptu hauei dagozkien ordainsariak jasoko dituzte, ez besterik:

A. Norberaren oinarrizko ordainsariak:

a) Mailari dagokion hasierako soldata.

b) Graduari dagokion ordainsaria.

c) Antzinatea saria.

Norberaren oinarrizko ordainsariak eskuratutako eskubidea dira, funtzionario izaerari daxtekiona.

B. Ordainsari osagarriak:

a) Berariazko osagarria.

b) Lanpostuaren osagarria.

c) Prestasun bereziko osagarria.

d) Burutzaren osagarria.

Ordainsari osagarri horiek esleituak dituen lanpostuan jarduteari dagozkio eta, beraz, lanpostua utzi orduko ez dira gehiago jasoko.

C. Bestelako ordainsariak:

a) Zerbitzuagatik egiten diren gastuen kalte-ordaina.

b) Egindako bidaien kalte-ordaina.

c) Zerbitzurako jantziak erosteagatik ematen den kalte-ordaina, erregelamenduz ezartzen diren kopuruen arabera.

d) Bizilekua aldatzea dakarren nahitaezko lekualdatzeagatik ematen den kalte-ordaina.

e) Familia laguntza.

f) Aldi baterako osagarri pertsonala bigarren jarduerako egoera administratiboagatik.

g) Konpentsazioa aparteko orduengatik, gauez nahiz jaiegunez, lanpostuan egin beharreko guardiengatik eta guardia lokalizatuengatik, hautapen epaimahaietan parte hartzeagatik, prestakuntza ikastaroak irakasteagatik eta herrietako festak direla eta ekintza berezietan parte hartzeagatik.

2. Norberaren oinarrizko ordainsariak Nafarroako Administrazio Publikoen gainerako funtzionarioei oro har aplikatzekoak zaizkien arauak zuzenduko dituzte, foru lege honetan ezartzen diren berezitasunak kontuan hartuta.

Gainerako ordainsariak foru lege honen hurrengo artikuluetan jasotako xedapenek zuzenduko dituzte, eta berariaz aurreikusirik ez dagoen guztian, Nafarroako Administrazio Publikoen gainerako funtzionarioei oro har aplikatzekoak zaizkien arauak.

3. Nafarroako Polizietako langileek egiaz ordaindutako orduengatik dagozkien ordainsariak baizik ez dituzte jasoko.

Gaueko eta jaiegunetako lan ordu eta aparteko lan ordu bakoitzari dagozkion ordainsariak erregelamenduz ezarriko dira.

4. Langileen kontrol eta kudeaketa neurriak ezarriko dira, Nafarroako Polizietako langileek betetzen dituzten aparteko orduen kopurua ez dadin izan erregelamenduz ezarritako gehienekotik gorakoa.

Ildo horretan, lan egutegiak zuzenketa neurri egokiak aurreikusi beharko dituzte, antolaketa unitate desberdinetan lanaldien pilaketak eta langile falta saihesteko.

Antolaketa unitate desberdinetako arduradunei dagozkie neurri horiek gainbegiratzea eta mantentzea.

58. artikulua. Berariazko osagarria.

Berariazko osagarria Nafarroako Polizietako langile guztiei ordainduko zaie, eta haren zenbatekoa mailari dagokion hasierako soldataren % 45ekoa izanen da.

Berariazko osagarriak eginkizun polizialari datzekion berezitasun guztiak saritzen ditu, besteak beste, bateraezintasun poliziala, arriskua, dedikazioa, betebeharrak eta erantzukizunak.

Ondorio horietarako, bateraezintasun poliziala irabazi-asmoa duen jarduera oro egiteko debekua da, sektore publikoan nahiz pribatuan, salbu eta honakoak: unibertsitateko irakaskuntza; norberaren eta familiaren ondarea administratzea; literatura, arte, zientzia eta teknika produkzioa eta sorkuntza, betiere ez bada lan harreman edo zerbitzu prestazio baten ondorioa; edozein hedabidetako solasaldi eta saioretan noizean behin parte hartzea; ikastaro profesionaletan lagundu eta parte hartzea, noizean behinkakoa, eta, oro har, betekizun polizialak oztopatzen, ukitzen edo kaltetzen duten jarduera guztiak, betiere Barneko zuzendari nagusiak edo kasu bakoitzean eskumena duen organoak baimena eman ondoren.

59. artikulua. Lanpostuko osagarria.

Nafarroako Polizietako langileek lanpostuko osagarria jaso dezakete lanpostu bakoitzari dagozkion ezaugarriak saritzeko, hauek alegia: eskatutako prestakuntza tekniko eta fisiko berezia, zailtasun maila, lanpostuari dagozkion ordutegien araubidea, nekagarritasuna, txandakako lana, arrisku berezia, dedikazio berezia eta erantzukizun berezia.

Osagarri horren zenbatekoa ez da izanen mailari dagokion hasierako soldataren % 75etik gorakoa, eta erregelamenduz ezarriko da, lanpostu desberdinen balorazioa eta azterketa egin ondoren.

60. artikulua. Prestasun bereziko osagarria.

Prestasun bereziko osagarria jasoko duten enplegu edo lanpostuak dira haien eginkizunengatik prestasun eta lokalizazio etengabea edo lanarekin bitarteko telematikoen bidez etengabe harremanetan egotea eskatzen dutenak.

Osagarri horren zenbatekoa ez da mailaren hasierako soldataren % 30etik gorakoa izanen, eta erregelamenduz ezarriko da.

Osagarri hori jasotzen dutenek erabateko pres-tasunez eta dedikazio erabateko eta osoz emanen dituzte beren zerbitzuak, eta ezin izanen dira irabazi-asmoko beste inolako jardueratan aritu, ez sektore publikoan ez pribatuan, salbu eta unibersitateko irakaskuntzan, irakaskuntza zentroetako noizbehinkako irakaskuntzan eta norberaren eta familiaren ondarearen administrazioan.

Prestasun bereziko osagarria jasotzea eta aparteko orduak sortzea bateraezinak dira.

61. artikulua. Burutzako osagarria.

Burutzako osagarria jasoko duten lanpostuak enplegu barruan aginte egoera berezia dutenak izanen dira, halaxe jasota baldin badago dagokion plantilla organikoan.

Osagarri horren zenbatekoa ez da mailaren hasierako soldataren 100eko 10etik beherakoa izanen ez eta 100eko 20tik gorakoa ere, eta erregelamenduz ezarriko da.

62. artikulua. Behin-behineko izendapenak.

Enplegu edo kategoria batean behar adina funtzionario ez dagoenean eta zerbitzuaren beharrak direla-eta halakoak behar direnean, organo eskudunak alde zuzenetik izendatuta eta lanpostua erreserbatuta, Nafarroako Foruzaingoko funtzionarioek behin-behineko goragoko hurrengo mailako enplegu bat bete ahal izanen dute, baldin eta lanpostu hutsik badago eta kasuko igoera-prozeduran onartua izateko ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Salbuespen kasuetan, eta baldintza horiek betetzen dituen inongo funtzionariorik ez dagoenean, antzintasunari dagozkion baldintzak salbuespen ahalko dira, edo titulazioari dagozkionak, edo biak, aurreko paragrafoan aipatzen den izendapenaren ondorioetarako.”

63. artikulua. Ordainsari-eskalak.

1. Nafarroako Polizietako langileen ordainsariak oro har ezartzeko, proportzionaltasun eta hierarkia printzipioak izanen dira abiapuntua, eta enplegu eta espezialitate desberdinak kontuan hartuko dira.

2. Erregelamenduz ezarriko dira behar diren zuzenketa neurriak, Nafarroako Polizietako langileek jasotzen dituzten ordainsariak artikuluko honen aurreko apartatuan aipatutako eskala desberdinen arteko proportzionaltasuna izan dezaten, oinarriko ordainsariak –antzintasuna eta gradua kenduta–, ordainsari osagarriak eta foru lege honen 57.1 artikuluko C apartatuko g) letran jasotako ordainsari aldakorrak barne hartuta.

3. Artikulu honetan xedatutakoak ez du galaraziko oinarriko soldata izatea foru lege honen 31. artikuluan aipatzen diren funtzionario mailletako bakoitzari dagokiona.

64. artikulua. Aldi baterako osagarri pertsonala bigarren jarduerako egoera administratiboagatik.

Aldi baterako osagarri pertsonala, bigarren jarduerako egoera administratiboagatik, foru lege honen 69.5 artikuluan aurreikusitako kasuan aplikatuko da, erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan eta prozedura erabiliz; nolana den ere, ponderazio egokia aurreikusi beharko du, ukitutako langileek jatorrizko unitatean egin duten denbora kontuan hartuta.

65. artikulua. Erregelamendu-garapena.

Erregelamenduz egingen dira aurreko artikuluetan aipatzen diren ordainsari osagarrien garapena eta atxikipena Nafarroako Foruzaingoa osatzen duten enplegu eta unitate desberdinei.

IV. KAPITULUA

Ordezkaritza, negoziazio kolektiboa eta parte-hartzea lan baldintzak ezartzean

66. artikulua. Aplikatzekoa den araubidea.

1. Nafarroako Polizietako langileen lan baldintzak ezartzeko ordezkaritzari, negoziazio kolektiboari eta parte hartzeari dagokienez, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan ezarritako dagoenari segituko zaio.

2. Nafarroako Foruzaingoa negoziatorako mahai sektorial bat eratuko da, zeinak jardunen baitu Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan negoziazio mahaitarako ezarritakoaren arabera.

V. KAPITULUA

Eskubide pasiboak

67. artikulua. Eskubide pasiboak.

Nafarroako Polizietako langileen eskubide pasiboak Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko gainerako funtzionarioentzat oro har ezarritako arauetara lotuko zaizkie.

VI. KAPITULUA

Egoera administratiboak

68. artikulua. Egoera administratiboak.

Nafarroako Polizietako langileen egoera administratiboak eta egoera horien ondorioak Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan ezarritakoari jarraituz arautuko dira, foru lege honetan ezartzen dena galarazi gabe.

69. artikulua. Bigarren jarduerako egoera administratiboa.

1. Bigarren jarduerako egoera administratiboaren helburua hau da: Nafarroako Polizietako jarduneko langileen zerbitzua eraginkorra dela bermatzea, eta lanbide karrera denboraren joanean edo gaitasun fisiko edo psikikoak gerora gutxitzean gertatzen diren aldaketetara egokitzeko modua ematea.

2. Erregelamenduz ezarriko den adinera iristegatik –inolaz ere ez 55 uretik beherako adinera–, edo, lan istripuaren edo lanbide eritasunaren ondorioz baldintza fisikoak edo psikikoak gutxitzeagatik, Nafarroako Polizietako langileak bigarren jarduerako egoera administratibora pasa daitezke erretirorako adinera iritsi aurretik, eta destino hau jaso dezakete:

a) Bere poliziaren barruan.

b) Nafarroako beste polizia batzuetan, betiere bi administrazio publikoek bidezko lankidetzat hartzen sinatua badute.

3. Bigarren jarduerako egoera administratibora pasatu aurretik, interesdunak berak eskatu egin beharko du, adinagatik denean, edo ofizioz, lan istripuaren edo lanbide eritasunaren ondorioz baldintza fisikoak edo psikikoak gutxitzeagatik denean.

Zerbitzua ohi bezala egitea galarazten duen baldintza fisiko edo psikikoak gutxitu izana Nafarroako Ezintasunak Baloratzeko Epaimahai Medikoak erabakiko du, ofizioz edo alderdi batek eskatuta; dagokion irizpen medikoa eman, eta organo eskudunari igorriko dio.

4. Nafarroako Polizietako plantilla organikoetan adierazi beharko dira bigarren jarduerako egoera administratiboan betetzen ahal diren lanpostuak, eskatzen duten ahalegin fisiko, arrisku edo zailtasun txikiagoan oinarriturik.

5. Bigarren jarduerako egoera administratiboan dauden Nafarroako Polizietako langileek beren kategoriari dagozkion oinarritzko ordainsariak eta aitorturik dituzten ordainsari pertsonalak jasoko dituzte, bai eta egiazki betetzen duten lanpostuak dituen osagarriak ere.

Bigarren jarduerako egoera administratibora pasatzea ofizioz egiten bada, Administrazioak atzematen duelako lan istripu edo lanbide eritasun baten ondorioz langilearen baldintza fisikoak edo psikikoak nabarmen gutxitu direla, eta lanpostu berriko oinarritzko ordainsariak eta osagarriak aurreko lanpostukoak baino txikiagoak badira, ukitutako langileek eskubidea izanen dute osagarri pertsonal iragankor bat jasotzeko, bi ordainsarien

arteko aldea adinakoa, aldizkakoak ez diren ordainsariak barne, foru lege honen 64. artikulua ezartzen dituen baldintzetan.

6. Bigarren jarduerako egoera administratiboan emandako denbora antzinatasunaren eta eskubide pasiboen ondorioetarako konputatuko da, egoera horretara joan aurretik zuen lanpostuan emana balitz bezala.

7. Bigarren jarduerako egoera administratiboan dauden Nafarroako Polizietako langileek ezin izanen dute parte hartu igoerarako edo lanpostuak betetzeko prozeduretan, non eskuratu nahi den lanpostu berria ere ez den bigarren jarduerako egoera administratiboan betetzeko modukoa.

8. Erregelamenduz finkatuko da bigarren jarduerako egoera administratiboan zerbitzuak noiz eta nola eman behar diren, bai eta egoera administratibo horretara igarotzea ekar dezaketen ezgaitasun medikoen maila ere.

VII. KAPITULUA

Esker onak, ohoreak eta sariak

70. artikulua. Esker onak, ohoreak eta sariak.

Nafarroako Polizietako langileentzako esker onak, ohoreak eta sariak erregelamenduz ezarriko dira. Edozein kasutan ere, kasu desberdinak aurreikusiko dituzte, eta, gutxienez, lau multzo hauek:

a) Zerbitzu egintzak, eredugarriak diren edo arrisku handia duten jarduerekin, ezgaitasuna dakarten lesioekin edo heriotzarekin.

b) Pairamena eragiten duten jarduerak, aparte-koak eta balio handikoak; ebaketak edo zauri larriak, erabateko ezgaitasuna ekartzen ez dutenak.

c) Garrantzi bereziko zerbitzuak, dedikazio berezikoak edo premia duten pertsonen onura egitekoak, lanbidearen ezagutzarako lagungarri diren lan zientifikoak edo argitalpen teknikoak.

d) Antzinatasuna eta ibilbide profesionala.

VIII. KAPITULUA

Diziplina araubidea

1. atala

Printzipio nagusiak

71. artikulua. Legezketasuna eta erantzukizuna.

1. Foru lege honetan ezarritako diziplina araubidea Nafarroako Polizietako langileei aplikatuko zaie.

2. Falta egitera bultzatzen dutenek, hura estaltzen dutenek eta falta onartzen duten nagusi hierarkikoek egileen erantzukizun berbera izanzen dute.

Falta astuna edo oso astuna dakarren egintza baten berri izanda, hierarkian gora dagoen nagusi eskudunari hori lehenbailehen ez jakinaraztea estalketatzat hartuko da.

3. Diziiplina erantzukizunak ez du galarazten langileek izan dezaketen erantzukizun zibil edo penala.

Egitate berengatik zigor zehapena eta zehapen administratiboa ezartzen ahalko dira soilik funts juridikoak eta babestutako ondasun juridikoak identitate bera ez dutenean.

72. artikulua. Erantzukizunaren iraungipena.

Diziiplina erantzukizuna iraungitzen da zehapena betetzeagatik, heriotzagatik eta falta edo zehapena preskribatzeagatik.

2. atala Diziplinako faltak

73. artikulua. Sailkapena eta preskripzioa.

Diziiplina faltak astunak, oso astunak edo arinak izan daitezke. Falta oso astunengatik jarritako zehapenak hiru urtera preskribatuko dira, astunengatik jarritakoak urtebetera eta arinengatik jarritakoak hiru hilabetera.

Falten preskripzio epea falta egin den unetik hasiko da kontatzen. Diziiplina prozeduraren hasierak eten eginen du preskripzio epea.

74. artikulua. Hutsegite oso larriak.

Falta oso astunak dira:

1. Gehienez ere bost aldiz hilabeteko epean, lanera ez joatea edo lanaldia ez betetzea, justifikatutako arrazoirik gabe.

2. Dolozko delitua den edozein jokabide izatea, Zigor Kodean halakotzat kalifikatua, askatasuna kentzeko zigorra baldin badakar.

3. Kargua dela-eta ezagutzen dituen aferetan, sekretu profesionala eta behar bezalako isilpea urratzea, poliziaren eginkizunei edo edonori kalte larria eragiten zaienean.

4. Entitateen edo partikularren eskupekoak eskatu edo onartzea, emaniko zerbitzuengatik edo horiek eskertzeko.

5. Agintarien edo langilearen nagusi diren agintedunen kontrako ez obeditze agerikoa, banaka-

koa nahiz kolektiboa, haiek emandako lege jarraibideak ez betetzeagatik.

6. Eginkizunetan ari dela, Nafarroako Foru Eraentzari begirunea izateko eta Konstituzioari eta legeei men egiteko betebeharrak ez betetzea.

7. Grebetan, haien ordezeko ekintzetan edo hitzarturiko ekintzetan parte hartzea, zerbitzuen funtzionamendu normala galarazteko helburuarekin.

8. Neutraltasun edo independentzia politikoa urratzea, esleituriko ahalmenak edonolako edo edonongo hauteskundeetan eragiteko erabiliz.

9. Herritarrei, menpekoei edo Administrazioari kalte larria eragiten dien agintekeria, bai eta zaintzapean dituen pertsonak gizalegez ez tratatzea, mesprextatuz, diskriminatuz edo laidotuz.

10. Arauzko armak zerbitzutik kanpo edo haiek erabiltzeari buruzko arauak hautsiz erakutsi edo erabiltzea, horren ondorioz gauzei edo pertsoneri kalte egiten bazaie edo alarma publikoa gertatu bada.

11. Sekretu ofizialak argitaratzea edo modu desegokian erabiltzea, sekretutzat jo badira alor horretako berariazko legeriari jarraikiz.

12. Arraza edo jatorri etnikoa, erlijioa edo sinesmenak, ezgaitasuna, adina edo sexu-joera, sexua, hizkuntza, iritzia, jatorria, bizilekua edo bere egoera edo inguruabar pertsonal edo sozial dela-eta inolako bazterkeria egitea ekarri ahal duten jarduketak.

13. Sexu-jazarpenera eta lan-jazarpenera. Azken hau da behin eta berriro jazarpen psikologikoko edo etsaigoko ekintzak egitea zerbitzu-harreman baten esparruan.

14. Askatasun publikoak eta eskubide sindikalak erabiltzeko oztopo larriak jartzea.

15. Segurtasun indar eta kidegoek toki publikoetan bideokamerak erabiltzeari buruzko legerian arau-hauste oso larritzat jotzen diren urraketak.

16. Edozein eginbehar profesional ez betetzea, zerbitzu publikoen funtzionamendu egokia nabarmen eragotziz gero edo Administrazioari edo herritarrei kalte larriak eraginez gero edo pertsona edo ondasunentzat edo segurtasun publikoarentzat arrisku nabarmena sorraraziz gero.

17. Falta oso astun bat egitean estaltzea.

18. Hiru falta astunetan berrerortzea.

19. Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan oso astuntzat jotzen den beste edozein jokabide.

75. artikulua. Falta astunak.

Falta astunak dira:

1. Gehienez ere bost aldiz, hilabeteko epean, lanera ez joatea edo lanaldia ez betetzea, justifikatutako arrazoirik gabe.

2. Hilabete berean hamabi aldiz berandu iristea lanera, justifikatutako arrazoirik gabe.

3. Herritar, agintari, nagusi, lankide edo menpekoekiko begirune falta larria, eginkizunak betetzean.

4. Lokalen, materialaren edo zerbitzuarekin lotutako gainerako elementuen kontserbazioan kalte larriak eragitea, aitzakiarik gabeko zabarkeriaren ondorioz, edo haiek desagertzeko, galtzeko edo lapurtzeko bidea ematea.

5. Polizia eginkizunek berezkoak dituzten baliabideak zerbitzuarekin zerikusirik ez duten erabileretarako baliatzea edota baliatzeko baime-na ematea, horretarako justifikatutako arrazoirik gabe.

6. Langileen eskura lanpostuan jarritako baliabide informatikoak modu desegokian erabiltzea, Administrazioari edo zerbitzuari kalte nabarmena eraginez.

7. Zerbitzuaren berezko arloetan hierarkiako nagusiek idatziz edo ahoz emandako aginduak ez betetzea, ordenamendu juridikoaren arau-hauste nabarmena ez badira.

8. Lanerako aldi baterako ezgaitasun egoeren itxurak egitea, izan ditzakeen gainerako erantzukizun penal edo administratiboak ukatu gabe.

9. Nahitaezkoak diren osasun azterketak ez egitea justifikatutako arrazoirik gabe.

10. Legeek ezarritako abstentzio-arrazoiaren bat gertatzen denean, prozedura administratiboren batean esku hartzea.

11. Lanean dihardutela iskanbilak sortu edo horrelakoetan parte hartzea.

12. Beren kargua dela-eta ezagutzen dituzten gaietan lanbideko sekretuaren betebeharra ez betetzea edo informazioa isilpean ez edukitzea, bere polizia lanari edo hirugarrenei kalterik eragiten ez zaienean.

13. Beren eskudantziez gehiegikeriaz baliatzea, herritarren kaltetan, falta astunagotzat hartzen ez bada.

14. Zerbitzuari buruz txosten edo erabaki gezurrezko edo alderdikoiak egin edo hartzea, falta astunagotzat hartzen ez bada.

15. Nagusiei ez jakinaraztea beren eginkizunekin lotuta dagoen eta haiek jakin beharko luketen edo lehenbailehen erabaki beharko luketen edozein kontu.

16. Arauzko armak erakutsi edo erabiltzea haiek zerbitzuko jardunean edo zerbitzutik kanpo erabiltzeko arauak hautsiz, gauzei edo pertsoneri kalte egin gabe.

17. Dolozko delitu batengatik epai irmo bidez zigorra jaso izana, falta oso astuna ez denean.

18. Bakarka nahiz taldeka obediencia ukatzeko egintzak prestatzea.

19. Mozkortzea edota droga toxikoak, estupefazianteak edo substantzia psikotropikoak kontsumitzea zerbitzuan ari dela, edo zerbitzua betetzea mozkortuta edo nabarmenki aipatu substantzien eraginpean; halaber, egoera fisiko edo psikiko ez-ohikoan egonik, uko egitea bidezkoak diren egiaztapen teknikoak egiteari.

20. Esleitutako zerbitzuan ez egotea edo bertatik joatea justifikatutako arrazoirik gabe, nagusiari absentzia hori jakinaraztea eragozten duen ezinbesteko arrazoirik ez dagoenean.

21. Bateraiezintasunen gaineko araubidearen ez-betetzea.

22. Arauzko arma desagertzea, galtzea edo lapurtua izatea, aitzakiarik gabeko zabarkeriaren ondorioz.

23. Menpekoei galaraztea, mugatzea edo oztopatzea aitortuta dituzten eskubideez baliatzea, falta oso astuntzat ez bada jotzen.

24. Gertaera edo inguruabar larrietan lehenbailehen laguntzarik ez ematea, horretara beharturik egonez gero, eta delitutzat ez bada jotzen.

25. Polizia eginkizunetik heldu diren betebeharrak edo eginbeharrak ez betetzea zabarkeria larriaren ondorioz, halakoak modu larri eta agerikoan gertatzen direnean eta zerbitzuen funtzionamendu eraginkorra nahasten dutenean edo Administrazioari nahiz herritarrei kalteak eragiten dizkietenean.

26. Segurtasun kidego eta indarretako beste kide batzuekiko lankidetzat falta agerikoa.

27. Zerbitzuko eginkizunetan edo nahitaezkoa denean arauzko uniformeak, kategoria edo karguaren bereizgarriak, arauzko arma edo zehazten diren babes- edo ekintza-baliabideak ez eramatea, horretarako baimenik ez bada eman edo justifikatutako arrazoirik gabe.

28. Uniformez jantzita joatea edozein manifestazio edo bilkura publikotara, non eta ez den zerbi-

tzuko eginkizuna edo uniformeaz joatea egokitzen joaten den edo baimenduta dagoen ekitaldi ofiziala.

29. Segurtasun indar eta kidegoek toki publikoetan bideokamerak erabiltzeari buruzko legerian ezarritakoaren urraketak, falta oso astuntzat jotzen ez badira.

30. Lan arriskuen prebentziorako arauen urraketak, norberaren bizitza, osasuna edo integritate fisikoa, lankideena edo menpekoena arrisku larrian jartzen bada.

31. Zerbitzuarekin zerikusia duen edozein eskabide, erreklamazio edo kexa izapidetzeari uko egitea behin eta berriro, falta arintzat ez bada jotzen.

32. Falta astun bat estaltzea.

33. Hiru falta arinetan berrerortzea.

76. artikulua. Falta arinak.

Falta arinak hauek dira:

1. Lanera ez joatea edo lanaldia ez betetzea, hilabeteko epean behin bakarrik, justifikatutako arrazoirik gabe.

2. Hilabete berean, gehienez ere hamabi aldiz lanera berandu iristea, justifikatutako arrazoirik gabe.

3. Herritarrekiko, agintariekiko, nagusiekiko eta lankide edo menpekoekiko tratu-desegokiaz jokatzeari.

4. Zerbitzuetako lokalak, instalazioak, ibilgailuak, materialak, dokumentazioa eta gainerako elementuak gaizki erabiltzea edo axolagabekeriaz zaintzea, betiere falta astunagoa ez denean.

5. Nagusiei ez jakinaraztea, ezarritako bidetik, zerbitzuarekin lotutako edozein eskari, erreklamazio edo kexa, urgentzia kasuetan izan ezik, bai eta halakoak ez izapidetzea ere.

6. Lanean dihardutela edari alkoholdunak edatea.

7. Uniformeari eta agurrari buruzko arauak urratzea.

8. Lanbide kredentzialak bidezko arrazoi justifikaturik gabe erakustea.

9. Lanbide egiaztagutunak edo polizia-eginkizunetarako erabiltzen diren beste bitarteko edo baliabide batzuk desagertzeko, galtzeko, edo lapurtzeko bidea ematea, aitzakiarik gabeko zabarkeriaren ondorioz.

10. Delitu arin batengatik epai irmo bidez zigorra jaso izana, zabarkeriatatik ez denean.

11. Foru lege honen 3. artikuluan ezarritako printzipioen ondoriozko eginbeharrak ez betetzea, betiere falta astuna edo oso astuna ez bada, eta, orobat, polizia lanari dagozkion eginbehar eta betebeharretan berandu iristea edo zabarkeriaz edo utzikeriaz jokatzeari, falta astunagozat jotzen ez bada.”

3. atala Diziplina zehapenak

77. artikulua. Zehapen motak.

1. Falta oso astunak egiteagatik honako zehapenak jartzen ahalko dira:

a) Eginkizunen etenaldia, hiru hilabetetik hiru urtera bitartekoa.

b) Zerbitzutik kentzea.

Eginkizunak eteteak langileari dagozkion esku-bide guztiak galtzea ekarriko dio zehapena jaso duen langileari, zehaztuko den denborarako.

Zerbitzutik kentzeak funtzionario izaera galtzea ekarriko du berekin.

2. Falta astunak egiteagatik honako zehapenak jartzen ahalko dira:

a) Beste lanpostu batera aldatzera behartzea, herri berean, kalte-ordainik jaso gabe eta bi urteko epean lanpostu hori berriz eskuratzeko aukerarik gabe.

b) Enplegu-soldaten etenaldia, bost egunetik hogeita hamarrera bitartekoa, antzinasuna galdu gabe.

c) Eginkizunen etenaldia, hiru hilabetez gehienez.

3. Falta arinak egiteagatik honako zehapenak hauek jartzen ahalko dira:

a) Ohartarazpena.

b) Enplegu-soldaten etenaldia, egun batetik lau egunera bitartekoa, antzinasuna galdu gabe.

78. artikulua. Zehapenak betetzea.

1. Zehapena jaso duen langilea gutxien kalte-tzen duen moduan beteko dira zehapenak. Ondorio horietarako, enplegu-soldaten etenaldia honako proportzioaren arabera egingen da: benetan lan egindako lau egun eta zerbitzurik gabeko egun bat.

Ez dira zehapen gisa joko puntualtasunean atzeratzeagatik edo lanera arrazoirik gabe ez etortzeagatik lansariei proportzioan eginiko murrizketak. Murrizketak zuzenean egingen dira eta beti.

2. Diziplina zehapenak espediente pertsonaletan jasoko dira, zer faltak eragin dituzten adierazirik.

3. Falta arinengatik ezarritako zehapenak hiru hilabetera preskribatuko dira, falta astunengatik ezarritakoak urtebetera eta falta oso astunengatik ezarritakoak hiru urtera. Diziplina zehapenen preskripzio epea kontatzen hasten da zehapena ezartzen duen ebazpena irmo bilakatu eta biharamu-nean.

79. artikulua. Zehapenen mailaketa.

Zehapenak mailakatzeko kontuan hartuko dira, egite eta ez-egiteez gain, honakoak ere, proporzionaltasunaren printzipioarekin bat:

- a) Erantzuleen asmoa eta faltaren izaera.
- b) Zerbitzuen funtzionamendu egokian sortutako nahasmendua.
- c) Administrazioari edo herritarrei eragindako kalte eta galerak.
- d) Hutsegiteetan berrerortzea.
- e) Hutsegitean edo ez-betetzean izandako parte-hartzearen maila.
- f) Segurtasun publikoari begira izandako garrantzia.
- g) Lanbide-historiala, inguruabar aringarri gisa.

80. artikulua. Berrerortzea eta aurrekariak deuseztatzea.

1. Hauxe da berrerortzea: faltaren unean erantzuleak beste zehapen bat duenean, ebazpen irmoaren bidez ezarria falta astunago batengatik edo astuntasun bereko edo txikiagoko bi hutsegiterengatik, betiere deuseztatu ez badira.

2. Deuseztapena ofizioz eginen da zehapena bete eta bi edo lau urte iraganik, falta astunen edo oso astunen kasuan, hurrenez hurren, betiere zerbitzutik bereizteko zehapena jaso ez badute.

3. Falta arinengatik ezarritako ohartarazpenak ofizioz deuseztatuko dira bete eta sei hilabetera.

4. Deuseztatzearen ondorioz, ohartarazpena baliogabetu eginen da, eta ez da haren ziurtagirik egiterik izanen.

4. atala **Diziplina-prozedura**

81. artikulua. Eskumena.

1. Honako hauena da falta astunen eta oso astunengatik diziplina espedienteak ireki eta zehapenak ezartzeko eskumena:

a) Nafarroako Foruzaingoa, Barneko zuzendari nagusiarena.

b) Nafarroako Tokiko Polizietan, Toki Administrazioaren gaineko legeriaren arabera eskumena duen organoarena.

2. Falta astunak edo oso astunak egiteagatik, zehapenak ezartzeko eskumena arau hauen menpe egonen da:

a) Nafarroako Foruzaingoa, Nafarroako Gobernuak izanen du zerbitzutik bereizteko zehapena ezartzeko eskumena, barne gaitako eskumena duen departamentuko kontseilari titularrak falta oso astunengatik zehapenak ezartzekoa, eta Barneko zuzendari nagusi eskudunak falta astunengatik zehapena ezartzekoa.

b) Nafarroako Tokiko Polizietan, Toki Administrazioaren gaineko legeriaren arabera eskumena duen organoa.

82. artikulua. Falta astunak edo oso astunak ezartzeko prozedura.

1. Falta astun edo oso astunengatik diziplina espedientea irekitzeko eskumena duen organoak behin-behineko etenaldia edo behin-behineko beste lanpostu batera atxikitzea erabaki dezake berriaz, kautelazko neurri gisa eta prebentzio izaeraz.

Behin-behineko neurriak hartzeko ebazpena eman baino lehen, ukitutako langileari entzunaldia emanen zaio, hiru egun baliodunetz.

Aurrekoa gorabehera, behar bezala arrazoituko ohiz kanpoko presa edo arriskuko kasuetan, kasuko Poliziako buruak edo komisario nagusiak arma eta egiaztagutuna kentzen ahalko dizkiote langileari kautelazko neurri gisa, eta espedientea irekitzeko eskumena duen organoak hiru egun balioduneko epean, gehienez ere, berretsi behar du erabaki hori.

2. Behin-behineko etenaldiak edo beste lanpostu bati behin-behineko atxikitzeak espedientaturik dagoen langileak arma, egiaztagutuna eta uniformeak behin-behinekoz galtzea ekar dezake, bai eta kasuko instalazio polizialetera baimenik gabe sartzeko debekua ere.

Beste lanpostu batera behin-behineko atxikitzeak ez du berarekin ekarriko ez destinoko herria aldatzea, ez inongo lansari-galerarik.

Kautelazko neurriei eutsi edo horiek bertan behera uzteari buruzko ebazpena ematerakoan, ustez egindakoen larritasuna baloratuko da, bai eta kasu bakoitzaren inguruabar zehatzak eta espedientaturiko langilearen espediente per-

tsonala ere. Kautelazko neurriak ezarri edo luzatzea erabakitzen duen ebazpenak arrazoitua izan beharko du.

3. Kautelazko neurriak hilabeterako erabakitzen ahalko dira, eta epe hori beste hilabetez luzatzen ahalko da, sei hilabete egin arte gehienez.

4. Behin-behineko etenaldian dauden langileek eskubidea izanen dute, soilik, beren mailako hasierako soldatari, graduari, antzintasuneko sariari eta familia laguntzari dagozkien lansariak jasotzeko. Behin-behineko etenaldiaren denbora kontuan hartuko da eginkizunen etenaldiaren zehapena betetzearen ondorioetarako, zehapen hori ezartzen bada. Behin-behineko etenaldia irmo bilakatuko ez balitz, ukitutako langileari kendu zaizkion eskubide guztiak aitortuko litzaizkioke.

5. Falta astun edo oso astunengatiko diziplina-espedientea hasi baino lehen, diziplina espedientea irekitzeko eskumena duen organoak, gertaerak argitze aldera, alde aurreko informazio aldi bat irekitzeko agintzen ahalko du, kasu zehatzaren zer-nolakoak ikertu eta prozedura abiaraztea komeni behar den ala ez den erabakitzeko.

Zilegi izanen da alde aurreko informazio aldi hori erreserbatua izatea, eta ez du hilabete batetik gora iraunen, non eta berariaz erabakitzen ez den beste epe jakin baterako edo batzuetarako luzatzea. Apartatu honetan aipatzen diren alde aurreko jarduketak direla-eta ez da ulertuko diziplina prozedura hasita dagoela.

6. Diziplina-espedientea irekitzeko eskumena duen organoaren ebazpen bidez hasiko da prozedura, dela organoaren beraren ekimenez dela menpekoen mozio arrazoituaren ondorioz edo salaketaren ondorioz. Salaketa anonimo hutsa ez da aintzat hartuko, ezta aurreko apartatuan aipatutako aukerako informazio erreserbatua gauzatzeko ere.

Diziplina-espedientea hasten duen ebazpenak egintzetarako instrukzio-egilea izendatuko du, eta ustezko arau-hausleari jakinaraziko zaio eta, salatzailerik izan bada, hari ere bai. Funtzionario edo kontratudun bat izendatuko da instrukzio-egile, hautapen prozeduran zuzenbideko lizentziatuaren titulua eskatu zaieneta bat hain zuzen. Ustez astunak diren falten kasuan, kasuko Poliziako kide bat izendatzen ahalko da horretarako; pertsona horrek onartu egin beharko du, abstentziorako arrazoirik ez badago.

Bai alde aurreko informazioetan, bai diziplina prozeduran, langileak legelari baten laguntza edukitzen ahalko du, eta errekusatzea sustatzen ahalko du prozeduraren izapidetzearen edozein

unetan. Errekusatzearen gaineko ebazpenen aurka ezin izanen da inolako errekurtsorik aurkeztu; hala ere, prozedura amaitzen duen egintzaren aurkako errekurtsioa aurkeztean, alega daiteke errekusatzea.

Nolanahi ere, eta lehenengo jarduketa gisa, instrukzio-egileak deklarazioa hartuko dio ustezko erantzuleari, hura nor den finkatuta badago, eta menpekoen mozio arrazoititik edo espedientea irekitzea eragin duen salaketatik eta deklarazioan alegatutakotik ondorioztatzen diren diligentziak eginen ditu.

7. Instrukzio-egileak karguen plegu bat idatziko du, zehapen proposamena eta guzti, eta ustezko arau-hausleari jakinaraziko zaio. Hark hamar egun balioduneko epea izanen du bere eskubideen alde bidezko iruditzen zaizkion alegazioak egiteko eta datuak, informazioak edo dokumentuak aurkezteko, bai eta kasurako iruditzen zaion froga proposatzeko.

Karguen pleguan beti honako jakingaiak ezarriko dira derrigorrez:

a) Ustezko erantzuleen identifikazioa.

b) Egotzitako egitateak, arau-hausteak tipifikatzeko eta zehapenak mailakatzeko garrantzia dutenak nabarmendurik.

c) Ustezko arau-haustea, zehatzurik zein den edo zein diren hautsitako araua edo arauak.

d) Zehapenik zilegi bada, zein den.

e) Zein organok duen prozedura ebazteko eskumena eta zein arauk ematen dion eskumen hori.

8. Espedientatuak bere borondatez aitortzen badu erantzulea dela, instrukzio-egileak organo eskudunari igorriko dio espedientea, ebazpena eman dezan, ezertan galarazi gabe izapidetzen segitzea, iruzur egitearen edo beste pertsona edo entitate batzuk estaltzearen susmo arrazoizkorik badago, edo prozedura hasteak sortu duen kontua orenen interesekoa bada.

9. Kargu-orriari erantzunda edo erantzun hori emateko epea iraganda, ofizioz edo ustezko arau-hausleak eskatuta, behar adina froga egin edo onartuko dira, gertatutakoak eta ustezko erantzukizunak finkatzeko. Gertaerekin duten loturagatik azken ebazpena ustezko arau-hauslearen alde aldatu ezin duten frogak soilik ukatzen ahalko dira. Froga-aldiaren epea ez da hogeita hamar egunekoa baino luzeagoa eta hamabost egunekoa baino laburragoa izanen. Hala eta guztiz ere, instrukzio-egileak beharrezkotzat jotzen badu, epe hori luzatzen ahalko du, salbuespenez eta arrazoiak eman-

da. Froga-aldiaren irekitzea prozedura zein langileren kontra ari den izapidetzen, hari jakinaraziko zaio.

10. Alegazioak aurkezteko aurreikusitako epea iraganik, frogarik egin behar bada frogak eginik, eta beharrezkotzat jotzen diren eginbideak egin ondoren ere, instrukzio-egileak ebazpen proposamena emanen du. Bertan egintzak finkatuko dira zehaztasunez, –karguen pleguan jasotakoekin eta eginiko frogekin bat etorriko dira–, frogen balorazio juridikoa eginen da, eginiko falta zehazte aldera, eta funtzionario arduraduna nor den adieraziko da. Halaber, bidezkotzat jotzen den zehapena adieraziko da, edota espedientea artxibatzea proposatuko da.

Proposamena interesdunari jakinaraziko zaio, hamar eguneko epean bere defentsan egokituz jotzen duena alegatu dezan.

11. Interesdunari entzunda edo epea inongo alegaziorik gabe iragan ondoren, instrukzio-egileak langile batzordeari helaraziko dio espedientea, edo kasuko langileen ordezkariari, hamar eguneko epean eman dezaten Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan aipatzen den txostena.

Behin txostena jasota, edo epea txostenik eman gabe iragaten bada, instrukzio-egileak espedientea igorriko dio prozeduraren hasiera erabaki duen organoari, azken horrek, espedientea aztertuta eta, kasua bada, egokituz jotzen dituen jarduketa osagarriak eginda, dagokion ebazpena eman dezan, horretarako eskumenik baldin badu. Hala ez bada, organo horrek espedientea igorriko dio ebazteko eskuduna denari.

12. Diziiplina-prozedura amaituko da organo eskudunak kasuko zehapena ezartzeko ebazpena ematen duenean. Ebazpen horrek, non espedientean planteatutako gai guztiak erabaki beharko diren, arrazoitua izan behar du, eta hartan ezin izanen da onartu ez egitaterik, ez funtsik, kargu-orrirako eta ebazpen-proposamenerako oinarri gisa baliatu direnez bestelakorik, haien balorazio juridikoa desberdina izanda ere.

Halaber, diziiplina-prozedurari amaiera emanen dion ebazpenak erabateko zehaztasunez finkatu beharko du zein falta hartzen den egintzat, zein xedapenetan jasota ageri den adierazita, falta mota, langile arduraduna eta ezartzen den zehapena. Halaber, berariazko adierazpena eginen da prozedura izapidetu bitartean hartzen ahal izan diren behin-behineko neurriei buruz.

Ebazpenean erabakitzen bada ez dagoela diziiplina-faltarik edo erantzukizunik, egokia den adie-

razpena eginen da behin-behineko neurriei dago-kienz.

13. Diziiplina-prozedura ebazteko epea sei hilabetekoa izanen da, espedientea irekitzeko ebazpena eman zen egunetik hasita. Epe hori beste sei hilabetez luzatzen ahalko da, gehienez ere.

Epe horiek igarotzen badira prozedura amaituko duen ebazpenik eman gabe, prozedura iraungi eginen da.

Prozedura ez da iraungiko espedientea ustezko erantzuleari egotz dakiokkeen arrazoi batengatik geldirik badago.

83. artikulua. Falta arinengatik zehapenak ezartzeko prozedura.

1. Diziiplina-espedienteak ireki, eta falta arinak egiteagatik zehapenak ezartzeko eskumena honako hauena izanen da:

a) Nafarroako Foruzaingoan, Foruzaingoko buruarena.

b) Nafarroako tokiko polizietan, kasuko tokiko poliziako buruarena.

2. Falta arinengatik zehapenak ezartzeko prozedura laburtua haxe izanen da:

a) Organo eskudunak langile baten ekintza bat falta izan litekeela iritziz gero, organo horrek espediente sumario bat irekiko du izan litezkeen diziiplina-erantzukizunak zehazte aldera.

Ustezko ekintzaren berri salaketa bidez izan balitz, ustezko erantzuleak hierarkian gora duen nagusiak, espedientea ireki aurretik, datu osagarriak bilduko ditu, hiru eguneko epean, eta beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapenak eginen ditu salaketa argitzeko eta, kasua bada, espedientea irekitzeko.

b) Espedientea ireki duen organo eskudunak berehala prestatuko du karguen orria, zeinean jaso beharko baitira egotzitako gertaerak, ustez egin den falta, interesdunaren erantzukizuna eta foru lege honetan kasuko faltarako aurreikusten den zehapena.

Karguen orria interesdunari igorriko zaio, bost eguneko epean bere defentsarako bidezkotzat jotzen dituen alegazioak aurkez ditzan eta baliatu nahi dituen frogak proposa ditzan.

c) Espedientea ireki duen organo eskudunak egokituz jotzen dituen froga-diligentziak bost eguneko epean eginen dira. Organo horrek, hala ere, beharrezkotzat jotzen bada, luzatzen ahalko du epe hori.

d) Frogarik proposatu ez bada, edo proposatutakoa egin ondoren, organo eskudunak, zehapena ezartzeko eskumena izanez gero, ebazpena emanen du hiru eguneko epean, eta, bestela, hurrengo egun baliodunean espedientea igorriko dio horretarako eskumena duen organoari, zeinak dagokion ebazpena eman beharko baitu adierazitako epean.

e) Artikulu honetan berariaz aurreikusten ez den orotan, falta astun edo oso astunengatik zehapenak ezartzeko prozeduran arautzen duten xedapenak aplikatuko dira modu osagarrian.

84. artikulua. Jakinarazpena eta idazpena.

Interesdunari diziplina-espedienteari amaiera emanen dion ebazpena jakinaraziko zaio, eta zehapena ezartzen badu haren espediente pertsonalean idatziko da.

Era berean, ebazpena behar diren organo administratiboei ere igorriko zaie.

Lehen xedapen gehigarria. Langile teknikoak eta fakultatiboak

Nafarroako Poliziek langile tekniko eta fakultatiboak edukitzen ahalko dituzte, poliziako langileek, edukia dela-eta, bete behar ez dituzten edo betetzerik ez dituzten eginkizunak betetzeko. Langile tekniko eta fakultatiboak lanpostu zehatzerako eskatutako titulazioaren arabera dagokien mailan sartuko dira, kasuko poliziako burutzaren menpe egonen dira eta Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuan xedatutakoari lotu beharko zaizkio.

Bigarren xedapen gehigarria. Lanaldien eta lan ordutegien araubidea aplikatzea Nafarroako Tokiko Polizietan

Foru lege honen IV. tituluaren Nafarroako Polizietako langileen lanaldiei eta lan ordutegiei dagoen xedatutakoa ez da joanen Nafarroako Toki Entitateekin foru lege honek indarra hartzen duenean lortuak dituen lan hitzarmen eta akordio kolektiboen kaltetan.

Hirugarren xedapen gehigarria. Sartu eta mailaz igotzeko prozesuak

Nafarroako Polizia desberdinetara sartzeko prozeduretan, prestakuntza ikastaroren baterako onartua izateko legezko baldintzetan dagoen izangairen bati ikastaro hori baliozkotzat ematen baldin bazaio, lanpostu bera Nafarroako beste administrazio publikoren batean betetzeagatik, azken administrazio horrek eskatzen ahalko du ezen, behin Polizia edo Administrazioa hautatu ondoren, hutsik gelditzen den hurrengo lanpostua eskain dakiola zerrendako hurrengoari; azken hori, izan

ere, ikastaroa baliozkotu zaion izangaiak hasiera batean hautatu duen administrazioko praktiketako funtzionario gisa onartuko da prestakuntza ikastaroan.

Behin prestakuntza ikastaroa bukatu ondoren, eta ikastaroa baliozkotu zaion izangaiak hautaturiko polizian sartu ondoren, jabetza hartzeak berekin ekarriko du une horretara arte edukitako lanpostuari berariaz uko egitea, eta lanpostua gorde gabeko borondatezko eszedentziaren egoeran geratzea. Kasu horretan, betetzen zuen lanpostua, hutsik geratu dena, zein administrazioetako zen, administrazio horrek prestakuntza ikastaroan bestearen ordezturiko izangaia izendatuko du.

Nafarroako Polizien arteko igoera prozeduren kasuan, deialdia egiten duen administrazioan sartzeak berekin ekarriko du ordura arte betetako lanpostuari uko egitea.

Laugarren xedapen gehigarria. Erretiro aurreratua

Gobernu zentralak 2018. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legearen "Nafarroako Foruzaingoko erretiro-adinaren koefiziente murriztaileen aitortzea" izenburuko ehun eta berrogeita bederatzigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako errege dekretua onesten duenetik 6 hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak bidezkoak diren erabakiak hartuko ditu koefiziente murriztaile horien onuradun gerta litezkeen foruzainen erretiro-adina aurreratzearen eraginkortasuna aurrekontuan gaitzeko.

Bosgarren xedapen gehigarria. Lanaldia hamabiren bat laburtzea Nafarroako Foruzaingoko langileei.

Nafarroako Foruzaingoko langileen lanaldia hamabiren bat laburtzeko modalitate bat ezartzen da. Laburtze horretarako baimena emateko baldintzak, bai eta laburtze horrek lanaldian eta hartaz baliatzen diren langileen ordainsarietan izanen dituzten eraginak ere, Nafarroako Administrazio Publikoetako langile funtzionarioen lanaldimurrizketak arautzen dituen Erregelamenduan gainerako funtzionarioentzat ezarritakoak izanen dira.

Seigarren xedapen gehigarria. Foruzaingoko langileen soldata-baldintzak mantentzea eta berreskuratzea.

Baldin eta foru lege honen aplikazioaren ondorioz foruzainen baten ordainsariak txikiagoak badira, bermatuta egonen da gutxienez ere egungo ordainsariak mantenduko direla. Alde negatiboa zuzenduko da dagokion portzentajea gehituz lanpostuko osagarrian. Egungo ordainsariak ez gutxi

tzeko berme horretan ez langilerik, ez brigadarik ez da bazterten.

Halaber, apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legearen aplikazioaren ondorioz ordainsarietan galerak izan dituzten Foruzaingoko unitateek gutxienez ere ordainsari horiek berreskuratuko dituzte honako neurri hauen bidez: soldata-masaren gehikuntza lanpostuko osagarriari, prestasun bereziko osagarriaren igoera eta burutzako osagarria, foru lege honen 59., 60. eta 61. artikuluetan, hurrenez hurren, arautuak. Ordainsariak berreskuratzeari buruzko apartatu honetatik kanpo uzten dira Agintariak Babesteko Brigadari atxikitako langileak.

Bi kasu horietan, kalkulu horretarako ez da kontuan hartuko oinarritzko soldataren % 17aren konpentsazioagatik ordainsarien gehikuntza, proba fisikoak gainditzero dagokiona”.

Nolanahi ere, bermatzen da lege honen aplikazioaren ondorioz gerta daitezkeen igoeren inongo xurgatzerik ez dela gertatuko Foru Administrazio-ko langile guztientzat, oro har, etorkizunean oinarritzko soldatan ezartzen diren igoeren eraginez.

Zazpigarren xedapen gehigarria. Nafarroako tokiko polizietako funtzionarioak Nafarroako Foruzaingoa sartzeari.

Nafarroako tokiko polizietako funtzionarioek Nafarroako Foruzaingoa sartzeko aukera izanen dute, jatorriko polizian duten kategoria edo enplegu berarekin, edo pareko kategoria edo enpleguan, erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan, beti ere sartzeko hautaprobetan parte hartzeko eskatzen diren eskakizunak betetzen badira.

Pertsona horiek Foruzaingoa sartzeari, edonola ere, boluntarioa izanen da beti. Sartze hori eskubide eta betebeharrak guztiekin egiten da; alde aurretik beharrezkoak diren gaitzarako probak eta ikastaroak gainditu beharko dira Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolan. Halaber, prozedura horretan ordezkariak duten erakunde sindikalek hartuko dute parte.

Lehen xedapen iragankorra. Indarreko arauak aplikatzea.

Foru lege honetan aipatzen diren garapen erregelamenduak onetsi bitartean, egun indarra duten erregelamenduen aplikazioari eutsiko zaio. Zehazki, lanaldien, ordutegiaren eta ordainsarien araubide berria, foru lege honetan jasotako erregulaziotik heldu dena, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen da aplikatzea, eta bitartean indarrean jarraituko du Foruzaingoa lanaldi eta ordainsarien Erregelamendua onesten duen irailaren 28ko 79/2016 Foru Dekretuak.

Bigarren xedapen iragankorra. Enpleguetan sartzeko deialdiak

Foru lege honek indarra hartzen duenetik hasita enplegu bakoitzean sartzeko egiten diren deialdietan, lanposturik hutsik gelditzen bada, lanpostu horiek eskaintzen ahalko zaizkie oposizio-lehiaketaren sistemaren bidez, deitutako enplegutik behar-rako enplegu langileei ez ezik bi enplegu behar-rakoei ere, betiere kasuko mailan sartzeko eskatzen den ikasketa titulua eta erreferentziako behar-ragoko enpleguan hamar urte emanik badute egiazko zerbitzuan.

Hirugarren xedapen iragankorra. Proba fisikoak.

Proba fisikoak egiteagatik konpentsazioaren gaineko aukeraren izaera boluntarioari eusten zaio –konpentsazioa ekonomikoa ala orduena izan–, eta aukera hori libreki aldatu ahalko du foruzain bakoitzak lau urtez behin.

Proba fisikoaren konpentsazio ekonomikoa aukeratzen duten langile funtzionarioei ordainsari ekonomikoa emanen zaie, mailari dagokion hasierako soldataren % 17ko osagarri bat alegia, lanpostuko osagarriari gehituko zaiona.

Nolanahi ere, bi baldintza ezartzen dira gai hau erregulatzeke:

– foruzain izaera foru lege honek indarra hartu ondoren eskuratzen dutenei automatikoki aplikatuko zaie aurreko paragrafoan aurreikusitako konpentsazio ekonomikoa, eta inolaz ere ez dute orduen konpentsazioaz gozatzeko aukerarik izanen. Salbuespenez, foru lege hau indarrean sartzen denean Segurtasun Eskolan dauden eta foru legea indarrean sartu ondoren foruzain izendapena lortzen dutenei ez zaie baldintza hori aplikatuko.

– orduen konpentsazioa aukeratzen dutenak ezin izanen dira lanaldia 1/12 murrizteko aukeraz baliatu.

Egiten diren proba fisikoak orain arte finkatuta berak izanen dira, eta baldintza eta eduki berei eutsiko zaie, eta erregelamenduz arautuko dira. Arestiko hori gorabehera, konpentsazio ekonomikoaren aldeko haututa egiten dutenek proba fisikoak ez egitea erabakitzen ahalko dute; hala eginez gero, behin betikoz egiten diote uko orduen konpentsaziora itzultzeari, ezarritako 4 urteko epearen barruan. Konpentsazio ekonomikoaren aldeko hautua egin arren proba fisikoak egiten jarraitzea erabaki dutenek, aldiz, orduen konpentsaziora itzultzeko eskubidea gordeko dute.

Laugarren xedapen iragankorra. Nafarroako toki entitateetako populazio ratioen aplikazioa.

Foru lege honetan, Tokiko Poliziak sortzeko eta Nafarroako Toki Entitateek horiei eman beharreko egitura zehazteko, ezartzen diren populazio ratioak ez du eraginik izanen entitate horiek, populazioari dagokionez, foru lege honek indarra hartzen duenean duten egoeran. Nafarroako toki entitateetan gerta daitezkeen aldaketa demografikoek ez dute ekarriko berekin foru lege honetan aurreikusitako ratioak aplikatu beharra, aldaketa demografiko horiek bi legealditan behintzat mantentzen ez badira.

Era berean, foru lege honek indarra hartzen duenean udal agenteak edo aguazilak dituzten Nafarroako toki entitateek langile horiek mantentzen ahalko dituzte, Tokiko Polizia Zerbitzuen izenarekin, foru lege honetan aurreikusitako populazio ratioak zein diren ere.

Edozein kasutan ere, foru lege honetan aurreikusten diren populazio ratioak betetzea langilegastuei buruzko oinarrizko arauen mendean egonen da”.

Bosgarren xedapen iragankorra.

Tokiko poliziak dauzkaten toki entitateek, lanpostu osagarriari zer ehuneko dagokion ezartze eta zehazte aldera, lanpostuen balorazioa egiteko kasuko azterlanak egiten egiten ez dituzten bitar-

tean, edo langileen ordezkariekin osagarri horretan sartzeari adosten ez den bitartean, tokiko poliziek txandakako laneko gaur egungo osagarriari dagokion % 6ko ordainsaria jasotzeko eskubidea gordeko dute.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Indargabetzen diren arauak.

Indarrrik gabe gelditzen dira foru lege honetan xedatutakoaren kontrako arau guztiak, mailako berekoak edo beheragoak, eta bereziki Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea eta apirilaren 10eko 15/2015 Foru Legea, Nafarroako Poliziei buruzko martxoaren 23ko 8/2007 Foru Legea aldatzen duena.

Azken xedapenetan lehenengoa. Erregelamendu bidezko garapena.

Foru lege hau indarrean sartzen denetik urtebeteko epean, legea erregelamendu bidez garatzeko beharrezkoak diren xedapenak emanen ditu Nafarroako Gobernuak; zehazki, Nafarroako Foruzaindako langileen prestakuntzari, lanpostuak betetzeari, bigarren jarduerari, lanaldiei, ordutegiari eta ordainsariei buruzkoak.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina ezartzen duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko irailaren 10ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina ezartzen duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina ezartzen duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duen Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2018ko irailaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Lege proposamena, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina ezartzen duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duena

ZIOEN AZALPENEA

Gaur egungo gizarteak badu erreibindikazio etengabe bat, Nafarroako Alderdi Sozialistak bere egiten duena: neurriak ezartzea norberaren bizitza, familia-bizitza eta lan-arloko bizitza bateragarri egitearen esparruan, errazte aldera gizonen eta emakumeen artean familia-ardurak eta ardura personalak modu orekatuan banatzea eta, halaber, erantzukidetasuna sustatzea berdintasun erreala lortze aldera, emakumeen langabezia eta

pairatzen duten soldata-arraila gainditzea ahalbidetzeko.

Helburu hori lortzeko asmoz, Nafarroako Alderdi Sozialistak, beste gobernu sozialista batzuk egiten ari diren bezala, behar diren lege-aldaketak proposatzen ditu, Nafarroako Gobernu Administrazio aitzindari eta eredugarria izan dadin, berdintasuneranzko aurrerabideari dago-kionez.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 49.1.b) artikulua eskumen osoa esleitzen dio Nafarroari erkidegoko funtzionario publikoen estatutu-araubideari dagokionez, Estatuko oinarritzko legediak funtzionario publikoei aitortzen ahal dizkien funtsezko eskubi-deak eta betebeharrak errespetatuz.

Eskumen hori baliatuz onetsi zen Nafarroako Administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, zeinaren 36.1.f) artikulua jarduneko zerbitzuan dauden funtzionarioei eskubidea esleitzen baitie ikasketak-, ezkontza- eta amatasun-lizentzia ordainduak eta norbere arazoetarako lizentzia ordaindu gabeak izateko. Aipatu artikulua bigarren apartatuak ezartzen duenez, eskubide horiek estatutuan eta bere erregelamendu-xedapenetan ezarritakoari egokituko zaizkio.

Guraso-baimenei dagokienez, otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretuak, Nafarroako Administrazio publikoetako funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen Erregelamendua onesten duenak, 16. artikuluan, lau asteko baimena ematen du gurasotasun, harrera edo adopzioagatik.

2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legearen azken xedapenetako hogeita hemezortzigarrenaren hirugarren apartatuak aldatu egin zuen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Enplegatu publikoaren oinarritzko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 49.e) artikulua. Hartara, bost astera bitarte luzatu zen gurasotasun-baimena, seme-alaba baten jaiotza, adopzioarako zaintza, harrera edo adopzioagatik.

Enplegatu publikoaren oinarritzko Estatutuaren Legearen testu bateginaren gaineko urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren

aldaketak 2018ko uztailaren 5ean indarra hartzearen berehalako ondorioa da, beraz, 11/2009 Foru Dekretuaren 16. artikulua, eta geroztik guraso ez haurdunek eduki ahalko dute 5 asteko baimena, gurasotasun, harrera edo adopzioagatik.

Foru lege proposamen honen xedea da aldatzea Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, beste xedapen gehigarri bat sartuz, estatuko legerian araututakoaren baimen osagarri bat arautuko duena, eta lanaren, bizitza pertsonalaren eta familiakoaren uztartzea eta erantzukidetasuna lortzera bideratutako legezko neurriak ezartzera joko duena.

Azalduetako zioengatik, Nafarroako sozialisten taldeak ondotik datorren legegintzako ekimena aurkezten du. Hona edukia:

Artikulu bakarra. Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren testu bategina ezartzen duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren aldaketa.

Xedapen gehigarri bat eransten da. Hona testua:

“Hogeita bigarren xedapen gehigarria. Gurasotasun, harrera eta adopzioagatik baimenak, eta, lanaren, bizitza pertsonalaren eta familiakoaren uztartze eta erantzukidetasunaren aldeko neurriak:

1. Behin agorturik gurasotasun-baimena, seme-alaba baten jaiotza, adopzioarako zaintza, harrera edo adopzioagatik, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileek baimen gehigarri ordaindua izanen dute, eta horren iraupena, gehi Estatuko oinarrizko legerian araututako gurasotasun-baimenarena, izanen da hamazazpi aste-ko atsedena, edo kasu bakoitzean dagokiona seme-alabaren desgaitasunagatik eta seme-alaba bakoitzagatik, bigarrenetik hasita, jaiotza, adopzio edo harrera anizkoitzaren kasuan.

Baimen horrek enpleguaren ordainsarien %100eko ordainsaria izanen du, ezin izanen zaio beste gurasoari besterendu eta jarraian nahiz modu zatikatuan baliatzen ahalko da, erregelamenduz ezartzen den eran; zatikatuta hartuz gero, jaiotza, adopzio edo harreraren ondoko hamabi hilabeteen barruan.

Gurasotasun-baimen gehigarria 2019ko urtarrilaren 1etik aitzina ezarriko da, eta seme-alaba aurreko urtean jaio bada ere baliatzen ahalko dute gurasoek, honako ezarpen honi jarraikiz:

– Jaiotzak, adopzioarako zaintzak, harrerak edo adopzioak, 2018. urtean gertatuak: 4 aste.

– Jaiotzak, adopzioarako zaintzak, harrerak edo adopzioak, 2019. urtean gertatuak: 8 aste.

– Jaiotzak, adopzioarako zaintzak, harrerak edo adopzioak, 2020. urtetik aitzina gertatuak: 12 aste.

Baimen gehigarria ez dago loturik oinarrizko legerian arautzen den baimena –jaiotza, adopzioarako zaintza, harrera edo adopzioagatikoa– modu partekatuan baliatzearekin. Gainera, hura baimentzeko, bost aste horiek bukatu baino lehen eskatu beharko da, baimen gehigarri horren hasierako data zein ere den.

2. Behar diren neurriak ezarriko dira ondotik datozen neurriak ezartzeko Nafarroako administrazio publikoen arloan:

a) Telelana, halako sektoreetan non zerbitzuak ematea bateragarria den kasuko zentro edo lantokian presentzia fisikorik behar ez duen lanaldi batekin.

b) Ordutegiaren bateragarritasuna eta arrazionaltasuna, lanaldia 18:00etan buka dadin baldin eta ematen diren zerbitzu publikoen izaerak horretarako bidea ematen badu.

c) Langileen atsedenerako denboran deskonexio digitala eta lanpostuaren eginkizunetarako arretari buruzkoa ahalbidetuko duten neurriak.

d) Halaber, arreta berezia emanen zaio, lanaldi murrizketaren kasu guztietan, ordutegiaren egokitzapenari eta, bereziki, bertaratzeko egunen egokitzapenari, norberaren bizitza, familia-bizitza eta lan-erlora bizitza bateragarri egiteko.

Azken xedapenetako lehenengoa. Erregelamendu bidezko garapenerako gaikuntza.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau garatu eta betearazteko beharrezkoak diren erregelamenduzko xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek 2019ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da Nafarroako ikastetxeetako irakasleen eta langileen aurkako erasoei aurre egiteko Jarduketa Plan bat abian jar dezan.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko irailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita Nafarroako ikastetxeetako irakasleen eta langileen aurkako erasoei aurre egiteko Jarduketa Plan bat abian jar dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2018ko irailaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatzeko.

Urteak dira ikastetxeetako bizikidetzak kezkatuta daukana hezkuntza-erkidegoa. Hezkuntza Departamentuak berak zenbait arau ezarri izan ditu ikastetxeek aurre egin ahal izan diezaieten bertako elkarbizitza normala aztora dezaketen egoerei. Arlo horretan, bizikidetasun-planek eta ikastetxeetako bizikidetasunaren arloko arduradunek funtsezko eginkizuna daukate. Auzia arautzen duen oinarritzko araudia osatzen dute 47/2010 Foru Dekretuak –zeina 57/2014 Foru Dekretuaren bidez aldatu baitzen– eta 204/2010 Foru Agin-

duak. Ikastetxeetako bizikidetzaz aztoratzen dute, besteak beste, Nafarroako ikastetxeetako irakasleen eta zerbitzuen arloko langileen aurkako erasoek.

Kontu kezkarria da hori, eta departamentuak erabakitasunez heldu behar dio.

2017-2018 ikasturtean 178 eraso gertatu ziren. Horietako 165 irakasleen aurkakoak izan ziren, eta 13, berriz, ikastetxeetako zerbitzuen arloko langileen aurkakoak. 134 kasutan (% 75) emakume bat izan zen biktima.

Hezkuntza-etapen arabera, 113 ikastetxe publikoetan gertatu ziren, 47 DBH eta Batxilergoko ikastetxeetan, 14 hezkuntza bereziko ikastetxeetan, 3 Lanbide Heziketan eta 1 Musika-eren hirian.

178 eraso horietatik, 138 (% 77) ikasleek eginak izan ziren, 28 (% 15) ikasle senitarteko batek, 2 ikasle batek eta senitarteko batek batera, eta 3 irakasle ohi batek, udal langile batek eta ikastetxearekin zerikusirik ez zeukan pertsona batek, hurrenez hurren. 6 erasotan ezezaguna zen erasoaren egilea.

Gauzak horrela, Nafarroako Gobernuak erabakitasunez esku hartu behar du, kasuak kasuko neurriak ezarriz indarkeriazko ekintza horiek erazteko edo ahal den guztian murrizteko. Neurri horietako batzuek jada ezarritakoetan sakondu behar dute, eta beste batzuk berriak izanen dira, eta ikastetxeetako hezkuntza-erkidegoan inplikaturako eragile guztien adostasunarekin aztertu eta abiaraziko dira: irakasleak, zuzendaritza-taldeak, familiak, ikasleak, sindikatuak, toki entitateak eta abar.

Prebentzioa funtsezkoa da, baina orobat da funtsezkoa ideiak argi izatea halako egoerei aurre egiteko orduan. Are gehiago kontuan hartzen

badugu irakasleek hurrekin eta nerabeekin egiten duten prestakuntza-lan handia, zeina Administrazio Publikoek nabarmendu eta balioan jarri beharko baitute gizartea ardura hori dela-eta kontzientziatzea ahalbidetuko duten kasuko ekimenen bidez.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du Nafarroako ikastetxeetako irakasleen eta langileen aurkako erasoei aurre egiteko Jarduketa Plan bat abian jar dezan. Plan

horrek ikastetxeetako bizikidetzaren planen analisia eta ebaluazioa jasoko ditu, bai eta auziari heltzeko beharrezkoak diren kasuan kasuko neurriak ere. Plana hezkuntza-erkidegoarekin adostuko da (zuzendaritza-taldeak, sindikatuak eta ikasleen familien ordezkariak). Aldi berean, kanpaina bat abiaraziko da, hezkuntza-erkidegoari eta gizarte osoari zuzendua, ikastetxeetan irakasleek egiten duten irakaslanaren eta prestakuntza-lanaren garrantziari buruz.

Corellan, 2018ko abuztuaren 21ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko zenbait mozio erretiratzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko irailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1.º Adieraztea jakinaren gainean dagoela Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko honako mozio hauek erretiratu direla:

9-16/MOC-00173

9-17/MOC-00017

9-17/MOC-00051

9-17/MOC-00068

9-17/MOC-00087

9-17/MOC-00089

9-17/MOC-00127

9-17/MOC-00153

9-17/MOC-00157

9-18/MOC-00046

9-18/MOC-00078

2.º Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2018ko irailaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, IAT egin behar duten ibilgailuek pairatzen dituzten ilarei buruzkoa.*CARLOS GARCÍA ADANERO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko irailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos García Adanero jaunak aurkeztutako galdera, IAT egin behar duten ibilgailuek pairatzen dituzten ilarei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko irailaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos García Adanero jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariorde Manu Ayerdi jaunak idatziz erantzun diezaion:

– IAT egin behar duten ibilgailuek pairatzen dituzten ilarak ikusita, Gobernuak aurreikusita al dauka ekimenik?

Iruñean, 2018ko irailaren 5ean

Foru parlamentaria: Carlos García Adanero

Galdera, Haur eta Lehen Hezkuntzan 2018-2019 ikasturterako kontratatutako irakasle-kopuruari buruzkoa.*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko irailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Haur eta Lehen Hezkuntzan 2018-2019 ikasturterako kontratatutako irakasle-kopuruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko irailaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

– Irakasleen zuzeneko irakaskuntzako orduak murriztu izanaren ondorioz 2018-2019 ikasturtean Haur eta Lehen Hezkuntzan kontratatutako irakasle kopurua.

Zehaztu ikastetxez ikastetxe, herriz herri eta hizkuntza-ereduz eredu.

– Ikastetxeren batek helarazi al dio departamentuari orduen murrizketa horren ondorioz eta irakasle gehiago ez kontratatzearen ondorioz ikasleentzako laguntza-orduak galdu direla? Zer konponbide eman du departamentuak horri dago-kionez ikasle horiek laguntzarik gal ez dezaten?

Corellan, 2018ko irailaren 6an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, jakiteko ea ikastetxeetako zuzendariei ikasturte hasierako ohiko deialdirako deituko zaien.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko irailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea ikastetxeetako zuzendariei ikasturte hasierako ohiko deialdirako deituko zaien.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko irailaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

– Hezkuntza Departamentuak deituko al die ikastetxeetako zuzendariei ikasturte hasierako ohiko deialdirako? Baiezkoan, zer data eta gai darabil gogoan? eta ezezkoan, zergatik ez du deialdirik eginen?

Corellan, 2018ko irailaren 6an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, 2019rako aurreikusitako lan-eskaintza publikoaren deialdian sartuko diren Haur eta Lehen hezkuntzako maisu-maistren lanpostuei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko irailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, 2019rako aurreikusitako lan-eskaintza publikoaren deialdian sartuko diren Haur eta Lehen hezkuntzako maisu-maistren lanpostuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko irailaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Catalán Higuera jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion:

– Haur eta Lehen Hezkuntzako maisu-maistren zer lanpostu sartuko dira 2019rako aurreikusitako lan-eskaintza publikoaren deialdian?

– Zer egutegi ezarriko du departamentuak deialdi horri dagokionez?

– Berritasunik izanen al du 2016an egindakoen aldean?

– Ba al duzue asmorik Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuan aldi baterako kontratuekin irakasle lanpostuetan aritu nahi duten izangaien zerrendak kudeatzeko arauak onesten dituen 51/2018 Foru Aginduan aldaketarik egiteko?

– Zenbat lanpostu exigituko dira hizkuntza eskakizunen arabera? Zenbat gaztelaniaz eta zenbat euskaraz?

Corellan, 2018ko irailaren 6an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Arkitektura eta Gizartea Fundazioak antolatutako ekitaldien kostuari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko irailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Arkitektura eta Gizartea Fundazioak antolatutako ekitaldien kostuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko irailaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Arkitektura eta Gizartea Fundazioak antolatutako ekitaldiak direla-eta –Nasuvinsa horren patronatuko patronatukidea baita–, parlamentari naizen aldetik jakin nahi dut jardunaldi horretako konzeptuetako bakoitzak izandako kostua.

Iruñean, 2018ko irailaren 6an.

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Eskubide Sozietako Departamentuak edo haren menpeko enpresa publikoek sinatutako hitzarmenetan exigitutako dokumentazio ekonomikoari buruzkoa.**MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko irailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Eskubide Sozietako Departamentuak edo haren menpeko enpresa publikoek sinatutako hitzarmenetan exigitutako dokumentazio ekonomikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko irailaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozietako Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Eskubide Sozietako Departamentuak edo haren menpeko enpresa publikoek sinatu eta gastu bat egitea dakarten hitzarmenak direla-eta, parlamentari naizen aldetik jakin nahi dut ea horietako zenbatetan exigitzen den egindako gastuak kreditatzeko dokumentazio ekonomikoa.

Iruñean, 2018ko irailaren 6an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuko datu-babeserako ordezkariaren figura sortzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko irailaren 3an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2018ko maiatzaren 25ean indarra hartu du Datu Pertsonalen Babeserako 2016/679 Europar Erregelamenduak (DPBEE). Beste zenbait berrikuntzaren artean, DPBEEko 37. artikulua xedatzen du ezen tratamendu-arduradunak behartuta daudela datu-babeserako ordezkari (DBO) bat hautatzera, tratamendua egiten duena agintaritza edo erakunde publiko bat denean.

Ordezkariaren posizioa eta eginkizunak DPBEEan bertan arautzen dira, xedatuz ordezkaria izanen dela zeregin gisa duena entitate arduradunari jakinaraztea zein diren datu-babesaren arloan dituen legezko betebeharrak, bai eta horri buruzko araudia betetzen dela zaindu edo gainbegiratzea, kontrol-agintaritzarekin lankidetzan aritzea eta agintaritza horren eta entitate arduradunaren arteko kontakturako gune gisa jardutea ere.

Ordezkariaren profilaz denaz bezainbatean, Erregelamenduak zehazten du hura hautatuko dela dituen nolakotasun profesionalak aintzat harturik; bereziki, dituen zuzenbide-ezagutza espezializatuak eta datu-babesaren alorrean duen eskarmentua. Hori horrela, Legebiltzarreko Mahaiak Zerbitzu Juridikoei esleitu die eginkizun hori betetzea, Legebiltzarreko legelari bat izendatuz datu pertsonalen babeserako ordezkari.

Horrenbestez, figura berri bat da, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak DPBEEan ezarritako ildotik arautu beharrekoa, eta kontuan harturik administrazio parlamentarioak autonomia daukala eta figura horren jarduna Legebiltzarrak berak dituen langileen eskuetan ipini dela.

Azaldutakoagatik, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 37.1.1. artikulua emandako ahalmena baliatuz, Legebiltzarreko Mahaiak hauxe ERABAKI DU:

1. Nafarroako Parlamentuko datu-babeserako ordezkariaren figura sortzea.

“Nafarroako Parlamentuko datu-babeserako ordezkariaren figura sortzea

1. artikulua. Xedea.

1. Erabaki honen xedea da administrazio parlamentarioko datu-babeserako ordezkariaren figura (DBO) arautzea.

2. Bere jardunean, datu-babeserako ordezkariak independentzia organikoa eta funtzionala izanen du.

3. Antolaketa- eta aurrekontu-ondorioetarako, datu-babeserako ordezkaria Idazkaritza Nagusi-Legelari Nagusiari atxikita egonen da. atxikitze horrek ez du ezertan galaraziko haren autonomia eta independentzia.

2. artikulua. Izendapena eta kargu-uztea.

1. Administrazio parlamentarioko datu-babeserako ordezkariaren zeregina Nafarroako Parlamentuko legelariak beteko dute.

2. Ordezkaria Nafarroako Parlamentuko Mahaiak izendatuko du, legelari nagusiak proposaturik, urtebeterako.

3. Ordezkari-zeregina bateragarria izanen da Nafarroako Parlamentuko legelarien berezko eginkizunetan jardutearekin.

4. Ordezkariak honako arrazoiengatik bakarrik utziko du kargua:

- a) Izendapenaren indarraldia bukatzeagatik.
- b) Berak hala eskatu izateagatik.
- c) Bateriaezintasun-arrazoiren bat aplikagarri zaiolako.
- d) Bere eginkizunetan aritzeko gaitasunik eza suertatzen bazaio.
- e) Funtzionario-izaerako langile gisa zerbitzutik aldendua izatea dakarren arrazoiren bat aplikagarri gertatzen bazaio.

e) Bere betebeharren ez-betetze astunagatik.

5. Datu-babeserako ordezkariaren izendapena eta kargu-uztea Datuak Babesteko Espainiako Bulegoari jakinaraziko zaizkio.

3. artikulua. Eginkizunak.

1. Honakoak dira datu-babeserako ordezkariaren eginkizun nagusiak:

a) Nafarroako Parlamentuko Mahaiari eta tratamenduaz arduratzen den Legebiltzarreko langileari informazioa eta aholkuak ematea datu-babesaren alorrean aplikatzekoa den araudiaren ondorioz dauzkaten betebeharrei buruz.

b) Gainbegiratzea administrazio parlamentarioan bete egiten dela, datu pertsonalen babesaren arloan tratamenduaz arduratzen direnen aldetik, datu-babesari buruzko araudiak xedaturikoa, barne harturik erantzukizun-esleipena, tratamendu-zereginetan parte hartzen duten langileen kontzientziazio eta prestakuntza eta kasuko auditoriak.

c) Datu-babesaren alorreko inpaktu-ebaluaioari buruz eskatzen zaion aholkularitza eskaintzea eta haren aplikazioa kasuko araudiari jarraituz egiten dela gainbegiratzea.

d) Lankidetzan aritzea Datuak Babesteko Espainiako Bulegoarekin, kontrol-agintaritza gisa dituen eginkizunetan.

e) Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren kontaktu-gune gisa jardutea tratamenduarekin zerikusia duten gaietarako, araudiak aurreikusita-

ko aurretiazko kontsulta barne, eta, kasua bada, beste edozein gairi buruzko kontsultak egitea.

f) Datu-babesaren alorrean ordenamendu juridikoak ordezkariarentzat aurreikusten dituen gainerako eginkizun guztiak betetzea.

2. Datu-babeserako ordezkariak zuzenean helaraziko dizkio bere txostenak eta gomendioak Nafarroako Parlamentuko Mahaiari.

4. artikulua. Bitarteko materialak eta jendearekiko harremana.

1. Datu-babeserako ordezkariaren eginkizunak ez du horretan jarduteari loturiko inolako ordainsari oinarrizko edo osagarrikeri berarekin ekarriko.

2. Bere eginkizuna betetzeko, ordezkariak Nafarroako Parlamentuko langile teknikari informatikoen sorospena eta laguntza teknikoa izanen ditu.

3. Nafarroako Parlamentuaren webguneak toki ikusgai batean paratuko ditu datu-babeserako ordezkariarekin harremanetan jartzeko datuak.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Erabaki honek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra”.

2. Agintzea erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2018ko irailaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Bizitza Digitalari buruzko Foru Lege proposamenaren gaineko ponentzia eratzeko erabakia.

LEHENDAKARITZAKO, FUNTZIO PUBLIKOKO, BARNEKO ETA JUSTIZIAKO BATZORDEAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 114. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bizitza Digitalari buruzko Foru Lege proposamenaren gaineko ponentzia eratzeko erabakia, Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordeak 2018ko irailaren 12an onetsia. Hona erabakiaren testua:

“1. Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordearen baitan Bizitza Digitalari buruzko Foru Lege proposamenaren gaineko ponentzia eratzea.

2. Epe bat ematea, 2018ko irailaren 13ko 14:00ak bitartekoa, talde parlamentario eta foru parlamentarien elkarte bakoitzak aipatu ponentziarako ordezkaria izenda dezan Legebiltzarreko Mahaiari zuzendutako idazki baten bidez. Idazki horren bidez orobat izendatuko da kasuan kasuko talde edo elkarteko parlamentari bat, beharrezkoa denean ordezkari haren ordezkari dena.

3. Behin ordezkariak izendatuta, Mahaiak erabakiko du ponentzia zein egunetan eratu eta lanean hasiko den.

4. Azterlana egiteko epea ponentzia eratu eta sei hilabetera bukatuko da.

5. Erabaki hau Legebiltzarreko Mahaiari jakinaraztea, beharrezkoa dena xeda dezan aipatu ponentziaren osaerari eta eraketari buruz”.

Iruñean, 2018ko irailaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Emakumeen kalitatezko enplegua bultzatzera eta laneko desberdintasunak eragindako arraila murriztera bideratutako proposamenak eginen dituen txosten bat egiteko ponentzia eratzeko erabakia.

HERRITARREKIKO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 114. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Emakumeen kalitatezko enplegua bultzatzera eta laneko desberdintasunak eragindako arraila murriztera bideratutako proposamenak eginen dituen txosten bat egiteko ponentzia eratzeko erabakia, Nafarroako Parlamentuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordeak 2018ko irailaren 12an onetsia. Hona erabakiaren testua:

Nafarroako Parlamentuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordeak, 2018ko irailaren 12an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen:

“1. Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordearen baitan ponentzia eratzea, Emakumeen kalitatezko enplegua bultzatzera eta laneko desberdintasunak eragindako arraila murriztera bideratutako proposamenak eginen dituen txosten bat egiteko.

2. Epe bat ematea, 2018ko irailaren 13ko 14:00ak bitartekoa, talde parlamentario eta foru parlamentarien elkarte bakoitzak aipatu ponentziarako ordezkaria izenda dezan Legebiltzarreko Mahaiari zuzendutako idazki baten bidez. Idazki horren bidez orobat izendatuko da kasuan kasuko talde edo elkarteko parlamentari bat, beharrezkoa denean ordezkari haren ordezkari dena.

3. Behin ordezkariak izendatuta, Mahaiak erabakiko du ponentzia zein egunetan eratu eta lanean hasiko den.

4. Azterlana egiteko epea ponentzia eratu eta sei hilabetera bukatuko da.

5. Erabaki hau Legebiltzarreko Mahaiari jakinaraztea, beharrezkoa dena xeda dezan aipatu ponentziaren osaerari eta eraketari buruz”.

Iruñean, 2018ko irailaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Arauk, Legebiltzarreko organoen bilkuren eta haren egoitzan egiten diren parlamentuz kanpoko jardueren publizitate-araubidea bermatzekoak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko irailaren 10ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Prensa, Argitalpenak eta Protokolo Zerbitzuko buruak proposamen bat aurkeztu du Legebiltzarreko organoen bilkuren (Osoko Bilkura, batzordeak, lan-bilkurak eta ponentziak) eta Legebiltzarraren egoitzan egiten diren parlamentuz kanpoko jardueren publizitate-araubidea erregulatzeko.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 37. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1.a Onestea Legebiltzarreko zerbitzuetako jarduera erregulatuko duten arauak, bertako organoen bilkuren (Osoko Bilkura, batzordeak, lan-bilkurak eta ponentziak) eta haren egoitzan egiten diren parlamentuz kanpoko jardueren publizitate-araubidea bermatzekoak.

“Lehena. Osoko Bilkuraren eta batzorde arrunten, batzorde berezien eta ikerketa-batzordeen bilkurak grabatu eta zuzenean transmititu beharko dira ikus-entzunezko baliabideak erabiliz(www.nafarroakoparlamentua.eus), eta soinu-erregistroak eta irudi-erregistroak bideotekan artxibatuta geratuko dira, artxibo hori gero interes publikorako, ikerketa historikorako edo estatistika-xedeetarako erabili ahal dadin. Osoko Bilkuraren eta batzordeen bilkurak sekretuak direnean, grabatu egin beharko dira, eta soinu-erregistroak eta irudi-erregistroak artxibatu beharko dira, artxiboaren sekretutasuna zainduz.

Bigarrena. Osoko Bilkuraren eta Foru Araubideko Batzordearen bilkurak transkribatu eta editatu egin beharko dira Parlamentuko Bilkura Egunkarian argitaratzeko, modu digitalean sinatutako euskarri elektronikoa eta paper-euskarrian, artxiborako, Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren 2012ko otsailaren 6ko Erabakian xedatuari jarraituz. Osoko Bilkuraren eta Foru Araubideko Batzordearen bilkura egunkariak Legebiltzarreko web-orri ofizialean eta intranetean argitaratuko dira.

Hirugarrena. Gobernuaren kontrolari dagozkion batzorde arrunten bilkurak –haien gai-zerrendan Gobernuko kideen informazio-agerraldiak, galderak edo mozioak izaten dira– eta batzorde berezien eta publikoak izan behar duten ikerketa-

batzordeen bilkurak transkribatu eta editatu beharko dira Bilkura Egunkariaren antzekoa den formatu batean, eta Nafarroako Parlamentuko web-orrian eta intranetean argitaratuko dira.

Laugarrena. Batzorde arrunten, batzorde berezien eta ikerketa batzordeen lan-bilkurak, hedabideentzat irekiak direnak, grabatu eta zuzenean transmititu beharko dira ikus-entzunezko bitartekoen bidez (www.nafarroakoparlamentua.eus) eta soinu- eta irudi-erregistroak bideotekan artxibatu beharko dira. Batzordeen lan-bilkurak sekretuak direnean, saioak grabatu egin beharko dira, eta soinu-erregistroak eta irudi-erregistroak artxibatu beharko dira, artxiboaren sekretutasuna zainduz. Bilkura horiek ez dira transkribatuko.

Bosgarrena. Batzordeetako ponentzien bilkurak ez dira ez grabatuko, ez transkribatuko, eta ez dira ikus-entzunezko baliabideen bidez zuzenean emitituko (www.nafarroakoparlamentua.eus), Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabaki batez besterik erabakitzen ez bada.

Seigarrena. Parlamentuz kanpoko jarduerak (jardunaldiak, hitzaldiak, Parlamentu Irekiaren osoko bilkurak, Parlamentu Gaztea edo ikasleekin edo kolektiboekin egindako bilkurak...), Legebiltzarrak kanpoko eragileek proposatuta antolatu eta Mahaiak Nafarroako Parlamentuaren egoitzan egitea baimendu dituenak, grabatu eta zuzenean transmitituko dira ikus-entzunezko baliabideen bidez (), eta soinu- eta irudi-erregistroak bideotekan artxibatuko dira, Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakiz besterik erabakitzen ez bada.

Parlamentuz kanpokok jardueren soinu- eta irudi-erregistroak grabatzeari, ikus-entzunezko baliabideen bidez transmititzeari eta artxibatzeari ekin baino lehen, jasota egon beharko da haietan parte hartutako pertsonen baimena eman dutela Nafarroako Parlamentuak irudiak erabil ditzan”.

2.a Erabaki honek indarrrik gabe uzten ditu Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren 1993ko apirilaren 19ko eta 2009ko azaroaren 23ko erabakiak.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko irailaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari egindako komunikazioa, Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2018ko eztabaida dela-eta.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko irailaren 10ean eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Gobernuaren komunikazioa, zeinetan eskatzen baita Foru Komunitatearen egoerari buruzko politika orokorreko eztabaida egitea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 201. artikuluan xedatuarekin bat etorritz Osoko Bilkurak eztabaida dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko irailaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuari egindako komunikazioa, Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2018ko eztabaida dela-eta

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamendua 201. artikulua ezartzen duenez, legegintzartean lehendabiziko bilkuraldiaren hasieran Legebiltzarreko Osoko Bilkura berezia eginen da erkidegoaren egoerari buruzko politika orokorra eztabaidatzeko, salbu eta Gobernuak lehendakariaren inbestidura-eztabaida egiten denean edo bilkuraldi horretan Nafarroan hauteskundeak egin behar direnean.

Artikulu horren lehen idatz-zatian adierazten denez, Nafarroako Gobernuak erkidegoko politika orokorrari eta egoerari buruzko komunikazio bat igortzen ahalko du Parlamentura, osoko bilkura horretan eztabaidatzeko.

Urteetako krisi ekonomiko larriaren ondotik, datu sozioekonomiko nagusiek adierazten dute Nafarroak, oraindik bide luzea badu ere aurretik, pixkanaka egoera lehengoratzten ari dela. Ildo

horretan, egonkortasuna izan da funtsezko aldagaietako bat, Nafarroak legegintzaldian zehar aurrera egin ahal izateko kohesioari, gizarteratzeari eta garapen ekonomikoari dagokienez.

Parlamentuan gehiengo duten talde politiko-artekeko negoziazioa eta adostasun politikoa; horiek dira legegintzaldi honen ezaugarri behineketakoa. Eztabaida politikoa egonkortasunaren aldeko tresna bihurtu dugu. Eta horrek ahalbidetu digu azken urteetan proiektu garrantzitsuei, sakonera sozial handikoei ekin ahal izatea. Horien artean, Hondakinen gaineko legea, Europa mailan erreferentea dena, Kontratu Publikoen gaineko Lege aitzindari bat edo Zientziaren eta Teknologiaren gaineko Foru Legea, besteak beste.

Egonkortasun horrek berebiziko balioa du kontuan hartzen badugu azken gobernuak Nafarroako Foru Komunitatea blokeo instituzionaleko egoera batean sartua zutela, edo kontuan hartzen badugu Estatu mailan legegintzaldi honetan bizi izandako egoera, bi hauteskuntze prozesu eta zentsura mozio bat izan baititugu. Aldi berean, Nafarroan gobernu irmo eta egonkorra izan dugu.

Hiru urte hauetan zehar gai izan gara desberdinen arteko negoziazioa eta elkarrizketa lantzeko; hori beti ez da erraza izan, izan ere, adostasunek eskatzen dute amore eman behar izatea eta eskuzabal jokatzea. Zalantzarik gabe, elkarrizketa eta adostasun gaitasun hori bera beharrezkoa izanen da legegintzaldiaren azken aldi honetan ere, Nafarroako gizartearen egiazko premiei aterabidea emateko eta etorkizuneko ekimen eta proiektuak bultzatzeko.

Erronka horiei testuinguru positibo batean ekiten ahal diegu ondoko hilabeteetan, Nafarroako ekonomiak urteko %4,4ko hazkundea pilatu baitu. Azpimarratzekoa da bigarren hiruhilekoan errepikatu egin dela urteko lehen hiruhilekoan BPGak izandako %1,0ko hazkundea; ez da halakorik gertatu 2006az geroztik. Bilakaera hori bestelakoa da

Estatuan; izan ere, moteltzea eman da, hiruhileko hazkundea %0,7koa izan baita eta, aldiz, urte artekoa, %2,7koa. Datu horiek egiaztatzen dute Nafarroaren profila dinamikoagoa dela, eta bat datorrela abagunearen adierazleekin, horiek adierazten baitute Nafarroako jarduera ekonomiko eta enpresariala irmoa eta finkoa dela.

Hazkunde ekonomikoko egiera horrek enpleguan ere badu bere ondorioa. Biztanleria aktiboaren gaineko inkestak argitaraturiko azken datuen arabera, Nafarroan 7.900 enplegu sortu ziren urteko bigarren hiruhilekoan, eta Estatu mailan langabezia tasarik txikiena duen erkidegoa da, %9,93koa baita, Estatuko batez bestekotik 5 puntu beherago. Enpleguaren kalitateari dagokionez, bilakaera nabarmenki positiboa bada ere 2017an, soldatak %4,1 hazi baitziren eta, beraz, Nafarroa izaki gehien hazi zireneko autonomia erkidegoa, oraindik bada aldea 2008ko batez besteko soldatekin. Aldi berean, portaera ez da homogeneoa errentaren maila guztietan. Horregatik, gai hau Gobernuaren funtsezko lehentasuna izanen da baita heldu diren hilabeteetan ere, laneko ezbehar kopurua murriztu beharrekin batera.

Halaber, ekonomiaren ibilbideak bere isla izan du zerga-bilketan. Izan ere, krisiaren aurreko zenbatekoak berreskuratu dira, kasu honetan, baita Estatuarekin Hitzarmen Ekonomiko berria sinatu delako eta, ondorioz, Nafarroako errealtatearekin orekatuak diren kontuak ditugulako eta zerga erreforma premiazko eta progresiboak dugulako.

Horrela, Nafarroak bere kontuak onbideratu ditu, kaudimen ekonomikoko ratioa A- mailatik goreneko mailara, A+ mailara pasatu da, eta altxortegian 2015ean 50 milioi euro izatetik, 2017an 631 milioi euro izatera pasatu gara. Horrela, Nafarroak azken 10 urteetan lehen aldiz itxi ditu kontuak superabitarekin. Hori guztia, Nafarroako Aurrekontu Orokorrak hiru alditan garaiz eta behar bezala onetsi direnean. Horrek ekarri du gastuen hazkunde arduratsua egitea, foru altxorra kaltetu gabe.

Une honetan Nafarroako Gobernua lanean ari da jada 2019rako Nafarroako Aurrekontu Orokorren prestaketa lanetan. Behin prest daudela, Nafarroako Parlamentura ekarriko ditu, eztabaidatuak eta onetsiak izan daitezzen. Kontu horiek jarraipena emanen diete ekonomiaren eta enpleguaren bultzadari eta arlo sozialetan egindako inbertsioari. Azpimarratzekoa da Nafarroa buru dela Estatuan gastu sozialari dagokionez, biztanleko 3.247 eurokoa baita. Gastu sozial horrek balio izan du, kasurako, nabarmenki murrizteko pobrezia tasak, itxaron zerrendak murrizteko, pensioak osatzeko edo mendekotasuna duten pertsonen arreta biziki areagotzeko.

Hezkuntzaren alorrean, ahalegin handia egin da aurreko legegintzaldian egindako murrizketak bihurtzeko. Horrela, Nafarroako irakaskuntza publikoaren kalitatea hobetzeko ituna sinatu berri dugu, inoiz izan duen babesik handienarekin. Itun hori irakaskuntza itunduarekin erdietsitakoari gehitzen zaio.

Legegintzaldiko hiru urte hauetan, gainera, Nafarroa sendotu egin da bakearen eta bizikidetzaren gune gisa. Zeregin horretan ekina izan da Gobernu hau, eta irmo jarraituko du ildo berean, beren hurbilekoen gorpuzkien bila aritu diren 36ko biktimen ahaideei erreparazioa emanaz, biktima guztiei aitortza egiteko ekitaldien bidez duintasun instituzionala ezartzeko lan eginez eta, hainbat kasutan lehen aldiz, ETArekin biktimen ahaideak atendituz. Ahalegin horiek jarraituko dute, halaber, berdintasun politikekin Gobernuak duen uste osoko konpromisoan sakontzen.

Gure ingurukoekin ditugun harremanen esparruan, Nafarroa bere ahotsa berreskuratuz doa nazioarteko testuinguruan. Horrela, funtsezkoa da Nafarroak Europan izan beharreko presentziaren aldeko hautua. Gakoak dira bide horretan Europako ekintza plana, fruituak ematen ari dena, edo Nafarroa euroeskualdean txertatzea. Nafarroa, hain zuzen ere, aurten hasita eta 2020raino euroeskualdeko lehendakari izanen da.

Hori guztia egiten ari gara, ahantzi gabe Estatu Gobernuarekin izan beharreko harremana, Espainiako lehendakariari ekainean eskatu bainion bilkura bat Nafarroako interes orokorreko gaiak bi erakundeen artean aztertzeko. Bereziki adierazi nion gairak beharra dugula Aurrekontu Egonkortasunari buruzko legeak ezartzen dizkigun mugak, inbertsio finantzario jasagarriak egin ahal izateko.

Gai horien bidez eta, zalantzarik gabe, eztabaidan aterako diren beste batzuen bidez, herritarrek ezagutu ahal izanen dute Gobernuaren ekintza, eta talde politikoei horiekiko dituzten jarrerak. Nafarroako Gobernua jarrera irekian joanen da, guztiondako etorkizun hobeari mesedetan egiten diren ekarpenak jasotzeko gogoz. Nire nahia da eztabaida lasaia eta eraikitzailea izan dadila.

Horrenbestez, jakinarazten dizut Nafarroako Gobernuak erabakia hartu duela Nafarroako Parlamentuan Foru Komunitatearen egoerari buruzko eztabaidari bide emateko.

Iruñean, 2018ko irailaren 5ean

Nafarroako Gobernuko lehendakaria: Uxue Barkos Berruezo

